

FITO RODRIGUEZ

Egunero egun ero



*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren
diru-laguntza jaso du*

© Fito Rodriguez

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2015eko iraila

ISBN: 978-84-942531-5-7

Lege-gordailua: SS-664-2015

Irudiko azala: Irene Irureta

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE

Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Iparraldean: 0033547640386

BANATZAILEAK:

BITARTE – 31195 BERRIOZAR (NAFARROA).

TEL.: 948-302239

JAKIN – 64100 BAIONA (LAPURDI)

TEL.: 05592232

<https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/>

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

FITO RODRIGUEZ

Egunero egun ero

Utriusque Vasconiae

AURKIBIDEA

Aintzin-solasa	11
EUSKAL KALENDAK	
<i>2012-06-18</i>	17
Intxaurrak bildu	
<i>2012-06-20</i>	19
Dontzeilen istorioak	
<i>2012-06-26</i>	22
FILMOKAUSTOA	
<i>2012-06-29</i>	27
Euskal idazlea iraintzat	
<i>2012-07-07</i>	30
Irakurtzea irakurtzeagatik eta hitz egitea hitz egiteagatik	
<i>2012-08-17</i>	32
Etsaiaren aurkako ankerkeria	
<i>2012-08-20</i>	34
Unforgiven ZINEMIRAN	
<i>2012-09-03</i>	37
Independentzia European	
<i>2012-09-21</i>	41
Politikari kiratsa dario	
<i>2012-09-27</i>	44
Trantsizioa berrirakurtzen	
<i>2012-10-07</i>	47

Demokraziaren izenean	
<i>2012-10-16</i>	51
Lan falta	
<i>2012-10-25</i>	54
Hizkuntz Autoderminazioaren aldarria	
<i>2012-11-06</i>	57
Durango berriro dator	
<i>2012-11-16</i>	60
Juduen isiltasuna	
<i>2012-11-25</i>	62
AFORISMOAK Biktimari agurka	
<i>2012-12-09</i>	65
Subiranorik gabeko subirautza, giltza- petik askatasunera	
<i>2012-12-24</i>	69
Datorren mutazio politikoa	
<i>2013-01-02</i>	71
Gotingako zazpiak	
<i>2013-01-13</i>	74
Legearen barruan	
<i>2013-01-25</i>	77
<i>Britainiarren oparia</i>	
<i>2013-02-01</i>	80
Entzutegia entzungor	
<i>2013-02-08</i>	83
SORTUri izua	
<i>2013-02-22</i>	86
Searching for Rodriguez	
<i>2013-03-06</i>	88
Presoak mintzo eta politikoak entzungor	
<i>2013-03-12</i>	90

Idazlarien betekizuna	
<i>2013-03-23</i>	94
Babin Kuck	
<i>2013-04-01</i>	97
MLJET	
<i>2013-04-07</i>	98
Errepublikaz	
<i>2013-04-14</i>	100
Iruzur gaiztoa desobedientziaren izenean	
<i>2013-04-24</i>	102
Thomas Teorema	
<i>2013-04-28</i>	104
Kolonbiarekiko elkartasuna	
<i>2013-05-09</i>	107
Buru egitea	
<i>2013-05-30</i>	109
Zure esku dago 2014	
<i>2013-06-09</i>	111
Erabakitze-eskubideren alde nago	
<i>2013-06-01</i>	113
Gizaki arruntaren itzaropena piztu zene- koaren izenaz	
<i>2013-06-23</i>	117
Irakasle ezjakina	
<i>2013-07-05</i>	120
Billy the Kid	
<i>2013-10-02</i>	123
Egunsenti Urrekara	
<i>2013-10-07</i>	126
Bakuko Bakea	
<i>2013-11-04</i>	129

On Tankredo	
<i>2013-11-11</i>	131
Pellokeriak	
<i>2013-11-18</i>	133
Kennedyren hilketa susmopean	
<i>2013-11-22</i>	135
Martutene	
<i>2013-12-04</i>	138
Aberria negozio	
<i>2013-12-13</i>	141
Loro-mokoak	
<i>2013-12-23</i>	145
Txillardegia pianoa jotzen	
<i>2014-01-24</i>	148
Machiavelok eta Montesquieuk hitz egingo balute	
<i>2014-02-20</i>	152
ETA, mon amour	
<i>2014-03-03</i>	154
Udaberrien aldaketak	
<i>2014-03-20</i>	158
Amnesiaren Gorazarrea	
<i>2014-04-01</i>	160
Politikaren liburua	
<i>2014-04-28</i>	164
SASTFOREST	
<i>2014-05-12</i>	167
Gladysenea	
<i>2014-05-26</i>	169

Noa, eta ez noa...	
<i>2014-06-26</i>	171
Ez al da aski susmagarria?	
<i>2014-07-10</i>	174
Justizia trantsizionala, ez transakzionala	
<i>2014-08-04</i>	177
Bide berriak plano zaharrekin ibiltzera behartuak	
<i>2014-09-09</i>	181
Urkullu autonomista domestikatua da	
<i>2014-10-01</i>	183
Lourdesera bisita	
<i>2014-10-23</i>	186
Ustela Saila	
<i>2014-10-30</i>	188
Bufoiak	
<i>2014-11-24</i>	190
Belen ala jaiotza?	
<i>2014-12-18</i>	192
Demokrazia ez da demografia	
<i>2015-01-12</i>	196

Aintzin-solasa

Egunen gurpilean bizi gara. Egunerokoak markatzen gaitu bizitza agendaarazo bihurtzeraino. Egunkariak izan dira orain arte igarotako bizitzen kronikariak. Literaturan, berriz, egunerokoak ezagutu ditugu baita dietarioegileak ere. Prentsan, berriz, kazetarien idazkuntzak eman nahi izan dio horri tokia mota ezberdinetako hemerroteketan.

Duela ez asko, ordea, paperorria beste euskarriek jana izaten hasi zenetik behintzat, eguneroko jardunen isla eta haiei buruzko gogoetak, blogek, txioek eta enparauek eman diote segida idazkera horri.

Jadanik hiru urte paseak badira *naiz* blogean zeregin horretan nabilela eta, baten batek idatzi zuen gisa, *gara*-tik *naiz*-era igarotzea zer den ari naiz konturatzen neroni ere. Blogeko idazkera ez baita prentsa-artikulu batean argitaratzen dena eta ezin baita alderatu blogari dagokion hizkuntza-freskura eta polemika-grina inprentaren bidez zabalduetako mintzaira neurtu bezain “politikoki zuzena” denarekin.

Blogetako idazkuntza ez da kazetaritzarena, ez eta literaturarena ere. Izatekotan, saiakera berriaren idaztankera du ezaugarritzat blogak. Horrela, Saiakera literarioaren ezaugarriak laburbilduz, en-

tseguaren idazkuntzak behean doazen bereizgarriak lituzke:

1. Ohiko erreferentzia akademikorik gabeko idazkia, gaiaren inguruan peskiza egin ahal izateko. Ez da hedakuntzarako testu-liburua ez eta ikerketaren berri emateko komunikazio idatzia ere. Genero artekoa da, berez.
2. Saiatuk haztatu edota probatu esan nahi du (ez frogatu). Ez da, beraz, monografia, testu didaktikoa edo tratatua.
3. Errenazimenduaren garaiko literatura-giroan sortutako generoa da, XVIII. mendeko aldizkarien ondorioz zabaldu dena, Ilustrazio eta modernitatearen arteko loturaren erakusle (nitasunaren adierazlea).
4. Izaera komunikatiboa duena, idazlearen eta irakurlearen arteko elkarrizketaren bidez ohiko ikuspegiak eta gizarte-balioak kolokan jartzeko joeraz idatzia.
5. Edozein kezka gaitzat hartzen duena.
6. Pasarteka adierazten dena, egilearen eskarmentuetatik abiatu eta garatzen dena.
7. Nora doazen ez dakiten “a priorizko” gogoeak. Hausnarketarako idazkiak.
8. Ohiko ez denari erreparatu eta kasu egiten dion begirada diferitua (Derrida, 1996).
9. Filosofoak edota zientzialariak ikertzen duena saiogileak azaldu edota argitu nahi izaten du.

10. Saiogilea kritiko sortzailea da. Gertuko laguna. Bere iritzia osatzeke dago beti.
 11. Bat-batekoa izan gabe, berezkotasunaren jarria dagokio entseguari.
 12. Saiakerak ez du barne-koherentziaren beharrik, ez eta datu zehatzik ere eta hausnarketarako bideak baino ez ditu ireki nahi. Antzerkiaren antzera, irakurlearik gabe entsegua ez dago bukatu.
 13. Diskurtsoa baino areago digresioaren modua da saiakeraren jarria.
 14. Egilea dugu saiakeraren ardatza.
 15. Informatzailea baino gehiago iradokitzailea izan behar du, sedukzioa da saiakeraren portaera.
 16. Ez du emaitzarik bilatzen irakurleekiko, elkarrizketa baizik.
 17. Egunerokotasunarekiko lotura entseguaren oinarria da. Entsegua ez da zabala izaten, laburra eta sakona baizik.
- (<http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee39340/145107>)

Beraz, horretan nago ni, saiakera izateko blogari falta zaiona, hizkuntzaren arduraren soilik litzateke. Egunerokoarekin daukan lotura izateaz gain, goian aipatutako zerrenda behetik gora irakurriz gero, ene “Euskal Kalendak” bloga idazteko erabili ditudan idatz-nolakotasunak aurki daitezke. Horregatik, hizkuntz jorraketa egin ondoren, deliberratu dut bilduma moduan aurkeztea.

Egia esanda ez dakit honi zer-nolako izenda-pena eman. Ez dakit arra edo emea izango ote den hemen eskaini nahi dudan testu-sorta. Ez dakit zer genero literarioz bataiatu. Bistan da ez dela ohiko kazetaritza, ez eta saiakera puru-puruan ere. Aski paradoxikoak dira kronologikoki hurrenkeran azaltzen diren testuak. Askotan aipamen literarioez lagunduta, besteetan labur eta zuzenak, gehienetan eztabaidarako idatziak eta beti egunen gurpilean izkiriatuak.

Bere azken liburuan (*El impostor – 2014*) Javier Cercasek “memoria historikoa” salatu zuen. Ez, bere ustez, haren erabilera maltzurra, kontzeptua bera baizik. Hau da, historia eta memoria nahastu nahi izatea. Historia ikerketa baita eta memoria, berriz, norberaren oroitzapenak soilik. Horretaz gain, Cercasek dio, memoria kolektiboaz hitz egin nahi izateak aztoramena eta nahasmendua besterik ezin duela ekarri.

Ez naiz ni uste horretakoa. Aitzitik, Historiak oroimena behar duela eta oroitzek ikerketaren beharra daukatela uste dut.

Behin baino gehiagotan Literaturari eman nahi izan zaio oroitzapenaren mintzaira eta Historiari, aldiz, hemerrotekaren datua egotzi diote. Liburu honetan kronologikoki agertzen joango diren idazkiak ez dira kronikak, ez kazetaritza-lanak, ezta ohiko saiakera literarioak ere..., horiek denak, “memoria historikoa” bezala, testu paradoxikoak dira, egunen gurpilean euskarri elektrikotarako izkiriatuak eta orain, berriz, irakurketa lasaierako papereratuak. Antzerako liburua izkiriatu zuen Michel Houellebecq idazle frantziarrak (*Interven-*

tions, 1998) bere artikuluak bilduz. Argitalpen honen finkatuta utzi nahi dituen gogoeta nahiz erreferentziak, datuak nahiz metaforak, ez dute berez ezer berririk ekartzen, berriak, egunerokotasunaz harago, idazgai bihurtzea baino. Saiakera eroa. Beterereko idazkera egunerokoari eskainia.

Fito Rodriguez

EUSKAL KALENDAK

2012-06-18

Ad kalendas graecas (αδ καλενδας γραεκάς) zioten latinez, inoiz egingo ez ziren gauzak adierazteko.

Izan ere, Grezia zaharrearren erromatarren egutegia erabiltzen ez zutenez, asmoak gauzatzeko garaiak ez omen ziren haren arabera behin ere iristen eta burutu beharrekoa zertu gabe geratzen zen betiko.

Aspaldiko Grezian zorrak ordaintzeko gogofalta azaltzeko baliatzen zuten esapide bera darabilte orain, nonbait, Grezia garaikidean..., baina, goazen harira...

Euskaraz, aldiz, **Kalenda**, hilabeteko lehen eguna izaten da. Hau da, gure egungo kalendarioak honelako bitxikeria ekarri du, egutegia berri-tzean agertutako hutsuneak bete nahian, abadeek txukundu behar izan zituzten ohikoak, kalendak moldatuz eta, beraz, hilabetearen hasiera-eguna jarrita. Handik aurrera, “kalendario” hitza iragarri zuten, bai eta haren lehenengo egunei kalendak izendatu ere.

Euskal kalendak, bada, ezin dira esaera klasi-koaren itzulpen huts izan, euskal kultura hizkuntza baino gehiago delako eta zer esan nahi duen ulertu

ahal izateko bertatik bertara irakurri beharra da-
goelako.

Asmo horrekin abiatzen da euskal kulturaz
aritzeko aldizkako kaleria? kalenda? hau...

Garai batean aditu nion kulturaz ardurak
azaldu izan dituen Ramon Etxezarreta sozialista-
ri, abertzaleok “euskal” hitza ezin genuela burutik
kendu, eta, gure kosmobisioa borobiltzeko, “euskal
erlijioa” ere asmatu egin beharko genukeela...

Ez dut uste ezer asmatu behar dugunik gure
kulturaz jabetzeko, horretarako irakurtzen jakitea
aski izaten baita...

Irakurtzen dakitenentzat eta euskal kulturaren
esangura garaikideaz gogoeta egin nahi duenaren-
tzat, hona hemen, bada, noizbehinkako “euskal ka-
lendak” (ευσκαλ καλενδας). Hurren arte...

Intxaurreak bildu

2012-06-20

Bai horixe!, kalentura dakar kalendarioak Donibane garaian!...Patziku Perurenak “Saski bete intxaur” gogoeta-liburua plazaratu du oraindik orain, bere ustez “Bildukoentzat bereziki gomendagarria izan daitekeena”, nonbait, (BERRIA 2012-06-14; 33 or.).

Asko izan dira azken bolada honetan euskal literaturan argitaraturiko mota honetako ekarpenak egin dituzten idazleak (ez denak, bide batez esanda, Bildukoei gomendioak emateko bereziki...). Erregistro horretan, “esan gabe doa”, ia klasiko bihurtu zaigun Karlos Linazasoroz aparte, David Tijero, Antton Erkizia, Ana Urkiza edota Carmen Valois ibilbide beretik sakontzen joan izan dira. Bide saiatua eta esker gaiztokoa, alafede..., non, nekez itxaron daitekeen arrakasta publiko handirik.

Duela gutxi irakurri nuen, adibidez, “Pido la paz y la palabra” poesia-ekimenaz, (badakit horrek ere euskarazko ordaina bazuela baina gazteleraz antolatutako ekitaldiaren sasi-itzulpen osagarria besterik izan ez zenak ez du euskarazko aipurik merezi...) leitu nuen, bada, “Literaturia” jardueran askoz jende gehiago elkartu zela beste horretan baino. Ez dakit hala izan ote zen, baina ez dit in-

porta... Izan ere, gogoeta idaztea, munduari nota hartzea, berez, notizia ematea, «noscere» aditz latinotik erakarrirako hitzak direnez, ezaguera dute adieran eta hor dago beren balioa, ene aburuz, zeren, klase horretako literaturak, aforismo modukoak, alegia, munduaren ezagutza zabaltzen laguntzen baitu.

Horrek ez du ziurtatzen, halere, idazkia, irakurria izango denik, ezin baita ziurtatu ustezko irakurlea edota irakurleria, baina horrela idazteak ezaguera berritzen duen neurrian, gauzatzen den bakoitzean gertatzen da ezaguera berri eta hortxe dago bere balioa.

“Twitter perfektu” gisa definitu izan du aforismoa Antonio Casado da Rochak bere blogean (<http://laguna.blogspot.com.es/2012/06/literaturia-2012.html>) eta definizio horretan jakin izan ditu biltzen, bada, forma horretako kultura literario klasikoa eta garaikidea, baita tradizioa eta modernitatea ere...

Gogoeta laburrez osatutako testuena ez da gure artean, soilik, sortzen hasi den ohitura literarioa, aspaldikoa bezain hedaturiko generoa baita letren munduan. “Asalto” elkarteak, esaterako, duela asko hasi zen sarean estilo horretako gogamen idatziak hizkuntza ezberdinetan zabaltzen (www.fundacionrobo.org/asalto) eta Stanislav Lec aforismoen maisuaren emariaz gozatu ahal izateko blog ezberdinetan dauden aukerek (www.andressorel.blogspot.com) estilo horren indar garaikidea azpimarratu besterik ez digute egiten.

Baina, esan bezala, horrek ez du, berez, inongo irakurleriarik bermatzen.

Badakigu Bildukoak asko direla, azken zenbaketen arabera bederen, eta Sortu legeztatu ondoren gehiago ere izan daitezkeela gainera, baina ez da ona izaten egile etsituak balizko irakurlearen bilaketa horren nabarmen agerraraztea. Bildukoez gain, Patzikuk, filologoek, euskaltzainek eta andana luze batek bere liburua irakur dezaten nahi du..., nik irakurriko dut, jakina. Oso gustukoak ditut Patzikuren literatura-estiloa eta literatura-gogoeta, Aranalde eta Izagirre, Zabala edota Azurmendi...

Izan ere, berdin aforismoetan, esapidetan, hitz zuhurretan, twitterretan zein blogetan, azala eta mamia bereiztea eta dastatzea maite dudalako.

Dontzeilen istorioak

2012-06-26

Gaur torturaren aurkako eguna ospatzen omen da, gai horretaz hitz egiteko «ospatu» aditzak balio badu behintzat. Guk, horri buruzko kezka gizarteratzerakoan, Ordiziako gaztetxean, Ariel Dorfmanen “Herioa eta Dontzeila”ren euskal bertsoia taularatuko dugu. Antzerkiaren muina honela da:

Shuberten “Herioa eta Dontzeila” musika aditzerakoan, Paulina gaixotu egin ohi da torturapean pasaturiko sufrikarioa gogora datorkiolako.

Behin, Gerardok, bere senarrak, dakarren autotik aipatu doinua entzunez, bere torturatzaileetariko bat izan omen zenari (Roberto Miranda medikua) antzematen dio, eta, ustez, aspaldiko zorra kitatzeko garaia iritsi dela uste du...

Testu horretan oinarriturik Roman Polanskik 1994an eginiko filmak (Sigourney Weaver; Ben Kingsley eta Stuart Wilson) “Death and the Maiden” izeneko antzezlanaren famatu zuen eta, orduetik hona, mundu osoko oholtzetan ibili da 48 hizkuntzetara itzulita.

Orain, berriz, euskaraz ere goatzeko aukera badugu, izan.

Literaturak, Historiak helarazi ezin duena adierazten badu, balio digu.

Bizipen adiezinak ulergarri bihurtzea litzateke gertuko istorioen funtsa. Literaturako Nobel Sari-dun izan zen Boris Pasternakek «landareak hazten badira ere, inork ezin du belarra hazten ikusi» esaten zuenean, deskripzio zehatzen aldeko hautua ari zen defendatzen literaturan eta, bere “Zhivago Doktorea” idatzi zuelarik, gertaera xumeen bidez Sovieten Iraultzako gertakizunen berri dotore eman zigun, nahiz eta orduko estalinismoak ez zuen horrela ulertu nahi izan eta eleberriaren zabal-kundea debekatu zuen.

Eskerrak argitaldaria zen beste komunista batek (Feltrinelli), zentsura horri muzin egin ziola eta testua kaleratzea erdietsi zuela. Horri zor diogu, besteak beste, egoera iraultzaile batek dakarrenaz behar bezala ohartzeko istorio haien ezaguera.

Horren gainean Hollywooden burutu zen moduko filma, aldiz, zeharo desberdina da, beste gauza bat da.

Izan ere, adibideek hurbildu egiten dizkigute besteen bizierak iragana orainera erakartzeko gai diren heinean. Eta horretan, Historian zehar, antzerkia bizi-egokia izan da. Hura dela bide, antzertua irudikatzea eta, azkenik, ulertzea ere ahalbidetu ahal izan da mendetan zehar.

Mendekuaz eta amodioaz, gorrotoaz edo liluraz jabetu gara oholtza gainean aurkezturik ikusi dugunari esker. “Herioa eta dontzeila” da horren guztiaren adibidea.

Muga-mugan sentitutako beste bizipen batzuk bezala, torturatuaren bizilegea helezina izaten da, gehienetan. Istorio xume batek, ordea, erakuts dezake hamaika datuk azaltzerik izan ez duena...

Ariel Dorfmanek idatzitako horrek egiten duen moduan.

Buenos Airesen jaio baina txiletar nazionalitatea duen idazle horrek mota guztietako testuak eskaini dizkigu. Berdin poesian, antzerkigintzan, eleberriak sortuz edota saiakerak burutuz, herri-kulturaren ikerlari joria dela erakutsi du. Allenderen gobernuarekin bat egin zuen eta estatu-kolpearen ondorioz Frantziara hasieran eta AEBetara gero, erbesteratu zen. Egun Duke unibertsitatean irakasle dena Sorbonan (Paris IV), Amsterdamen, Kaliforniako Berkeleyn edo HYPERLINK “http://es.wikipedia.org/wiki/Universidad_de_Maryland” Marylandeko unibertsitatean ere irakasle ibilia da.

Giza eskubideen aldeko eragile nekaezinak ez du inoiz errazkerietara jo nahi izan.

Baina ia berrogeita hamar hizkuntzatan antzeturiko maisu-idazlan hau euskaraz argiratua izatera iristeko moduak ere, badu bere istorioa (Txalaparta 2010)...

Dorfmanek kontatzen duena Txilen gertatzen da eta, gure semea hantxe ikasten ari zela, testua bere lagun alemaniar baten bidez (Nina Bust-Bartels) ezagutu ahal izan nuen.

Aspalditik Roman Polanskik zuzendutako filma ikusi arren, idazkiak zuen berezko indarrak harrapatu ninduen eta euskarara ekartzea erabaki nuen.

Ariel Dorfmanekin jarri nintzen harremanetan eta hark, honela erantzun zidan: «Torturaren aurkako edozein ekimenen alde nago, beraz, antzezlanaren zuen hizkuntza ederrera eramatearekin bat natorkizu».

Ardura handiz segitzen ditu Dorfmanek bere literatur lanen itzulpenak, zeren berak elebitan argitaratu ohi ditu idazlanak (ingeles ez eta espainieraz) nahiz eta, hitz egiteko behinik behin, beste hizkuntza askotan ere gai izan.

Beraz, lan horri ekiteko Martin Anso nahiz Jon Urruxulegiren laguntza paregabea izan nuen, baina, jakina denez, literatura dramatikoaren antzeztu arte inoiz burutzen ez denez, aktore batzuekin jarri nintzen harremanetan. Horrela, Ramon Agirre, Itziar Ituño eta Asier Sotarekin batera, itzulitako testua onduz joan ginen aurkezteko moduan jarzteraino.

Torturaren Aurkako Taldeak bideratu zuen lehen emanaldia Azpeitian, gero Donostia, Sara, Berriozar edota Hernani etorri ziren... eta, oraindik ere hor segitzen du...

Euskal Herrian, zoritxarrez, horren ohikoa izaten den torturaren esperientziak aritu ahal izateko bada, idazki honek munduari itzulia eman behar izan dio euskarara itzulia izateko.

Gertukoei, gure seme-alabei kasu, torturatuak izatearen eskarmentua behar bezala inoiz azaltzerik ezin izan diedana, "Herioa eta dontzeila" antzezlanaren ikusita edo irakurrita, gerturatuko diedalakoan nago.

Horrela, beren antzera, beste euskaldun askok, urruti iruditu arren hain hurbil dauden mota horretako istorioetara heltzerik izango dutela uste dut... hau ere Euskal Herriko Historiaren zati baita eta ez, soilik, euskal dontzeilena, alajaina...

Kalenda hauetara ekartzeak badu, ordea, adierazitakoaz gain, bere funtsa.

Gure irakurketa dramatizatuak («gurea» diot ez Aita Santu bihurtu naizelako, lan kolektiboa delako baizik...) urte eta erdi Euskal Herrian zehar korritu ondoren, hara non eta GARAK berak, Madriletik espainiar talde famatu bat hona etorri zenean gazteleraz antzezteko, «kultura» sailean, “La muerte y la Doncella” azkenean gure artean ikusi ahal izateko parada izango genuela argitaratu zuen...

Ongi azalduta ere, “Herioa eta Dontzeila” eta “La muerte y la Doncella”, jatorrizkoa azken hau izan arren, ez dira berdinak antzezlana euskaraz entzun duenarentzat...

Filmokaustoa

2012-06-29

Holokaustoa hitz berria izan zen, Bigarren Munduko Gerratearen ostean asmatu behar izan zuten naziak eginiko sarraskiak izendatzeko... eta beste adierazpide batzuk erabili arren («azken ebazpena», juduen etnozidioaz aritzeko erabili ohi zena, kasu...) hura izan da ordutik hona nazioartean gehien zabaldu dena.

Filmokaustoa ere izendapen berria da, nik orain proposatutakoa, Donostiako Udalak “Barrura begiratzeko leihoak” ekoizteko Zinez Elkarteari emandako diru-laguntzaren kontra Espainiako Barne Ministerioak eginiko xantaia adierazteko, hain zuzen ere.

Ekoizleek udalaren diru-laguntzari uko egin badiote ere, laguntza beharrean badaudela begi-bistakoa da eta, dagoeneko, «*crowdfunding*» moduko baten bidez ari dira herri-sostengua eskatzen: <http://www.zinez.net/babes-kanpaina?lang=es>.

Filma egin, egingo da, eta, ahal dela, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian aurkeztuko da. Hantxe, beraz, Espainiar Demokrazia Populista Autoritarioa (nazismo berria) zertan datzan era gardenean agertuko delakoan nago eta, horrekin ba-

tera, bide batez, Madrilen agintean dagoen Partido Popularraren Euskadiko konplizeak, Donostiako Udalean EAJ eta PSE, ere nabarmenduko dira.

Adierazpen-askatasunik gabe ezin esan demokrazia dagoenik. Izan ere, hautu politikoak egin ahal izateko alde zurretik ideia ezberdinetako agerbideen arteko lehia publikoa bermatu beharra dago, haren ondorioz aukera politikoa behar bezalakoa izan dadin.

Adierazpen-askatasunaren aurka, liburuak errez, egunkariak isilaraziz edota filmen ekoizpe-nak eragotziz..., borreroak hamaika aurpegi badu, izan, askotan ideien zabalkuntza oztopatuz betiko zapalkuntzan.

Horrela, munduan izan diren liburu nahiz liburutegi askoren berri ezin izango dugu inoiz izan, "Bibliokaustoaren" berri eduki arren, Donostiako Garibai kalean 1937an frankistek liburuak erretzeko egin zituzten suteen notizia badago ere, adibidez, nekez jakingo dugu zeintzuk izan ziren bertan «galdutako» liburuak. Zenbat hiztegi, saiakera, antzerki edo poesia desagertu dira historian izan diren hura bezalako bibliokaustoetan? Batek daki..., baina kultura, azkenean, geratzen dena da, ez, ordea, historiaren amildegian eroritakoa...

Lauaxeta, Lizardi..., bai, baina haien moduko zenbat idazleren berriak amildu dira zeharo, zentsurak, ezaxolak, ergelkeriak, zabarkeriak, totalkeriak edota ezjakintasunak direla medio?

Platon goraiapatua izan dugu gure kultura judegu-kristauan baina bere izena eta idazkiak honaino iritsi badira, tiraniaren alde berak izandako jarreragatik izan da, Aristotelesen "Poetikan",

esaterako, ez dira agertzen egun horren ezagunak omen diren Sofokles edo Eskilo... eta besteak, orduan famatuak izan zirenak. Zer jaso dugu kultur historiaren oinordekotzatik?

Espainiako Inkisizioa ezaguna da Munduko Historian baina erre eta debekatu zuen guztiak ez al zuen batere baliorik?

Geratzen dena da kultura eta, betoaren bidez galarazten dena, aldiz, betiereko galera izaten da.

Jean-Claude Carrièrerek idatzitako “Dictionnaire de la bêtise” horretan (Ergelkeriaren Hiztegia) kirtenkeriak zapuztutako ideien eta egintzen berri ematen zaigu. Carrièrek, Buñuelekin lan egin zuen zinemagintzan (“El discreto encanto de la burguesia”, “Belle de jour”, “Ese oscuro objeto del deseo”) eta beste zuzendarientzako gidoiak ere idatzi zituen: “Zirano Bergerac-ekoa” “Latorrizko danborra”... Mota guztietako zentsura motak eza-gutu ditu. Saiakera bat badauka hark, idatzi zuen moduan “Huntaz eta hartaz” (“Le film qu’on ne verra jamais”) baina “Barrura begiratzeko leihoak” filma, berriz, ikusiko dugu, ez dute isilaraziko, ezin izango dute filmokaustoa burutu, eta haiek guztiak, XXI. mende honetako zentsore memeloak agerian geratuko dira nabarmen...honezkero halaxe geratu baitira... kultura egiten ari garelako...

Euskal idazlea iraintzat

2012-07-07

Berezko idazlea hil arte eskandalagarria izango dela zioen Simone Beauvoirrekoak. Burgesiarentzat gaizpide, jakina, zeren eta Beauvoirementzat, Sartreentzat bezain beste, idazteak mundua aldarazteko egitasmoak plazaratzea baita, askatasunaren aldarriak zabaltzea, hain zuzen ere...

Deigarria egin zait hala Laura Mintegiren hautagaitzaz aritzeko, nola, zehatzago, bera eta bere taldekideak aurkezteko, Espainiako hedabide gehienek definizio hau erabili duten: “escritora en vascuence (o lengua vasca)” ...

Ez dut ikusi bere curriculum akademikoari buruzko ia inongo erreferentziarik, ez eta Euskal Herrian bere bizitzan zehar burututako gizarte-lan ez edota elkartasun-ekintzez egindako aipamenik ere, “euskal idazlea” bakarrik izan da erabilitako epitetoa.

Argitaratutako tokietan irakurrita, noski, Lauraren mesprezurako idatzia izango zela ulertu nuen.

Espainiar ideologia zentralistatik begiratuta bederen, “escritor” denak ez dio bere jardunari abizenik jarri behar, hau da, haiek ez bide dute “escritor en castellano (o lengua española)” jarri behar

izaten zein hizkuntzatan idazten duten azaltzeko. Nik, berriz, euskal idazlea naizela diot baita hala idazten dudala ere, eta halaber adierazten dut behar den tokietan, “escritor” (beraz, “escritor en castellano”) ez naizela argitu nahian... Aipatu hedabide espainiarrek, ordea, “escritora en vascuence” argitaratzen dutelarik, neronek egiten dudanaren kontrakoa egiten saiatzen dira, ez ezer zehazteko, euskaraz izkiriatzearen balio eskasa nabarmentzeko baizik.

Idazlearen lanak ez diola ohiko legeriari men egin behar, legea behartzea dela bere zeregina, utzi zigun idatzita Paul Claudelek eta, euskal idazleok, gure esparruan, horixe egiten dugula uste dut. *Escritores* ez garela adierazten dugunean ohiko legeri muzin egiten diogu guk, gurean eta kanpoan, euskaraz idazten dugula azaldu nahian. Ez diogu, bide batez, Euskadiko idazleak garenik ere, esaterako, edonongoak izan arren euskara darabilgula baizik... horixe baita gure definizioa eta legea, harrotasunez... euskal kalendatan behinik behin, erabilitako hizkuntza norberaren kulturaren agerbide baita.

Eta Laura, euskal idazlea denez, fier gaude...

Irakurtzea irakurtzeagatik eta hitz egitea hitz egiteagatik

2012-08-17

Liburutegi ibiltaria asmoa eta aldarria izan zituen gogoan Christofer Morley-k (1890-1957) bere *Parnassus on Wheels* izeneko eleberria 1917an plazaratu zuenean, liburuak nekez irakur zitezkeen garaian, noranahi iristeko prestatuta zegoen liburu-denda egitasmo literarioa sortu zuela alegia. Ezin zuen aurreikusi, noski, garaikide diren *amazon* liburu-saltzaile digitala, *smartphone*, *tablet* eta abarrak eduki arren irakurzaletasunaren auziak horren iraunkor izaten jarraituko zuenik.

Bere testuan, orduko krisi ekonomikoaren sasoian, idazle baten arreba liburuz lepo zegoen orgaz baliatzen zen etxetik irteteko eta, liburuen salmenta zela medio, bidaiarekin batera beste bizitza mota batzuk bertatik bertara ezagutzeaz gain, maitasuna eta bizi-poza ere eskuratuz joan zen.

Metafora da nobela, jakina. Horrela ulertuta, irakurketa norabaiteko bidaia izaten da eta, oroz gain, berrespen-ekintza, zeinen arabera gizakia eta gizartea hobesteko tresna bihurtzen zaigun... Beraz, aipatu eleberri umoretsuan, liburuen bidez protagonista guztiek eraldatzen dute izaera eta al-

dartea (idazleak bere misoginia gainditzen du, haren arrebak etxeko giro itogarria garaitzen du eta aurkitzen duen maitaleak, liburuak saltzeaz aparte, literatura idaztera pasatzea deliberatzen du...).

Bestalde, Bernhard Schlink (Bielefeld, 1944) zinemara eramandako “Irakurlea” (*Der Vorleser*) narrazioa idatzi zuelarik (1995) emakume analfabetoa pertsonaia aurkezten digu irakurketarako gaitasun ezak nozitzen duen tragedia azaldu nahian. Hau da, gure gizartean irakurketa, hala literaturan nola mundu ikuskeran, eragiketa kognitiboa denaren gainetik ezinbesteko ohitura kultural bihurtu denez, gizabanakoen nortasuna hobetzeko lanabes ere bilakatu ohi dela ematen du.

Horixe bera ikertu nahi izan zuen bere garaian Marcel Proustek “Sur la lecture” idatzi zuenean (1906, neronek eginiko euskal bertsioa EGAN aldizkarian argitaratua, 2011-3/4) eta horixe saiatu zen aztertzen “A la recherche du temps perdu” idazketaren bidez (1922). Hau da, edozein irakurketak edo hitz-jariok ez duela berdin balio.

“Denbora galduaren bila” izeneko azken honetan, pertsonaiak, beti opor-garaietan, irakurritakoaz mintzatzeko elkartzen dira eta, edozein aitzakiak balio du hizketarako, hitzen gose dauden hitz-jale bihurturik... bai irakurketak, baita hizketaldiak ere, hutsalak izaten dira haien artean beti, zeren, helburua ez da, berez, ezer argitzea edota deliberatzea, denbora pasatzea baizik.

Bakantzak direlarik hori bera sumatu ohi dut inguruan: hitz txatxuak..., berdin idatzita edo entzunak..., inguruan benetako gosea eta deliberoak egon arren.

Etsaiaren aurkako ankerkeria

2012-08-20

Bere sorreratik “etsaiaren kontrako” tesiari atxiki zion Espainiako Barne arazoetako ministroak Hego Euskal Herrian ziharduen poliziarentzat prestatutako ZEN Planaren (ZEN= *Zona Especial Norte* edo Ipar aldeko Eremu Berezia) “Ekintza Psikologikoa” kapituluaren idazketa inspiratu zuena. Plan horrek, Euskal Autonomia Erkidegoa zein Nafarroako Foru Erkidegoa izenekoak ez ezik, Ipar Euskal Herriko ingurumaria ere hartzen zuen aintzat eta presoen aurkako kanpainari ekin zion.

Nahiz eta 1983ko udarako sorturik egon, aipatu Plana, soilik 1984ko Lege Antiterroristarekin gauzatu zen (terrorista= *etsaia*). Bere aplikazioaldia, bestalde, bost urterako aurreikusita zegoen, baina indarrean jarraitu du orain arte eta bere eragin-eremuak indartuz joan dira, berezko salbuespen-izaera gainditu eta –hurrengo urteetan zehar EAE/CAVeko Gobernuak eskatutako ekarpenak zirela medio– legeria arruntean sartzeari esker. Orain, ETAk jarduera armatuari amaiera eman arren, planak indarrean dirau.

Plangintzak hedabideekiko ekimen etengabeen garaiari hasiera eman zion eta bere lehen

emaitzak 1987an hasi ziren igartzen. Halere, eraginkorrago bilakatzeko oldarraldi handia 1988an egin zen, hau da, Estatuak defendatzeko giza energia guztiak batzeari begira informazio-etorrien kontrola ezinbestean zekarren¹ Ajuria-eneko Ituna (“Itun antiterrorista” izenez ere izendatua) izenpetu zutenean. Orduan, ETA euskal erakunde independentistak eta espainiar Gobernuak elkarriketetan ziharduten Arjelen, eta horrek kontrolik gabeko informazio ugari hedatu zuen. Hortik aurrera, Estatuak hedabideekin elkarlana sustatzen jardun zuen. Informazioa kontrolatzeko saiakera eta ikerketa etengabeak, gaur egun ere indarrean ditugu eta, orain, inoiz baino gehiago, informazio-eta iritzi-kontrol horiek gauzatzen ari dira. Josu Uribetxebarriaren trataera mediatikoan adierazi dugun kontrola nabarmena izan da.

Guztiarekin ere, euskal gizartearen komunikazio-mailan gertatu den hausturak, ez die, dagoeneko, sinesgarritasunik ematen prentsako berriei... Susmagarritasun eta mesfidantza horiek sistematikoki erabiltzen ari dira Estatuaren defentsarako nahiz eta Estatuak “ingurune terroristari” ezinbestean atxikitzen dion “etsaia” deabruzeko asmoa, hil ala biziko gurutzadan arituko bailitzan, nahiz eta legea eta eskubideak betetzea besterik ez eskatu.

Gauza berria ez bada ere, gizartean, eta ez arrazoi analitikoetan, eragindako inpresio eta pertzepzioetan oinarritutako egoera hori, Estatuaren aurka agertzen den euskal gizarteari zilegitasuna kentzeko zinezko saiakera da.

Antzeko egoera bati buruz mintzo zela, hone-lazioen Toni Negri irakasleak:

«Gertakari historikoen errukigabetasunak zein Estatuaren krudeltasunak bultzatuta aurkaritzatik terrorismorako jauzi bihotz-gogorraren murriztapena pairatu dugun guztioi dagokigu mehatxu horren soka ezin gogorragoa apurtzea»². Hori bai, «mehatxu horren soka ezin gogorragoa apurtzeak» ohi-ko hizkeraren erabilpenarekiko jarrera kritikora garamatza. Ez dezagun, bada, “espainiar justizia” bezalako esamolderik inoiz erabili, etsaiaren aurkako ankerkeria espainiarra baizik³.

1. FAUGOT, R. (1989) *Guerre speciale en Europa*. Textes-Flammarion, París.
2. NEGRI, T. (1991) «Terrorismo y derecho». In *Terminología científico-social. Anexo*, p. 496. Anthropos. Barcelona.
3. OVEJERO, J. (2012) *La ética de la crueldad*. Anagrama. Barcelona.

Unforgiven ZINEMIRAn

2012-09-03

Amerikar Estatu Batuetako errepublikarren azken bileran Clint Eastwood ikusteak *Unforgiven* filma dakarkigu gogora..., eta Joseph McCarthy senatariak Hollywooden burututako sorgin-ehiza..., baita inperialismoak gauzatu ohi duen bizi-tzaren nahiz ametsen kontrol-gosea ere.

Zinemirak, emandako azalpenez gain, *Barrura begiratzeko leihoak* filma ez onartzeak ere, zorritzarrez, berriro zentsuraren garaira eta mende-kuaren sasoietara garamatzala uste dugu.

Zergatik euskal errealitatearen irudikapene-tan ez ohi dira euskal presoak agertzen?, Zergatik haien argazkiak jazartuak izaten dira eta, demagun, Goenkaleren hamaika atalen artean euskal preso-en hutsunea da horren nabarmen?, Zergatik *Barrura begiratzeko leihoak* ez da egongo Donostiako Zinemaldian?

Zeren ez baita hautatua suertatu, jakina..., eta, zergatik, hain zuzen ere?. Zeren eta Donostiako Zinemaldiaren zuzendariak horri buruz adierazitako desenkusak ez dira sinesgarriak izaten. Ondo asko ezagutzen baitugu dokumentalaren zinegileen ka-litatea (Zinemaldiaren aurreko beste ekitaldietan

parte hartu dutenak izaki...) baita zinean egun eta hemen preso politikoak egon, badaudela, azaltzearen beharra ere. Izan ere, hedabideetan gai hori, estereotipoetatik at, era askean bezain anitzean landu beharraren alde gaude, gure errealitatearen ezaugarria baita, ezkutatu nahi izan bada ere.

Film neorrealistak egin zituztenek, Antonionik, De Sicak, Fellinik, Viscontik eta bestek, errealitatea, den moduan pantailaratu behar zela aldarrikatu zuten. Eta nolakoa da errealitatea? Hortxe dago koska. Neorrealistek, egia gordina agerrarazi nahi izan zutelarik, egiaren alde bat, berrin egia, besterik ezin zuten adierazi.

Antonioni, esate baterako, ezagun bilakatzen hasi zen zineman Lucia Bosek antzetzuriko *Amodio baten kronika* filmarekin, non senarraren ustekabeko heriotzak emaztea eta bere amorantea bereiziko dituen betiko. Errealitate bat zehatz-mehatz kontatu nahi badu ere, ezustearen poderioz sortzen den ezulertuak egoera hori bakoitzak nola ulertzen duen jakitea eskatzen du, hau da, filmean gertatzen denaz jabetzeko, jakin beharra dago gertatzen denari norberak zer zentzu ematen dion. Zentzu hori antzeman gabe, ordea, ezinezkoa da senarraren heriotzan inolako errurik ez duen bikotea puskatuz nola doan ohartzea.

Izan ere, neorrealismoak ez du gezurrik adieraziko; errealitatea irakurtzeko zentzua eman nahi izango digu.

Antonionik, adibidez, beste neorrealistazale batzuekin batera, *Maitasuna hirian* filmean parte hartu zuen. *Barrura begiratzeko leihoak* filmean bezala, bost istorio filmatu zituzten, zeinetan, meta-

foraz kanpo, kameraren irudi objektiboak helarazi nahi izan zituzten, baina istorio bakoitza desberdina bezain subjektiboa izan zen! Areago, Antonio-nik berak, hamar urte geroago *Blow up* izenekoa zuzendu zuen Ingalaterran, non argazkilari batek, bere argazkiak positibatzean, berak aurretik ez ikusi arren, kamerak jaso zuen hilketaz ohartzeko aukera ere izan zuen. Neorrealismoaren bandera omen zen objektibotasunaren ordeztasuna errealitatearen hautematean eduki beharreko zalantza kartesiarrak dira Antonio-niren film horretan nabarmentzen direnak.

Zergatik, orduan, errealitatearen berri emateko “egiarekiko fideltasuna” aldarrikatu?

Badakigunez, zinemaren sorreratik bertatik egon ziren Lumière eta Melies.

Bakoitza, berean, bide baten adierazle izan ziren. Lehena errealitatearekiko lotura litzateke. Dokumentalak. Bestea, berriz, fikzioa erabiltzearen alde zegoen. Neorrealismoaren bideak fikzioa erabili nahi izan zuen errealitatea argitzeko. Gaur egun Kean Loachek, esaterako, nahi omen duena, alegia.

Gabilondok, Olasagastik, Martinezek, Goi-koetxeak eta Larreategik, berriz, Lumièren bidetik burutu dute beren ahalegina.

Edozein modutara, zinema ez da ispilurik, ez eta leihorik, soilik. Izatekotan, adierazpen bidea baita, bere mintzaira berezitu eta guzti, baina, zer adieraz daiteke aukerarik eman ezean? Horri buruz euskaldunok zerbait badakigu, jakin...

Errealitatea anitza da, noski, baina, McCarthyren modukoek errealitatearen alde batzuk agerriaraztea besterik ez dute uzten. Horrela egin ohi

du espainiar inperialismoak eta horrela egin berri du, tamalez, Zinemaldiak orain.

Amalur filmak, frankismopeko zentsura gainditu eta Donostiako film festibalean aurkezterik izan zuen Fragak kontrakoa nahi izan arren. *Barrura begiratzeko leihoak*, aldiz, ezin izango dugu Zinemaldi honetan ikusi. Berri Txarrak, beraz, denontzat. Hala eta guztiz ere, Gabilondorentzat, Olasagastirentzat, Martinezentzat, Goikoetxearentzat baita Larreategirentzat...

Good night and good luck!

Independentzia Europan

2012-09-21

Independentzia Europan. Jaume Lopez-ek, Pompeu Fabra-ko irakasleak deitzen duen bezala, ‘independentziaren laugarren olatua’ da Europan. Jaume Lopez-ek Pompeu Fabra unibertsitatean egin du ikerketa lan bat, eta Europar Parlamen-tuan aurkeztu du¹. Lan horretan, Europan orain arte izandako hiru olatu independentistak aztertu dira. Bata Lehenengo Mundu Gerratearen ostean izandakoa da, hau da, Inperio handiak desegin zirenean, Turkiar Inperioa eta Birtainiar Inperioa hain zuzen ere. Orduan sortu ziren Europan herrialde berriak.

Bigarren olatua kolonialismoaren desagerpe-narekin izan zen, eta batik bat, hor ikusi ditugu, Europa ekialdean eta, Austrohungariar Inperioaren ondorioz etab. sortu izan direnak.

Hirugarrena, ekialdeko sistema, sistema sozia-lista deitutakoa, erortzean izan zen, 1980.eko ha-markadan. Eta 1980.eko hamarkadan ikusi dugu Europan 19 estatu berri sortu direla XX. mendea-ren bukaeran.

Eta laugarren olatua etorri oraintxe dator, zeinetan Estatu kontsolidatuetan gutxiengo izandako batzuk independentzia planteatzeko behar adinako

kohesio politikoa lortu duten. Eta hor dago Esko-
zia, noski, eta Ipar Irlanda ere badago (uharte osoa
administrazio-barruti bakarrean biltzeko), eta hor-
rretarako egingo dituzte erreferendumak, Euskal
Herrian eta Katalunian egin daitezkeen moduko
herri-kontsultak.

Eta horiek guztiak, Pompeu Fabra-koek az-
tertzen dutenez, baita ere, Europatik kanpo, adibi-
dez, Ameriketan, Quebec-en suertatuko dira orain
arte dagoeneko suertatu izan diren moduan, eta
beno, baita ere Groenlandia, Flandria..., horrelako
aukerak zabaltzen joango dira².

Bistan da, Espainiak, bere Konstituzioan ez
duela inondik inora onartzen bide politikorik Eus-
kal Herriak edota Kataluniak behar dituzten gara-
penak gauza ditzaten³, baina, aldiz, oso kurio-
soa da Espainiak berak onartu behar dituela Europatik
datozenak, nahiz eta bere subiraniaren kontrakoak
izan. Adibidez, Greziarekin gertatu den gauza be-
ra. Europatik etorri da agindua defizit-neurriak
hartzeko eta, beraz, estatu guztiek onartu behar
izan dute beren konstituzioetan zorra handiegia
ez izatearena..., eta Europako estatu guztiek jarri
dute hori beren konstituzioetan. Erresuma Batuak
ez, besteak beste, Erresuma Batuan Konstituzio-
rik ere ez baitago eta eurotik ere at baitago. Baina,
funtsean, sistema horrekin edo planteatutako ho-
rrekin ere konforme egon ezin delako.

Halere, Espainiak esaten zuena, bere Kons-
tituzioa ezin dela aldatu edo ez duela aldatuko,
Trantsizioan erdietsitako ustezko kontsentsua apur-
tuko lukeelako, ezeztatu egin du praktikan eta al-
datu berri du Europak agindu diolako.

Beraz, nazioartetik datorren aginduena gauza berri bat da, elementu berri bat, herri-askapenen bidean ere kontutan eduki beharrekoa.

Eta Pompeu Fabra-n egindako ikerketa horretan, berez, bi aukera bereizten dituzte independentziarako: bata da, eskaerak aintzakotzat hartuak izaten direnekoa, normalean hori gerta daiteke Belgikan, gerta daiteke Danimarkan, gerta daiteke Kanada-n Quebec-ekin..., hori aintzakotzat hartzen denean, hau da, gutxieneko malgutasun batekin konstituzioak eta egitura politikoak berrantolatzea lortzen denean, independentziak ez ohi dira gauzatzen.

Baina, aitzitik, edozein birmoldaketa politikoren aurrean, estatuak erabat ixten direnean, azkenean, hori da faktore-gakoa independentzia gauzatzeko.

Eta hori da hain zuzen ere, Espainiak egiten duena Kataluniarekin eta Euskal Herriarekin.

1. http://www.idees.net/Article/_yMB_HYzag4OcN-rdXDBiLCk7Aa234Q7eQLeQfWO_8Do
2. LOPEZ, J, (2010) "New states in Europe?". In *Catalan International View*, 7.
3. "La senda federal", Editorial de el País 2012-09-20.

Politikari kiratsa dario

2012-09-27

Artaudek arrazoia zuen: politikari kiratsa dario. Eta literatura politikoari...?

Baldin eta artea artistek egiten dutena bada, politikoez idazten dutena al da literatura politikotzat har daitekeen bakarra?

Ez dira gutxi gurean, ezta gainerako hizkuntzetan ere, idazle izan diren politikariak. Arnaut Oihenart, Garat anaiak, Sabino Arana, Arturo Campion, Lauaxeta, Monzon, Leizaola, Krutwig, Txillardegi, Joseba Arregi, Amatiño eta abarrek idatzitakoek osatzen al dute gure artean literatura politikoa biltzen duen izkribuen multzorik oinarritzkoena? Edota, aitzitik, Krutwigen eta Dominique Garaten politikari buruzko usteak aldearainak al dira? Areago, literatura politikoarengana iristeko antzerako bideak erabili zituztela esaterik ba al dago?

Artaudek arrazoia zuen, izateak berak berarekin batera darama kaka usaina.

Politika-izaerari itsatsita baitago, ezinbestean, eta, beraz, bizi-izaerari buruz aritzeak, bizitzaz go-goeta egiteak, politikaren eremura garamatza derrigorrez.

Bizi beharra, iraun-nahia, badugu, izan, sor-kuntzaren abiapuntua, baita literaturan ere.

Ezerezaren eta amaigabearen arteko nahitae-zinezko bikoiztasunak bultzatzen duen izkribua dugu literatura politikoaren hastapen nagusia. Peter Sloterdijkek horrela adierazi zigun bere “Reglen für den Menschenpark” (Giza eremurako araudiak) liburuan. Politikoa betiko definitzea ezinezkoa izan arren, horretaz idaztea, ordea, baliagarri izango zaigu. Heideggerrek uste zuenaren aurka, bizitzari norabidea eman ahal izateko behin betiko erabakia ez baita aski izango.

Postmoderniaz geroztik izaera iraunkor bezain bakarren usteari nekez eutsi zaionez, bizitza desberdinak asmatzen jakin beharra dago. Bizi-egitasmoak sortzea baita, nolabait adierazia, Benjaminen, Adornok edota Sartrek, “dialektika urtu ondoren” utzi ziguten mezua: bizitza atsituaoren goragaleari sendabidea eman behar zaiola.

Eta zein da osagarri hori? Izuak nahiz ezintasunak uxatuko dituen jarduna: literatura politikoa. Munduan dauden gezur oro salatzeke balekoa izateaz gain, ezinegona ikuskizun bihurtuko duen idazkerari aurre egiteko berreskuratu beharra dagoen bizitzari buruzko izkribua.

Literaturako Nobel Sariaren ekitaldirako Harold Pinterek aurkezturiko testuan “errealitatearen eta fikzioaren artean ez dagoela diferentzia handirik” zioen, baina, herritar bezala, “egia non dagoen eta gezurra zer den” bereizten jakin beharra dagoela zioskun.

Horra hor, bada, literatura politikoaren esparrua, idazlea koroa daraman anarkista izanda ere...

Hona hemen, beraz, literaturaren erresuman, horri buruz aritu ahal izateko bildu ditugun iritzi nahiz egileak.

Trantsizioa berrirakurtzen

2012-10-07

Oso modan jartzen ari da zenbait politiko nahiz politologoaren artean balizko bigarren Trantsizioari buruz aritzea. baina, Trantsizio delakoa noiz suertatu zen? Aro hori zenbat epetan banatu behar da? Zein urtetatik zein urtetara arteko epea eman?

Ordua heldu da, ustezko Trantsizio hori berrirakurtzeko, birplanteatzeko eta garai hartan bizitakoaren arabera, agian, behar bezalako kritika edo autokritika politikoa ere egin ahal izateko aukera zabaltzeko.

Bestalde, sasoa ere bada, ene ustez, Trantsizioari birbegiratzeko, orduan kontatu izan zizkiguten istorioek egun guretzat balio ote duten ikus-teko, eta orobat, Euskal Herriak bere antolaketa politikorako Trantsizioa lortu ahal izateko baliagarriak ote diren hausnartzeko.

Edo alderantziz, hau da, Trantsizioa frankismoak sortutako istorio bat soilik, ipuin hutsala, ez ote den izan balioesteko, eta Trantsizioa bera ere ez ote genukeen beste modu batez ulertu beharko eta, horren ondorioz, orain gertatzen ari den guztia horren arabera birpentsatu.

Beraz, Trantsiziorik izan al da?¹ Eta izatekotan, zenbatekoa? Ba al dago lehenengo Trantsizioaren

eta bigarren Trantsizioaren artean bereizterik, eta orduan, haietariko bakoitza noiz hasi eta noiz bukatu zen?

Agian, Trantsizioa bera izan baita ipuin bat, kontatu ziguten antzezpen interesatua eta ez besterik².

Batzuek, adibidez, Trantsizioaren abiapuntua 1973an jartzen dute. Urte horretan Carrero Blanco hil zuen ETAk eta, horrekin frankismoaren zuzeneko jarraipena bertan behera geratu zen.

Beraz, 1973an hasi zen, batzuentzat, eta 1976an bukatu. Eta zergatik 1976an?

Bada, garai hartan egin zelako *'El referéndum para la reforma política'* deritzona eta Espainian onartu zelako (gogora dezagun, bide batez, Euskal Herrian ere onartu zela). Batek daki erreferendum horrek zer-nolako sinesgarritasuna edukiko zukeen gaur egungo europar baldintza demokratikoen arabera, baina, halere, Hego Euskal Herrian ere onartu arren, esan beharra dago, Espainian suertatutako kopuruak ez zirela inondik inora ere konparagarriak izan hemen gertatutakoarekin³.

Dena den, 1973tik 1976ra bitartean jarri ohi da, laburrean, batzuentzat Trantsizioa delakoaren epemuga.

Beste batzuek, aldiz, ezetz diote, Trantsizioa Franco bera hil zenean planteatu zela, eta Franco 1975ean hil zenez, orduantxe hasitakotzat jotzen dute. Bitartean, talde politiko ezberdinen artean halako akordio batzuk izan zirela gogoratu behar da. Bide batez, esan dezagun euskal alderdi guztiguztiak kanpoan geratu zirela akordio horietatik, baita jeltzaleak ere, eta hori, azkenean, 1978an

burutu zela, orain indarrean dagoen Konstituzioaren onarpenarekin⁴.

Orduan, esan liteke bi epe desberdin daudela, 1973tik 1976rako bata eta 1975etik 1978ra bitartekoa bestea⁵: bi aburu, beraz.

Trantsizioaren epeak direla-eta, beste batzuek diote mugarriak direla 1974tik 1982ra bitartean. Hori da, eskuarki, historialari sozialistek esan ohi dutena, 1974an izan baitzen Suresnes-en (Frantzia) PSOE aldatu zuen kongresua. Orduan, sozialisten artean Errepublikaren egituretatik etorritako buruzagi zaharren partez Felipe González-ek alderdiaren boterea hartu zuen eta baztertuta geratu ziren gerra eta erresistentzia antifrankista galtzetik zetozen sozialista zaharrak (Llopis, kasu).

Beraz, hirugarren irizpidea, Trantsizioa 1974 hartatik 1982ra bitartekoa dateke. Zergatik 1982. urtera artekoa? Urte horretan, hain zuzen ere, sozialistek Madrileko gobernua eskuratu zutelako. Haiek eta haien historialariek pentsatzen dute berek kongresua egin zutenetik, 1974tik, Espainiako gobernua eskuratu arte, 1982ra bitartean, Trantsizioa ez zela guztiz burutu, zeren ordura arte espainiar estatua alderdi frankisten esku egon baitzen (UCD, CDS eta AP).

Ikuspegi sozialista horretatik begiratuta, bederen, 1982an bukatu zen Trantsizioa.

Bada, oraingo honetan burutzeke dugun bidea zer izango litzateke, Urkulluk dioen moduan, “gure Trantsizioa”, edo Zubiagak dionaren arabera bigarren Trantsizioa, edota hirugarren Trantsizioa?

Nirezat Euskal Herrian espainiar Trantsizio hura ez da oraindano gauzatu. Euskal Herrian,

funtsean, frankismoak iraun du bere gordintasunean orain arte. Eta daukagun bide politikoan, gure eboluzioari jarraipenik ematekotan, urrats batzuk eman behar ditugu oraindik Europan ‘independentziaren laugarren olatua’ izango litzatekeen honetan.

Trantsizioa espainiar politikaren mitoa besterik ez da izan eta gureaz pentsatzeko, berriz, nazioarteko beste erreferentzia batzuk hartu behar ditugu kontuan. Aurrerantzean, baina, aukera izango dugu berriro ere horretaz aritzeko...

1. <http://www.elmundo.es/elmundo/2012/08/30/paisvasco>. Urkullu: ‘En Euskadi tenemos que hacer nuestra Transición’
2. TAIBO C. (2012) *La Transición, milagro y quiebra*. La catarata. Madrid.
3. NUÑEZ, L (1995) *La razón vasca*. Txalaparta. Tafalla.
4. PABLO, S (2005) “Silencio roto. El franquismo y la transición en la historiografía vasco-navarra”. *Vascoña*.34. 383/406.
5. Ikus Antton Ezeizak “Konstituzioaren erreferendumaz” burutu zuen *Ikuska* dokumentala.

Demokraziaren izenean

2012-10-16

Urriaren 21ean hautatu beharra dago EAEn. Baita Galizian ere. Eta Katalunian 25ean. Eta ondoren AEBetan. Eta Eskozian ere aukeratu ahal izango dute 2014an Erresuma Batuen alde ala Karduren Erresumaren alde. Kardua, zakar edo muker dena ulertu ohi da, edo oso itsusia izaten dena..., baina ez Eskozian, ordea. Han astalikardoa bertako ikurra baita eta, jakina, maite dute. Espainieraz ere “cardo mariano” bat badago, guk astakardu deitzen duguna... eta ez genuke ezertarako erabiliko. Edozein modutara, eskoziarrek independentzia demokratikoki arazorik gabe hautatzerik badutela bistan da, katalanei edota euskaldunoi arrazoirik gabe hura bera ukatzen diguten bitartean.

AEBen itzala

Munduko estatuen estatu nagusiak estatuburu nagusia berritu behar du. Bere garaian buruzagitza hartu orduko oinarrizko hiru neurri hartuko zituela esan zuen demokraten hautagai denak: tortura debekatzea, presoan salbuespen-egoerak ezabatzea eta “etsaiei ” gainerako hiritar arruntei dagozkien

berme juridikoak ematea (Guantanamoeko espetxea ixtea, alegia). Ez du egin, noski.

Halere, “etsaitzat” joa izan denarentzat behar adinako justizia-bermerik ez dagoela onartu zuen, bai eta AEBetan torturatzen zela onartu bide zuen argi eta garbi.

Orain, aurreko aginduak bete gabe, berriro doa presidentziaren bila.

Zapateroren ahalegina

EAEko lehendakari zen Ibarretxe kartzelatze-ko espainiarren buruzagi izan zen Aznarrek (orain Espainian agintzen duen astakarduaren aurreko astakiloa) propio eginiko legea bertan behera utzi zuen J. L. Zapaterok. Baina bere demokrazian, “etsaiak” ez zuen legearen babesik inoiz ere erdietsi, giltzapetuek salbuespen-egoera politikoaaren bahitu izaten segitu zuten eta, jakina, torturak iraun egin zuen. Euskal Herriko gatazka bideratzen ahalegin- du bazen ere, ez du ematen ezer lortu zuenik. Ha- ren politika, Obamaren antzera, eginkizuna bai- noago ezinkizuna izan zen.

Ibarretxe ez zuten kartzelatu.

Azkenean galdeketa bera ere ez zuen burutu. Baina Arnaldo bai, kartzelan inkomunikaturik da- go euskal demokraziaren aldarria zabaltzeagatik (euskal kalendak hor ere!)

Baina egun ezin da legalki, politikoki, Euskal Herria denik aldarrikatu demokraziaren oinarriak kolokan daude-eta. Badakigu, jakin ere, erabaki- tzeke eskubidea non geratu den.

Eta ez egin ez den galdera demokratikoagatik soilik, edo Espainiako legebiltzarrean 2006ko Ibarretxe Planari halako xera egin zitzaiolako...

Estrasburgoko ebazpenen gaineratik (zorionak Martxelo!!) eta Nazioarteko aholkuen azpitik (Aieteko Adierazpena bultzatu zutenen bigarren bileraren zain), non dago hemen, bada, demokrazia?

Bistan da: Atxilotua, torturatua eta giltzape-tua.

Lan falta

2012-10-25

Lan-falta omen dagoen sasoi honetan, nik gaur ez dut jairik hartu, “Euskadi egunean” diot... Nik bezala, gure Unibertsitatean, ikasleek eta administrazio edota zerbitzuetako langile batzuek ere lan egin dute. Ez da gure festa, Pilareko amabirjinarena ez den moduan...

Estatu bakoitzak bere jaien politika kudeatzen du eta, espainiar estatuan euskaldunok espainiarrak ez garela frogatu behar dugu hauteskundeez harago.

Baina hauteskundeetan ere bai.

Bere “Independentziarako paperetan” Pako Aristik hauteskundeetan parte hartu beharrean abstentzioa dela bidea dio. Jarrera horixe azaldu izan ohi du “Euskadin” berriki izan ditugun hauteskundeen harira. Aipatu liburuan, esaterako, honako argumentuak erabili ditu, hitzez hitz:

“(...) 1978an hamabost urte neuzkan eta beste gauza batzuk izango nituen gogoan, baina, hainbat iturri ezberdinetatik jaso dudanez, orduan izan genuen independentzia lortzeko aukera borobil bat.

Joseba Ariznabarretak, funtsezko ildoak laburtuz, hau kontatu zuen hitzaldi batean:

Guk, 1978an, indar izugarri bat izan genuen. Gidaritza politiko inteligente bat izan bagenu, gaur independenteak ginatkeen. Francok problema bat izan zuen: ekonomia aldaketak zekarzkien Europar Batasunak, merkatu bateratua beharrezkoa zen, eta Espainia krisi ekonomiko izugarri baten erdian zegoen, irten ezinik. Espainiak merkatu zabalago bat behar zuen, atzerriko inbertsioa behar zuen. Eta hori Merkatu Komunean soilik zen posible.

Horren parte izateko label demokratiko bat eskatzen zioten, nahiz eta formulazio hutsa izan. Guk gure esku izan genuen, garai hartan, Espainiak ez lortu ahal izatea label hori.

Horretarako nahikoa izango zen hauteskundeetan hondartzara joatea. Hemen posible izango zen abstentzio izugarri bat lortzea, %90eko abstentzioa, gutxienez.

15

Batzuek diote: Bai, baina orduan 'brunetea' bidaliko ziguten. Ez zituzten bidali behar; hemen zeuden, eta hemen jarraitzen dute. Sufritu egingo genuen. Ziurrenik militarrek boterea hartuko zuten berriro. Baina zenbat denbora iraungo zuten? Ekonomiak behartuko zuen egoera berriro aldatzera, eta guk posizio berbera mantendu ahal izango genuen. Begira, Errusiak, Espainiak baino armada askoz ere handiagoa zuen, baina Lituaniak eta beste herri askok askatasuna lortu zuten. Kostu sozial gutxiarekin lortuko genuen independentzia orduan. Gaur egun askoz ere koste sozial handiagoa ordaindu beharko dugu. Espainiako sistema honek zilegitasun handia lortu du, eta neurri handi batean geuk eman diogu zilegitasun hori.

Eta irudi ezin tristeagoa deskribatu zuen: euskaldunak, hiri handi nahiz herri txiki guztietan, igandetako jantzirik dotoreenak soinean, botoa ematen guardia zibilek zaindutako hauteslekuetan. Geure borondatez zilegitasuna ematen okupatzailearen eskaintza politikoari; menpekotasuna geure borondatez sinatzen”.

Orduko datuak, ordea, honakoak izan ziren:
Konstituzioko erreferenduma (1978ko abendu
dua

Euskal Herriko Abstentzioa: 51,2% eta Baie-
tza: 34,8%

Ez du ematen, beraz, hauteskunde jarrera horrekin Euskal Herriak Konstituzioari inolako zilegitasuna eman zionik.

Bistan da politika ez dela botoetan soilik neur-tzen. Gaur bezalako egun batean lan asko zegoen egiteko eta, agian, ez da behar beste egin baina Pakorena, zinez, ez da oso kritika landua izan, nire aburuz behintzat.

Hizkuntz Autoderminazioaren aldarria

2012-11-06

Aurten Donostian bildutako Galeuscan eta “*Ahozkotasuna: esateko idazten dena*” hautatu dugu gaitzat. Hasierako Galeuscan Poblet Monastegiko Agiria adostu genuen, 1984an Txillardegi/Ignasi Riera/Xose Luis Mendez Ferrin idazleen itzalean.

Hori guztia dela-eta onartu dugu aurtengo topaketetan jarraian datorren agiria, bere garrantziagatik orain hemen osorik eskaini nahi dudana:

“Donostian, 2012ko urriaren 26, 27 eta 28an, urteroko Galeusca Federazioaren topagunean, *Ahozkotasuna: esateko idazten dena* gaitzat hartuta bildurik, idazle katalan, galego eta euskaldunok, ondorengoa adierazten dugu:

“Lehenik. Literaturak askoz ere presentzia indartsuagoa izan behar duela hezkuntza-sistemen maila guztietan, betiere kontuan hartuta, hezkuntza-marko arautuak eta zentralizazio atzerakoia helburu duten garaiotako azken berrikuntzek bereziki, ukatu egiten dutela Estatu literatur gutxituen izatea.

Bigarren. Eskuera bera hedatu behar da ahozkotasunaren kasura ere, izan ere, usadioz izan duen

neurritza bakarrik mugatua izatetik at, gaur egun ere errealitate bizi moduan baitirau, esperientziarik aurrerakoienetatik abiatuta teknologia berriei egokitzeko gaitasuna agertuz.

Hirugarren. Salatu egiten dugu Estatuko hedabideek, gobernu-egituren ekimeneko politiken isla direnek, gure nazioetan egiten diren literatura eta kultur ekimen guztiak ukatu eta ezkutatu egiten dituztela.

Laugarren. Erakunde publikoei gure herri-memorien berreskurapenean ahalegin berezia egin dezatela eskatzen diegu, batez ere ekimen herrikoiei lotuak direnentzat eta espazio publikora sarbide urriak dituztenentzat. Era berean, gizarte osoari dei egiten diogu eginkizun horretan buru-belarri sar dadin.

Bosgarren. Kultur industriek eta hedabideek sortutako eduki hutsal eta iheskorren aurrean, kultur esperientzia sustraidun, konprometitu eta kritikoak sartu eta bultzatzearen alde egiten dugu.

Seigarren. Azkenik, gure literaturak elikatzen dituzten gizarteetako partaide garenez, eta gure hurrenez hurreneko nazioak burujabetza-mailarik handienak lortzeko helburuarekin bizitzen ari diren historiako prozesuekiko alboratuta ez gaudenez, gure errealitate naizonalen eta horren ondorioz gure kulturen eta literatur sistemen normalkuntza osoa lortzeko lanean jarraituko dugu.”

Irakur daitekeen moduan espainiar birzentralismoaren aurrean Donostiako Galeuscaren aurtengo ebazpena benetako Hizkuntz Autodeterminazioaren aldarria ere bada eta ondorio zehatz

batzuk ekarriko ditu, besteak beste, Espainiako Kultur Ministerioan liburugintzaren arduradun den Lassalle jaunarekiko elkarrizketa burutzea. Izan ere, aurreko legealdiko espainiar legebiltzarreko Kultur Batzordean aho batez onartu zen aipatu Ministerioak idazle guztiei luzatuko zizkiela laguntzak nahiz eta, praktikan, ACEn (Asociación Colegiada de Escritores de España) bazkideak direnak bakarrik, hau da, gazteleraz idazten dutenak, laguntza haiek eskuratu, gainerako hizkuntzotako idazleok baztertuz.

Edozein modutara, Espainiako Konstituzioak, 1978an, argi eta garbi utzi zuen bere hirugarren artikuluan honako hauxe, “las lenguas españolas son: el castellano, la lengua oficial que todos tienen el deber de conocer y el derecho de usar en sus respectivas jurisdicciones, el euskera, el catalán y el gallego”. Hau da, oso kuriooso da ez dela esaten “la lengua oficial de España es el español”, espainola ez baita existitu ere egiten legalki, las lenguas españolas omen dira existitzen direnak..., baina, goian esan bezala, praktikan espainiera izaten da soilik lagundua, jakina...

Durango berriro dator

2012-11-16

Edo Durangora berriro joango gara, Azokara, jakina. Duela 45 urte Ermuan bildutako “Idazleen Alkartearen” lema gogoangarria izan zuen ardatz Durangoko Azokaren hasierak: “Idazle guztiak baturik, euskara literarioaren batasunaren alde lan egin dezagun”.

Durangoko zina

Ermuan, duela berrogeita bost urte, orduko Idazleen Elkartea zenak aldarrikatutakoa: “*Idazle guztiak baturik, euskara literarioaren batasunaren alde lan egin dezagun*” berritu behar dugu, beraz, orain eta hemen eta, honezkero, idazle izatearen kontzientzia iratzarri euskal testugileen artean.

Euskal Kulturaren, urteen poderioz etorritako urtemugei (Euskal Herriko Unibertsitatea, Udako Euskal Unibertsitatea, Euskara Normaltzeko legeria, EITB eta abar...) segida eman die idazleen lanak oraingo honetan eta, ospakizunez gain, gure jardunaz bilana egiteko probestu nahi dugu. Abagune honetan ditugun erronkei erantzuteko gure eguneroko lanak berrantolatzen jakin behar dugu

eta, ondo bidean, azpiegiturak, funtzionatzeko erak eta giza baliabideak egokiturik, kultura arloan gertatzen ari den iraultzari behar beste ihardesteko gai izan behar dugu.

Horretarako, orain arte behintzat, gure euskarak euskal idazketa sustatzeko erakunde publikoen aldetik babesak lortu baditu ere, oraingo honetan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Donostiako San Telmo Museorako laguntza bertan behera utzi du euskarari buruzko erakusketa baten aitzakian (Gara 2012-11-16), baina kasu!, kultura ezin da inoren morroi izan eta, beraz, haien sostenguaz gain, gure arloko premiei erantzuteko prestatu beharra dago euskara.

Asko falta zaigu oraindik benetako euskal giroa lortzeko. Elkarren arteko ezaguera eskasa gainditzearen premia badago eta berrikuntzak behar ditugu, baina, nire ustez, euskara garaiz eta ongi iritsi da hona, hobetzeko asko eduki arren.

Badakigu, jakin ere, liburuak irakurle asko galdu dituela urte hauetan eta irakurle berriak bereganatzen, aldiz, ez dela behar bezala asmatu. Gure arloko funtsezko erronka, beraz, irakurzaletasunaz behar bezalako hausnarketa egitea eta horren arabera, estrategia berriak bideratzen laguntzea litzateke. Aipatutako ekimena ardatz, azken urteotan euskal kulturaren estrategikoki birkokatzeak aukera bideratu ahal izatea izango dugu, bada, gure helburua. Ez da guztiz erraza izango, baina, erakundeen laguntzaz, saiatzeak merezi duelakoan nago.

Juduen isiltasuna

2012-11-25

Hala Philip Rhotek nola Imre Kertészek ere idazketari utziko diotela diote. Biak ala biak juduak baina bakoitzak hebreeraz besteko hizkuntzak erabiliz saiatu izan dira Munduari hitza ematen. Ni ere nire burua ezagutzen joan izan naiz literatura-
ren bidez. Irakurlea nauzu irakurle, idazlea baino gehiago, ofizioz nahiz afizioz, edo agian, idazlea naiz irakurlea naizen hein berean. Eta irakurle gisa, jakina, ez dut fikzioa bakarrik aintzakotzat hartzen, ezta soilik euskaraz argitaratzen dena ere. Aitzitik, mota desberdinetako idazkiei kasu egin behar diedan neurri berean, hizkuntza bat baino gehiago hartu behar izaten dut kontuan nire irakurraldiak behar bezala antolatzeko eta jarrera hori bera ez zitzaion arrotz izan ez Montaigneri ez eta saiakeragintzan ibili den edonori. Rhoten lagun den Aharon Appelfeld, Rhot bera eta Kertész ez bezala, hebreera erabiltzen duen idazle juduak, adibidez, horri buruz hauxe zioen:

“Hebreera nekez ikasi nuen. Hizkuntza zaila da, zorrotza eta aszetikoa. Hona bere oinarria: isiltasuna da jakintza babesten duen harresia. Hebreerak pentsatzen irakatsi zidan, hitzak aurrezten,

adjektiboak neurtzen..., irakatsi zidan diot, hura ikasi gabe ezin izango bainukeen nire bidea aurkitu...”¹

Mota horretako literaturak hizkuntza hautatzea baitakar. Hala egin zuten Kafkak, Pessoa, Borgesek, Becketek, Gadamerrek, Cioranek edo Kunderak..., beren idazketarako hizkuntz hautua egin zutenean

Literatura, Munduari hitza ematea da, baina, zein hizkuntza dela medio? Zerk bermatuko digu, horrela, kalitatezko elkarbizitza Munduan? Izan ere, nik, behintzat, ez dut uste “bizikidetza” bezalako ikasgaietan, politika edo hiriari dagokion etika eskolan irakatsi behar direnik... Bizitzaren arlo praktikoez bezain naturalek kezkatzen naute ni..., haur jaioberriak nola artatu edota agure-atso zaharrak nola lagundu...

Baina gai horiek kezka moralak sortzen dituzte, haurdunaldiaz edo bizia eteteaz, abortuaz nahiz eutanasiaraz hitz egin beharra dago..., eta horiez guztiez ez ohi da gehiegi mintzatu izan eskolan, premia zehatzei erantzuteari muzin eginez, alde eginez, zeren ikasgelan zerbaitek huts egiten badu, eskarmentuak huts egiten du, haren falta izaten da...

Eskolan esperientzia, ariketa praktikoetatik bezainbeste, eguneroko jardunetik kanpo gelditzen da.

Aldiz, denboraren ohiko jarioetik at gabiltzanean, esperientzia mota berri bat hasten da gartzen; esperientziak, berriz, pentsamendu edo sentsazio baten inguruan soilik finkatzea eragiten du. Irakurtzen edo idazten ari garenean bezala.

Irakurtzean edo artelan bat begiratzean gerta daiteke hori, jakina, baita Elizan, Sinagogan edo Meskitan ere... Edo gai jakin bat sakondu nahi dugunean...

Adibidez, badago Imre Kertész Literatur Nobel Sariduna “Holokaustoa” gogoratzeko hari buruzko idazlanak besterik landu izan ez dituenak. Memoriarekin batera hizkuntza ere ebatsi ziotelakoan “Mintzaira erbesteratua” argitaratu zuenean, bere nazionalismoaren aurkako ohiko jarrera bortitza leundu zuen Jerusalemara joaterakoan, hain zuzen ere konturatu zelako, nazio guztiak ez zirela, berez, gauza txar berdina, eta juduek eskubidea zutela beren nazioa aldarrikatzeko eta defendatzeko. Antinazi sutsuenari nazionalismoa ulerraraztea da Israelgo Estatuak utzi digun mirari haietariko azkena. Baina, honezkero, ez du gehiago idatziko; hurrengo batean palestinarren nazio-eskubideak ere onartu beharko lituzkeelako agian?

1. APPELFELDEK, A. 1988, in Roth, Philip. *Shop Talk. A Writer and his Colleagues and Their Work*. Seix Barral argitaletxean gazteleraz. 1994.

AFORISMOAK *Biktimari agurka*

2012-12-09

...olerki fosila den hizkuntza, mundua eza-gutzen saiatzeko baliabide literario dugu. Biktima, hitz fosilizatua eta erregarria ere dena, berriztagarri bihurtzeko alegia nahiz ahalegina den liburua idatzi nuen, *Biktimari agurka* deritzona. Gaur, Donostian, berriz, bertako Udal Gobernuak deituta, talde politiko guztiak bildu dira lehen aldiz, gatazka politikoak eragindako biktima guztien omenez: Bada garaia, Alojz Ihan, esloveniar poetak zioenez:

“Bada garaia
elkarri hitz egiteko,
zerbaitez hitz egiteko
edo partekatzeko, bada, behintzat,
zerbait partekatzekorik balego, behintzat.

Bada garaia, edo laster,
hori gabe ere geratuko gara”.

Ildo beretik doa Asier Agirrek euskaratutako Zarko Petan Esloveniako idazle ezagunak, kaleratutako liburu ugarien artean, lehenengotariko bat (1966), kartzelaldiaren eraginez idatzi zuena

eta, berak zioskunez, eskarmentu hori bizi gabe ezin esan egun bere emaitza literario zabal bezain umoretsua ezagutzeko parada izango genukeenik. Maiz adierazi izan du satiraren maisuak espetxeak nola markatu zituen haren idaztankera eta gaiak, ikuspuntua eta jomugak... “Zorretan nago agintarekin nigan izan duen eraginarengatik... jazarri eta bakartu izan ez balidate, sekula ez nukeen idatziko”.

Gauza bera esan nezake neronek. Espainiako espetxeetan behin baino gehiagotan kartzelatu izan ez banindute, agian, ez nintzateke idazle izango.

Baina nire esperientzia pertsonalak, aipatu Petanenak bezala bestalde, euskal literaturaren historia argitzeko balio lezake, zeren, gurean, hala idazkien nola idazleen berri ematerakoan, nekez esan dezakegu ezer giltzapean izandako esperientzia aipatu gabe, besteak beste, jazarpenez hitz egin ezean, euskal letren bilakaera azaltzea ezinezkoa litzatekeelako.

Linguae Vasconum Primitiae (1545) idatzi zuen gure lehenengo poeta ezaguna, Bernat Etxepare, Bearnen eduki zuten giltzapean arazo politikoengatik, euskal letren pizkundea zaindu zuen Aitzol kartzelatik atera eta fusilatu egin zuten (hark *su-izkilatu* idatziko zukeen arren...), gauza bera gertatu zen Lauaxeta gure poeta sinbolistarekin, eta euskara literarioaren proposamen garaikidea egin zuen Koldo Mitxelenarekin, zeinak espetxe frankistetako egonaldiak ezagutu zituen filologia ikasten hasi aurretik. Euskal eleberrigintza modernoaren aitzindariak (Txillardegi), kartzelatik pasa ondoren, erbestetik idatzi behar izan zuen,

eta gure egungo idazle loratuenak (Joseba Sarrionaindia), batek daki nondik bidaltzen dituen bere testuak Donostiako espetxetik San Fermin egun batean fikziozkoa zirudien ihesaldia burutu zuenetik... eta ez da bakarra. Giltzapean egonak dira Xabier Amuriza, Mario Onaindia edo Mixel Sarasketa eta barruan daude gaur egun Jokin Urain eta beste asko (eta nola gainera!...)

Azken Gerratean, nazionalista espainiar faxistak Hego Euskal Herrian gailendu zirelarik, euskal liburuak debekatzeaz gain, sutan erre ere egin ohi zituzten. Gure literaturaren aurkako aspaldiko inkisidore-prozedura horren berri geratu zaigu, esate baterako, Tolosan edota Donostiako Garibai kaleko duela hirurogeita hamar urteko erreketetan, zeintzuetan, euskal literaturarekin batera, euskal hiztegiak ere desagerrarazteko izugarrizko lana egin zen.

Euskaraz hitz egitea debekatu arren, hori bakarrik ez zen haientzat ardurarik funtsezkoena izan eta horrekin batera euskaldunok gure istorioak kontatzea eta hedatzea ere galarazi egin nahi izan zuten. Hemengoek jasandako jazarpenak eta torturak, kartzela-aldiak eta debekuen berri, ezkutatatu egin nahi izan zuten eta dute betiko. Ildo horretatik, tortura ez zuten txartzat hartzen nonbaiteko giza eskubideetan oinarriturik, baizik eta haren berri zabaltzea beren aurka bihur zitekeelako. Horretaz ohartarazi gintuen Frantz Fanonek Frantziak Aljerian baliaturiko torturez aritu zenean: “Haiek ez dira sistemaren salbuespenak edota hutsak, kolonialismo okupatzaileak zapalduentzako ezartzen dituen harremanen ondorio baino”. Eta horien

berri eman beharra dago egoerak ostentzen duena agerrarazteko. Horretaz idazteak, beraz, izan, sekulako garrantzia du.

Euskal Herriak eta euskal herritarrok pairatu behar izan dugu aspaldidanik espainiar indar armatuen tortura (ikus “Euskal Memoriak” berriki kaleratutako hirugarren liburukia...), gurea nolabaiteko kolonia den neurrian, eta halaber, azken urteotan nolabaiteko gerran iraun behar izan dugun neurrian. Kari honetara ere, ausaz, espainiar nahiz frantziar eta euskal gizartearen arteko diferentzia oso nabarmena da.

Horretan datza hain juxtu tortura jasan duten pertsonen garrantzia gatazkaren konponketan. Haiek dira frantziar nahiz espainiar iritzi publikoaren aurrean beren eskarmentuak eta gogoeak zabaldu behar dituztenak. Ostendurik dagoen botere-asimetria ikustarazteko eta, finean, egun kartzelaturik dauden preso gehienak tortura dela medio barrura bidali dituztelako frogarik gabe, beren buruen aurkako aitormena egitera behartuta. Baina ez dira gaur egun preso direnak bakarrik, bide berean jende aunitz kausiturik izan garelako dagoeneko eta, garaia da horretaz ozenki hitz egiteko... Biktima guztiak gogoan. Txillardegik zioen bezala, “gure hizkuntza den olerki fosilaz” kontatuta eta kantatuta.

Subiranorik gabeko subirautza, giltzapetik askatasunera

2012-12-24

Tirania sasoiatan, Euripidesen antzerkigintza garaian, erregetza, zoriontasunik gabeko justizia omen zen.

Egungo justizia-eza erregearen zoriona izaten da, herrien kalterako eta telebistaz zabaldu ohi dute...

Erregerik gabeko herri-burujabetasunak baka-
rrik emango dio justiziari independentzia.

Espainiako inperioan, handiustetan, eguzkia ez bide zen inoiz ezkututzen bere lurretatik.

Horregatik, agian, itsututa daukagu Espainia, zeren, inperioa, Hitlerrek zioen bezala, kartzelen jabegoa baita, eta Herri honek, ez du horrelako ondasunik nahi, askatasuna baizik.

Gaur gauean, Gabon egun epel eta gau onean, nik ez dut telebista piztuko.

Baina gurekin afaltzen egongo ez direnak gogoan, goizaldean idatzitako soneto hau irakurriko dut, ahapeka:

Ama lurra, presoan antzera,
kartzela ilun barruan gaude,

baina nahi dugu izan libre
bestek bezala, hemendik aurrera.

Baina ez da soilik nahi izatea
kementsu gaude bezain egoskor,
eta nahiz etsaia izan sor eta gor,
borrokaz irabaziko dugu bakea !

Kanpora begira, ai Euskal Herria,
muineraino asaldatzen zaizkit barrenak,
askatasunak ez baitu gure aberria.

Nahiz eta zigor edo debekua jarria
apurtuko ditugu betiko kondanak
zor zaigun independentzia, aldarria.

Datorren mutazio politikoa

2013-01-02

Hasi berri den urtean nik uste dut Rousseauk duela 300 urte idatzitakoa gogoratzeko premia badagoela. Bukatu berri den urtea, berriz, Rousseau-ren urtea izan da eta, jakina denez, berak planteatu zuen lehen aldiz Herri Konstituzioaren beharra, eta aurten, hala gurean nola gure inguruan ere, nazio-kontzientzia hartu duten herriek beren egituratze politikoari ekingo diotelakoan nago.

Rousseauk berak, enkarguz, Korsikako Konstituzioa idatzi zuen. Noski, Korsikak ez du independentzia lortu oraingoz, baina, gutxienez ere, Frantziako Konstituzioa bera baino lehenagokoa da Korsikako Konstituzioa, nahiz eta, uharte bat arren, egun Frantziak bi departamentutan banatuta daukan.

Ildo beretik, Espainiak, bistan denez, ez du bere Konstituzioan inondik inora onartzen bide politikorik Euskal Herriak edota Kataluniak behar dituzten garapenak gauza ditzaten¹, baina, aldiz, oso kuriosoa izan da Espainiak berak onartu behar izan dituela Europatik etorri zaizkionak, nahiz eta bere subirautzaren kontra joan. Adibidez, krisi ekonomikoa dela-eta Greziarekin gertatu den gau-

za bera. Europatik bideratu dira aginduak defizit-
neurriak hartzeko, eta beraz, estatu guztiek onar-
tu behar izan dituzte beren konstituzioetan zor
handiegirik ez izatea... etab., eta Europako estatu
guztiek jarri dituzte horiek beren konstituzioetan.
Erresuma Batuak ez, besteak beste, Erresuma Ba-
tuan Konstituziorik ere ez baitago eta gainera eu-
rotik at dago (agian, Erresuma Batua bera Europar
Erakundeetatik irten egingo da aurki...). Baina,
funtsean, Erresuma Batua, sistema horrekin edo
planteatutakoarekin konforme ere ezin egon de-
lako.

Halere, Espainiak esaten zuena, alegia be-
re Konstituzioa ezin zitekeela aldatu edo ez zuela
aldatuko, Trantsizioan erdietsitako ustezko kon-
tsentsua apurtuko lukeelako, berak ezeztatu du
praktikan eta aldatu ere aldatu berri du Europak
hala agindu diolako.

Beraz, nazioartetik datozen aginduen gauza
berri bat da, elementu berri bat, herri-askapenen
bidean ere kontuan eduki beharrekoa.

Orain, bi aukera bereizten dira independen-
tziarako: bata, eskaerak aintzakotzat hartuak iza-
ten direnekoa da; normalean hori, gerta daiteke
Belgikan, gerta daiteke Danimarkan, gerta daiteke
Kanadan Quebecekin..., hori aintzakotzat har-
tzen denean, hau da, aldaketa politikoek aukerak
malgutasun minimo batekin konstituzioei lotzen
zaizkienean eta egitura politikoak berrantolatzen
direnean; horren ondorioz, independentziak ez ohi
dira gauzatzen.

Baina, aitzitik, estatuak edozein birmoldaketa
politikoren aurrean erabat ixten direnean, azke-

nean, hori faktore-gako gertatzen da independentzia gauzatzeko. Eta hori da hain zuzen ere, Espainiak egiten duena Kataluniarekin eta Euskal Herriarekin.

Orduan, nik uste dut gure eboluzioa horrantz doala, eta hori bai izango dela benetan datorren mutazio politikoa.

Badago ordea, horren kontrako gurutzada, hori gerta ez dadin historia idazluma eta guzti idazten duena.

Eta orain Euskal Herrian suertatzen ari den ziklo-aldaketan, hori ari da gertatzen, momentu honetan, hain zuzen ere, kontakizun berria behar dela nabarmentzen ari da. Gauza bera gertatu zen Franco hil ondoren, beren kontakizuna berritu behar izan zutenean. Orain, argumentua asmatu behar dute, narrazio guztiek beren argumentua baitute: beren historia eta beren argudioak. Baina problema da ez daukatela ez argumenturik eta ez argudiorik kontakizun berria planteatzeko.

1. “La senda federal”, Editorial de el País 2012-09-20.

Gotingako zazpiak

2013-01-13

Grimm anaien urtea izango da hau. *Erpuru-txo*z eta *Katu botadunaz* hitz egingo digute, baita *Edurne Zuriz* ere... zuriketa galantaren esperoan gaude, beraz.

Efemeride guztiekin gertatu ohi denaren antzera, idazle hauen ekarpenari buruz ohorea eta loria hedatuko da urte honetan zehar baina ez naiz ni horrelako biderik erabiliko duen haietarikoa izango. Aitzitik, Grimm anaien urtean erraz aipatuko ez direnak gogoratzera natorkizu, balizko irakurle hori. Hona hemen jarraian, bada, Grimm anaiei buruz ezkutatu izan nahi diren printza batzuk.

Adibidez, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, irabazi zuten aliatuek Grimm anaien ipuinak debekatu egin zituzten alemaniar herriaren sena (*Volkgeist*) zabaltzen laguntzen zutelakoan. Horra hor, beraz, ustezko demokraziaren defendatzaileek hartutako jarrera zentsuratzaillea, orain ziur asko gogoratzeko gogorik izango ez dutena.

Esaterako, Grimm legea deitzen zaio filologian bi anaietako zaharrenak (Jakob) indoeuropar hizkuntzetan kontsonanteen arteko aldaeren norabidea ulertzeko asmatu zuen formulari. Hau

da, Grimm anaiak ez ziren soilik idazleak, ez zitzazkien ardurak ipuinak eta narrazioak bakarrik, erabiltzen zuten hizkuntza baizik.

Bide batez, Grimm anaiek (Jakob eta Wilhelm) idatzi eta famatu zituzten ipuin haiek (*Erpurutxo* eta *Katu botaduna* baita *Edurnez Zuri* eta gainerakoak ere...) ez ziren haien asmakizunak izan, inguruko emakumezkoek haiei kontatutakoak baizik. Neskame izan zuten Dorothea Viehmann andrea edo Gretchen Wild, botikariaren alaba zaharrena, edota Wilhelemen emazte bilakatu zen Dortchen gaztea izan ziren beraiek munduan zehar zabaldutako ipuin haien jatorrizko kontalaria. Egun ez dira, jakina, izen horiek ezagutzera ematen... emakumeak zirelako ala idazleak ez zirelako?

Ez pentsatu gehiegi, irakurle, Grimm anaien (Jakob eta Wilhelm) gertuko laguntzaile izan zen Bettina von Armin idazlea ere ez da gaur egun Grimm anaiak bezain ezaguna, zergatik izango ote?

Halere, aurten Grimm anaiei buruz goian aipatutako guztia, nire ustez behintzat, behar beste zabalduko ez bada ere, bada, egun, ahaztu behar ez liktzatekeen beste istorio bat, Gotingako zazpiena, hain zuzen ere.

Grimm anaiek (Jakob eta Wilhelm) Gotingako unibertsitatean lan egin zuten Kasselgo unibertsitateetik alde egin ondoren, baina 1837an, Ernest August konteak indarrean zegoen Konstituzioa bertan behera utzi nahi izan zuenean (azkenean lortu zuen) Grimm anaiak, beste bost irakaslerekin batera, unibertsitateetik irten egin ziren protesta moduan. Erabaki horrek asko zaildu zuen

haien bizimodua eta Kasselerantz itzuli behar izan zuten ia dirurik gabe bizirauteko.

Haien kasuan bederen, literatura eta konpromiso politikoa ez omen ziren banandu beharrekoak, haurrentzako ipuinak idazteko izan arren (dena den, beraiek ez zuten inoiz onartu haurrentzat izkiriartzen zutenik...).

Legearen barruan

2013-01-25

Kataluniako Parlamentek katalandar herria subjektu politiko gisa definitu ondoren aurki autodeterminazioaren erreferendumerako deialdia egingo duela ez dago dudarik.

Kari horretara, asko aipatu izan da azken boladan “erabakitzeko eskubidea defendatzen” Ibarretxek jorratutako bidea oraingo katalanen aurrekaria izan zela, baina Ibarretxerenak eman zuena denok badakigu, hau da, inolako autodeterminazio-erreferendumik ez zela hemen bozkatu eta garbi da afera hor amaitu zela.

Katalanek egingo omen dutenaren aurrean, berriz, oraingo leloa “dena legearen barruan” (Espainiako legeaz, beraz) egin beharra dagoela diote estatalistek, horrela, Ibarretxeren burujabetza-alderdiak eduki zuen ibilbide laburra errepikatu nahirik.

Baina zer dira Estatuaren legeak, ordea? Alderdi politiko estatalek egiten dituztenak, jakina. Adibide bat ikus dezagun: berriki alderdien finantziarioa fiskalizatzeko Madrilgo Kongresuak onartu duen azken legea.

Urrian onartutako aipatu legeak zilegitzat jotzen du alderdi politikoen finantzak, sekretupekoak

izateaz gain, antzemandako delituak zigortu gabe gera daitezzen. Arretaz begiratu ezker, harrigarria da alderdi politikoen diruak, ez gizabanakoenak ez eta gainerako elkarteenak ere, bete behar dituzten legeen gaintik daudela ohartzea.

Hasteko, Kontu Tribunalak alderdien gastuak fiskalizatu behar badituzte ere, haien txostenak bost urtean behin argitaratzen dira eta bost urteko epea da, hain zuzen ere, arlo horretan, delitua iraungitzeko aurreikusten dena. Beraz, finantza-arloan hutsa edo akatsa izan arren, zigortu gabe geldituko da betiko.

Horretaz gain, alderdi politikoen, legez, nahi duten adina zorpetzeko eskubidea badute, izan, baita bankuek, beren aldetik, haien zorrak barkatzeko gaitasuna ere. Legezko harreman hori, ez al da susmagarria?

Baina ez da hor bukatzen istorioa, zeren eta alderdiek jasotako dirutzan 100.000 eurotik gorakoa bada emailearen izena agerrarazteko beharra izan arren, ondasun higiezinak (etxeak, orubeak, etab.) eskura ditzakete dohaintza egin duenaren izenik ezagutarazi gabe. Gainera, badituzte Fundazioak ere (FAES, Pablo Iglesias, esaterako...) eta haiek eskuratutako dohaintzak 100.000 eurotik gorakoak izan daitezke eta erabat "izengabeak".

Gehiegi ez nekatzeko, horra hor azken "harribitxia": Alderdi politikoak elkarte pribatuak dira, beraz, Kongresuak arlo publikoaren gardentasuna bermatzeko egin dituen azken legeetatik at gelditu dira!

Modu berean, Ruiz Gallardonek aurkeztutako azken Zigor Kodearen moldaketan (badaki-

zue, euskal presoentzat hil arteko zigorra legezta-
tzen duena...) delitu finantzarioak atzemateko ez
da tutik ere azaltzen.

Horiek dira haien legeak. Begi-bistakoa da zei-
nentzat eginak dauden. Norbaitek uste al du buru-
jabetzarik eskura daitekeela Espainiako Legearen
barruan?

Galdera erretorikoa da, noski.

Britainiarren oparia

2013-02-01

Westminster-eko epaitegiak Antton Troitiño Espainiako estatura estraditatzeari onartu du. Pasadizoa datorkit burura.

Pasadizoak, denok jakin arren, esangurarik ez ohi du galdu.

Kontatzen dutenez, espainiar batek, Evoren aurreko itsasorik gabeko Bolivian Marina-ministroa zergatik zuten galdetuta, Espainian Justizia-ministroa zergatik zegoen ihardetsi bide zioten boliviarrak, espainiarra asaldatur.

Espainiako ustezko Justizia-ministroak euskal presoak betirako kartzelaldian iraunarazteko “bideak eraikiko” zituela adierazi zuen eta horretarako dago bere zigor-kode berria, Espainiako Botere Judizialaren onspena ere lortu izan ez duena.

Ez dakit Koldo Izagirrek *Metxa* pertsonaiari euskal literaturaren mundura sarrera eman zionean fikziotik at ezagututako norbait izan ote zuen buruan, edo aitzitik, berak idatzitakoak preso egoskor benetakoren bat sortzeko behar adinako gaitasunik izan ote zuen, baina, adibidez, ez dago zalantzarik Troitiñoren kartzelaldi bortxatuak, haren testuarekin bat egiten duela.

“Kartzela: gorputzak usteldu eta espirituak herdoiltzeko sortutako barnetegia. Halakotik ihes egitea omen presoaren zeregin nagusia. Eleberri honetako protagonistak, ordea, alderantzizko ihesa egiten du...” irakur daiteke Izagirrek kaleratutako liburuaren kontrazalean.

Fikzioaren kontrazalean, errealitatea ere bada, kondena bete ondoren, kondenaturik irauten duela Anton Troitiñok; Donostiako karriketari egon beharrean, giltzapean berriro britainiarren oparia dela medio.

Moral erlijiosoari etika kritiko-arrazionala kontrajarri zion Emmanuel Kantek modernitatearen hastapenetan. Bere ustez, ez ditugu iritziak, ezta jarrerak ere, haiek eragin litzatekeen ondorioetan oinarritu behar. Agindu hipotetikoaren arabera eraikitako moralak, ekintzaren emaitzari begiratu arren, etika kritikoak, moralak ez bezala, toki eta egoera guztietan berdin jokatzeko eskatzen du, horrek ekar lezakeen ondorio on edo txarrik aintzakotzat hartu gabe.

Jokamolde honetako adibidea izan zen, esate baterako, britainiarren buruzagi izan zen Tomas Moro idazlea, zeinak Ingalaterrako Enrike VIII.aren desioei kasu egin beharrean nahiago izan zuen hiltzea asmo haien aurrean makurtzea baino. Eta mehatxuen aurrean konkortu beharrean, bere iritzinari atxikitzeagatik kondenatu zuten. Handik aurrera, *Utopiaren* idazlea, “Denetarako gizon” bihurtu zen. Fred Zinemannek filmaturiko “*A man for all seasons*” hartan portaera etiko hori islaturik geratu zen betiko, non, pertsona, preso eta duin-

tasun etiko-politikoak giza jokamolde berean ageriarazten zaizkigun.

Baina, oraingo honetan, berarekin eraman-dako jukutria-mendeku gaiztoa besterik ez dela konturatzeko sasoia etorri da. Horixe da, halaber, gainerako euskal presoentzako eraman izan duten jarrera juridikoa. Ez da, beraz, ezertan pertsonalizatu behar, jakiteko, espainiar jurisprudentzia, atxilotuaren araberrako “zuzenbidearen eraikuntza” izango dela. Eta jakina, jurisprudentziak agintzen duen tokian ez dago giza eskubiderik.

Espainiako monarkiaren ministroak (ustez, Justiziakoa...) Kanten kanta horretaz ez omen daki ezer. Agian, ez jakiteagatik, ez du jakingo ezta justizia zer den ere, zeren portaera horrekin, zuzenbidean zein eskubideetan, zuzentzan nahiz politikan, aldarrikaturiko “berdintasunaren” izaera ari da desegiten eta, aldiz, jatorriaren edo jarreraren araberrako gizarte mailakatu bezain diskriminatzailea eraikitzen.

Horixe egin zuen Ingalaterrako Enrike VIII. ak, tiraniaren adibide denak, horrela jokatu zuten britainiarrek irlandar disidentziak, eta hori egin berri dute Troitiñoren estradizioarekin.

Entzutegia entzungor

2013-02-08

Auzitegi Nazionaleko Zaragoza fiskalburuak, Espainiako gobernu-ordezkaritzak Donostiak Txillardegiri emandako dominaren salaketak funtsik ez duela ebatzi du. Bere alde kulturala saritzen dela dio. Bego, beraz. Baina nik, gaurko honetan, bere alde politikoa aldarrikatu nahi dut.

Jose Luis Alvarez Enparantza, Donostiako Antigua auzoan *1929ko irailaren 27an* jaiotakoa (“Gudarien egunean”, beraz, gudarien eguna izendatu aurretik...). Ez zuen, nonbait, gurasoen aldetik euskara jaso eta bere bidea bakarrik korritu behar izan zuen euskaldun bihurtzeko. Oso gaztetatik frankismoaren aurkako giroan hezia, berehala hasi zen militantzia politikoaren arloan murgiltzen. Ekinen eta ETaren sorreran aritutakoa Ingeniaritza ikastera joan zen Bilbora eta hantxe zegoelarik abertzaletasun tradizionala kritikatzan ere aritu zen haien “etsaitasuna irabaziz”. Modu bereko harremana eduki zuen *marxismo-leninismo*arekin eta, horren ondorioz, borrokarako molde berriak lantzeari ekin zion.

Hirurogeigarreneko hamarkadaren hasieran, kartzela ezagutu ondoren (Martuteneko espetxea

“inauguratu” baitzuen) atzerrira jo eta 1967an ETA utzi zuen 1977an *Hego Euskal Herrira bueltatuz*; ESB alderdiaren sortzaileetako bat izan zen orduan eta *Herri Batasunaren* antolaketan ere parte hartu zuen bi legealditan senatari izanez, eta azkenean, Mugurutza diputatuaren asesinatzearen lekuko zuzena izan zen.

Txillardegi izan zen europar kulturaren berri euskal eztabaida politikora estreinakoz ekarri zuena. Saiakera berria euskaraz eman zigun idazle urbanoa, laikoa eta iraultzailea. Nazioarteko kultur erreferentzia garaikideak euskal nazio zaharrera ekarri zituen abertzalea. Akademiak maite izan ez zuena nahiz eta berak jakintza maite.

Euskal preso, erbesteratua eta errefuxiatua. ETAREN fundatzailea eta errefusatzailea. Existenzialista eta polemikazalea.

Edozein modutara ere, hemen eskainitakoa, askotan hau adieraztea topikotzat hartua izan arren, Txillardegiri egindako beste hurbilpen bat besterik ez da, gerturatze politiko laburra, halabeharrez.

“Il n'est pas nécessaire de souligner l'importance de la fonction d'une langue standard consistant à affirmer l'identité d'une communauté linguistique c'est en développant sa propre langue standard qu'une communauté parlante, de dialectale, devient linguistique et se distingue d'une autre communauté linguistiquement apparentée et/ou politiquement dominante” zioen Paul Garvinek (1986) eta Txillardegik horri kasu egin zion euskara batuaren beharra proposatzerakoan 1968az aurretik, ikuspegi nazionala akuilu izanda.

Euskal Herria, Marc Legasse idazleak adierazten duen moduan, oraindik politikoki osoki existitzerik izan ez duen herria da, nahiz eta gure egunotaraino “kontrabandoz” heldu den historian zehar (*“Los contrabandistas de Hilargi-Zaharra”*. 1980. Txertoa. Donostia).

Kontrabandoa ofizio historikoa baino areago, euskaldun ororen ia betebeharra izan da, zeren eta, “malgré nous”, Euskal Herria Ipar eta Hegoaldean banaturik daukan muga, ez da sekula aintzatetsia izan herria bere izatearekin identifikatu izan duten kontuetan: hizkuntza, kultura, eta eguneroko harreman politikoetan alegia.

Hala ere, mugak ekarritako aldeak sortu dituzten banakuntzen historian Txillardegi bezalako pertsonaia historikoak ere egon, badaude, eta horiek, 2013. urte honetan ulertzen zaila izan arren, Euskal Herriaren zatiketari aurre egiteko baliabideak nahiz gaitasunak metatu dituzte eta herri honek egin dituen erresistentzia/diferentzia praktikak indartzen lagundu izan dute.

Entzutegi Nazionaletik ere, nonbait, kontrabandoz pasa izan da Txillardegiren ohoratze hau. Ongi. Honetan behintzat, Entzutegia entzungor gelditu da.

SORTUri izua

2013-02-22

Gizakiari horrenbeste ikara eman ohi zion bere sorkuntzarako gaitasunak, ezen, izate bat asmatu behar izan zuela sormenaren ahalak irudikatzeko. Horrela jaio omen zen Jainkoa eta horretan oinarritu zen pentsamendu erlijioso osoa.

SORTU alderdi politikoa jaiotzera iritsi den aste honetan Ronnie Kasrils Hegoafrikako politikari saiatuarekin biltzea suertatu zait eta, zinez, munduaren injustizien aurkako borrokan gabiltzanoino ikasgai ederren emaile izan dira bere hitzak eta esperientziak, haren gogoetak eta eskarmentuak.

Ronnie Kasrils gizon politikoa da, *zoom politikon* grekozko esapideak duen esanahi osoan. Idazlea, poeta, gerrillaria, bizitza erdian klandestinitatean ibilitakoa eta, horren ostean, Hegoafrikar Errepublikaren Gobernuan hamalau urtez aritutakoa.

Berari egokitu zitzaion 1990ean apartheidean oinarritutako Hegoafrikar Errepublikaren Gobernuaren eta ANCREn (Afrikar Nazioaren Kongresua) arteko negoziazio garaietan sasi artean ibili behar izatea Hegoafrikar Errepublikaren barne-mugetan. Ezgaraiak izan ziren, duda barik. Nego-

ziazioak burutu gabe zeuden eta atxilotetak, berri-
z, etengabeak ziren. Orain eta hemen gertatzen
ari dena, alajaina.

Hegoafrikar Errepublikaren mugimendu as-
katzaileak (Afrikar Nazioaren Kongresua) borrokan
mende bat baino gehiago eraman arren, 1960tik
aurrera soilik hartu zuen borroka armatuaren deli-
beroa Umkhonto weSizweren bidez (ETA bezala).
Ronnie Kasrils izan zen “ azkona” moduan itzul
genezakeen izen horretako beso armatuaren sor-
tzailetako bat.

Haren bizitza, beraz, ez da inoiz erraza izan.
Halere, apartheid politikoa gaindituta, lehenengo
hauteskunde demokratikoetan Hegoafrikar Erre-
publikaren Gobernu ANCK (Afrikar Nazioaren
Kongresua) eskuratu zuenean hasi zen berarentzat,
bere hitzetan, bizitzaren ataka zailena.

Konpromiso politikoagatik galdu zuen lana
eta atxilotuta egon zen, maite zituen ingurukoak
hiltzen joan ziren (bere aitarengandik hasita), er-
bestean pasa behar izan zuen gaztaroa, gerrillarekin
borrokan helduaroa eta, zahartzaroan, erretiratu
beharrean, maite zuen herria gobernatzeko ardura
etorri zitzaion. Ez zen samurra izan, alafede.

Umkhonto weSizweren sortzen lagundu zuen
Ronnie Kasrilek, hura izan zen gudarako bere
“azkona”. Hegoafrikar Errepublikan borroka ar-
matua alboraturik, Euskal Herriko bakea eskura-
tzen lanean dabilen Nazioarteko Taldea sortzen ere
lagundu zuen. Sortzaile izan da eta da, gudan nahiz
bakean. Mundu justuagoa lortu nahian, betiere.

Ez dugu Jainkoen beharrik, Ronnie Kasrils
bezalako gizonena baizik.

Searching for Rodriguez

2013-03-06

“Searching for Sugar Man” filmean Rodriguez, Detroiteko abeslariaren istorio izugarria kontatzen digute. Nonbait, Hegoafrikan oso ezaguna izan arren, bere jaioterrian, AEBetan, ez zuen apenas inork ezagutu eta, beraz, itsasoz bi aldeetan bere arrakastaren maila zeharo ezberdina izan zen.

Abeslariak, Sugar hitzarekin kokaina adierazi nahi zuen eta Virgen Mariaren aldarriarekin, jakina, marihuana ari zen aldarrikatzen. Horiek guztiak, apartheideko Hegoafrikan, askatasunaren kantuak izan ziren hango eta orduko gazterientzat.

Hain zen zentsuratzaile eta autoritario garaiko giroa, ezen drogaren aipamen hutsak edota sexu-erlazioez hitz egiten zuen abestiak, egoera itogarri horren aurkako jarreran konplizitateak azalarazten zituela. Horregatik zabaldu ziren haren kantak eta bere legenda progresisten artean, nahiz eta Rodriguez zein zen jakin ez.

Urteak pasa, urteak etorri, eta sasoi haietan gazte izandako batzuk aipatu Rodriguezen bila hasi ziren..., baita aurkitu ere, alajaina!

Ez dizuet ezer gehiago kontatuko filmari buruzko jakinmina ez zapuztearren, izan ere, zinez,

dokumentala ikusteak merezi baitu, baina, badago istorio honek gogoetarako eman didan hausnarke-ta bat, orain, jarraian, zuekin partekatu nahi du-dana.

Alegia, apartheideko Hegoafrika hartako gaz-te zuriak beraiek ere, zapalduta zeudela onartu arren, askatasunaren alde borrokatzeko ez zirela gauza izan nabarmentzen zuten.

Hau da, askeak izan nahi zuten baina egoera aldatzeko bideari ekiteko ezinduak zeuden. Apar-teheiden kontrako borroka, ordea, ireki zuen kultur askatasunaren atea baina, horretan, orduko gazte zuriak ez zuten parte handirik hartu.

Eta horren harira, nago, espainiar herriaren askatasunarentzat, Euskal Herriaren independen-tzia baino ezer hobeagorik ez dela izango, zeren horrek mugituko duenak, Espainian aspalditik trabatutako giro politiko ustela ere askatuko due-lakoan naukazue.

Ildo beretik, eta martxoaren 8aren atarian, gizonok nekez aldatzerik daukagun patriarkatutik borroka feministak askatuko gaituelakoan nago.

Searching for Sugar woman, beraz.

Presoak mintzo eta politikoak entzungor

2013-03-12

Duela gutxi galdetu izan zaie euskal presoek kolektiboko bozeramaileei (Xabier Alegriari eta Lorentxa Gimoni) gatazkaren irtenbidean presoek nola ikusten duten beren burua eta argi esan dute ez dutela aurreikusten 1977ko Amnistiaren antzeko irtenbiderik eta bestelako ereduaz ari direla lanean. Halere, hori entzunda, politiko gehienek adierazpenak, orduko Amnistia hartu dute hizpide, hura ez dela errepikatuko azaltzeko.

Bistan da ohiko politiko hauek ez dakitela historiaz, ez matematikaz (kontuak gaizki egin ohi dituztelako...), ez eta idazten edo irakurtzen, beraiek sortutako legeek diotenari kasu egiten ez diotelako, baina, hau harrigarriena, ez omen dakite ez eta entzuten dutena aditzen ere! Eta, hala, Xabierri nola Lorentxari beraiek aipatu ez dutenaz erantzun diete, beste Amnistia bat ez dela izango errepikatuz eta esanez...

Franco hil ondoren, errepresioaren aurrean, herriaren protagonismoa gero eta handiagoa izan zen kalean amnistiaren eskaerarekin, baina amnistiarena da, hain zuzen ere, berrirakurri edo bir-

planteatu behar den orduko gauzetariko bat, nire ustez..

Hau da, zein puntutaraino amnistiak Euskal Herriaren alde egin zuen osoro edo funtsean, ala amnistia izan zen, aldez edo moldez, frankismoaren aldetik erabilita berek egindako basakeria guztiak ezabatu ahal izateko...

Amnistiaren Legea ekarrita, aldaketa handia zetorrela ikusi genuen. Baina, dagoeneko, 36 urte pasatu dira garai hartatik, eta bide horretatik iritsi gara jada oraingo ziklo politikoaren aldaketa honetara, non, independentziaren hautuaren aurrean, funtsezkoa zaigun gure esperientziatik behar bezala ikasi ahal izatea orduko hanka-sartzeak ez errepikatzeke.

Eta hor, nik uste dut, amnistiaren aldarrikapen hura kokatu egin behar dela. Eta ildo horretatik planteatu beharra dago, nolabait, zein puntutaraino amnistia horrek on edo kalte egin zizun gainerakooi, espainiarrez bestekooi. Izan ere, amnistiaren bila borrokan ari ginenean, nik ikusi nituen, noski, nire lagunak kartzeletatik kalera ateratzen borroka haien ondorioz..., baina amnistia horrekin batera, frankismoak berek egindako sarraski guztiak juzgatu gabe gelditzearen ziurtasuna lortu zuen.

Egun, ordea, *justizia trantsizionala* deitutakoa agerraraztea beharrezkoa izaten da aldaketarako bidean, orduan egiterik izan ez zena.

Argentinako edo Txileko diktaduren egoera bertan behera gelditu zen 1983an. Irlandarren irtenbidea hasi zen planteatzen 1999tik aurrera. Timorren, halaber, 1995ean edo hortik aurrera. Be-

no, munduan hainbat tokitan zehar planteatu izan dute aipatu *justizia trantsizionala*, nik ezagututako Irlandan, Argentinan, Txilen, Perun, Timorren, Hego Afrikan... eta aurrera eraman dute dagoeneko hemengo Trantsizio deitutako horretan planteatzerik izan ez zen justizia trantsizionala.

Baina *justizia trantsizional* horrek zer suposatzen du?

Ohiko justiziak bere bidea egiten baldin baidu biktimen aurrean eta egindako kalteen aurrean aritzeko, trantsiziozko justizietan pentsatu beharra dago haiek zer-nolako zeregina bete behar duten. Beraz, biktimei kasu egiteagatik trantsizio politikoaren prozesua bera, aldaketarako prozesu berori, bertan behera gera ez dadin justiziak zer egin behar duen asmatzen jakin behar da. Orduan, justizia mota berezi bat izaten da hori, justizia trantsizional deritzona (justizia poetikoa, agian?...) eta, normalean, gauzatu egiten da Egiaren Batzordeen bidez. Hau da, Hegoafrikan kasu, hala Estatuak nola haren kontra aritutako oposizioak ere, egindakoaren berri eman behar izan dute aipatu Batzordearen aurrean, hala egin ez duena legez kanpo utziz... Egiaren Batzordeak jasotakoa, berriz, ez da, berez, ohiko legeen arabera juzgatua izaten balizko aldaketa politikoaren onerako, baina, edozein modutara, aldaketa ez da burutzen, aurreko kon-tuak argitu gabe.

Hori ez zen gertatu Espainiako Trantsizio garaian eta, aldiz, Amnistiaren legearekin, adibidez, zer gertatu zen?

Bada, hauxe, ezin izan zela aurreko frankismoaren garaiko gertaerei berrikuspenik egin eta,

are gutxiago, ondorio ofizialik bilatu. Eta horretan oinarritu izan da Espainiako Epaitegi Gorena, Garzón epaileari esateko, hain zuzen, Amnistia Legeak ez duela ahalbidetzen, ez duela baimentzen, frankismoaren krimenen aurrean ezertxo ere egin ahal izatea.

Orduan, hau aztertzean, nire galdera zera da: ondo egin al genuen amnistia eskatzen, kontuan izanik amnistia bera, haiek, frankistek, erabili behar zutela eta horrek baldintzatu egingo zuela zertorren egokitzapen politikoa? Aurreko ankerkeria guztiak ordaindu gabe gelditzea eskatu al genuen orduko amnistiarekin?

Justizia Trantsizionala behar dugu aldarrikatu eta, horrekin batera, jakina, presoak kalera!

Ohiko politikoak oraingo haur ulertzeko gauza ez izan arren, hemendik aurrera geroz eta ozengoz entzun behar izango dute.

Idazlarien betekizuna

2013-03-23

Alejo Carpentier idazle eta politikoko kubatarrak, emozioari eutsi ezinik, hil aurretik kontatu zuen, 1937an Pablo Neruda, Rafael Alberti eta Nicolas Guillen poetekin elkartu zela espainiar errepublikako lurraldean Parisen bildu behar zen “Intelektual Antifaxisten Batzarrera” joan ahal izateko eta, haien artean hizketan ari zirela, zerbitzari izan zuten emakumezkoa, horretaz jabetu zelarik, horrela mintzatu zitzaizela:

— Joan zaitezte harantz eta zuek, idazten eta irakurtzen dakizuenok, defendatu gu!!

Horra hor idazleontzat zein kazetariarentzat deiadarra. Herri xumeak azalduta. Eta, nori berea, bakoitzak bere hizkuntzan irakur eta idatz dezan horren aldeko betebeharrak argia.

Orain burutzen ari den Korrika antolatzen duen taldeak, Alfabetatzearen aldeko euskal koordinakundeak, horren alde lan egin du sortu zenetik. Ez soilik, beraz, helduentzako euskararen irakaskuntzaren bidez euskaldun gehiago sortzeko, baizik eta baita euskaldun oro idazle nahiz irakurle oso bilakatzeko ere.

Euskara batua onartu aurretik, urte berbertan kaleratu ziren Mitxelenaren *Historia de la Literatura Vasca* (1960), eta izen bereko Villasanterena (1961), baita Manuel Lekuonaren *Literatura oral vasca* ere (1961). Horrek bere garrantzia du, izan ere, gogoratu egin beharko genuke euskara batuaren prozesuan jeltzaleek beti kontrako bidea hartu izan zutela, ez baitzuten inondik inora onartzen euskara batuaren beharrik, areago, Euskaltzaindiko kideen arteko bilerak gazteleraz egiten zirela ere gauza jakina da.

Beraz, euskara batuak suposatu zuen euskaldun guztien batasuna, eta, nola edo hala, horrek batasun politikoa dakar berarekin batera. Hau da, aurreko planteamendua guztiz euskalkien aldekoa bazen, guztiz “filologista”, nolabait esanda, eta Elizaren mendekoa, batuaren aldeko jarrera berri horretan Eliza gainditua suertatu zen eta, ohiko nazionalismoaz harago, Estatu baten beharra ere azpimarratzen zen.

Beraz, euskara batuaren historian, eta hori behin baino gehiagotan azaldu da ikerketa desberdinetan, funtsezko etsaiak abertzaletasun tradizionaletik etorritakoak izan ziren.

Ez dago gogoratu beharrik Joseba Arregik, Eusko Jaurlaritzako eleduna eta kultur kontseilaria izanik, zer-nolako boikota egin zion hala Korrikari nola AEKri EITBn ere, nahiz eta egun, bere tokian dagoen Kristina Uriartek lekukoa eraman duen (zer egongo da barruan idatzita?).

Gauzak aldatuz doaz baina bide honetan ez ditugu ahaztu behar, ordea, euskal alfabetatzearen alde ibilitako ekintzaileak, bere garaian ez Akade-

miak ez eta hedabideek ere, ez zituztela aintzako-
tzat hartu nahi. Bi aipatuko ditut, Txillardegi eta
Joxemi Zumalabe.

Bati esker egungo euskara literarioa finkatua
daukagu eta, besteari zor diogu euskaldunen ko-
munikabide-ardatz den egunkaria martxan izatea.

Korrikaren amaieraren aurretik omenduak
izango dira Donostian.

Herriak ez du ahantzi bere hizkuntzan idazten
eta irakurtzen zekitenen aldeko defentsa.

Bakoitzari berea.

Babin Kuck

2013-04-01

Dubrovnik atzean utzita eta itsasora irtetean Babin Kuck izeneko toki bat badago mendiko talaian. “Amonen orroa” esan nahi omen du Babin Kuck esamolde horrek kroatera zaharraz.

Nonbait, itsasora abiatzea arriskugarria izanik ere, etsaiez inguraturik bizi izan ziren lehor-parte horretan, bertan bizitzea are beldurgarriagoa izaten zela diote eta horregatik joan ohi zirela emakumezkoak beren gizonak negarrez agurtzera.

Inork ez du argitu, ordea, haien garrasi eta malkoen zergatia.

Triste geratzen ote ziren, ala lasai eta pozik gizonik gabe?. Batek daki.

Legendak horrelakoak dira, ulergaitz samarrak. Horrela, bakoitzak nahi duena ulertzeko aukera izaten du.

Aste Santuan ere, Babin Kuck horretan bezala, negar eta doluak entzun ohi dira.

Egun, Aste Santu katolikoaren partez oporren deiadarra izaten denean ere, jendea etxetik kanpora doanean, inork ez daki pozak ala estutasunak eraginik, senitartekoen orroak aditu ohi dira...

eta itzultzean, zer esanik ez...

MLJET

2013-04-07

Adriatikoan uharte bat badago Mljet izeneko. Kroateraz horrela deitzen diote behintzat.

Bitxia da orain kroateraz esaten dela eta, duela gutxi arte, serbokroatera zela hizkuntzalaritzan erabili ohi zen izendapen “ofiziala”.

AEBetan dagoen Dayton herrian sinaturiko hitzarmenari esker Hego Eslaviako gerra bukatu ondoren (1996) serbokroatera zen hizkuntzatik kroatera, serbiera eta bosniera hizkuntzak “jaio” ziren. Berez, hirurak bat besterik ez dira, jakina. Serbiera, alfabeto zirilikoa erabili arren, beste bien antzekoa da tokian tokiko zenbait aldaeretan izan ezik.

Hala eta guztiz ere, Sarajevon, esaterako, bertako tabakoa erosiz gero, aipatu hiru hizkuntzetan idatzitako testu baten bidez (kroateraz, serbieraz nahiz bosnieraz) zigarretak hil egingo duela oroitarazten diote erosleari. Horrek, noski, ez du esan nahi Bosnian erretzea hiru aldiz arriskutsuago dela beste edonon baino (nahiz eta han tabernetan eta toki publikoetan erretzea baimenduta dagoen...) abisu bera hirueleduna dela baizik.

Baina hizkuntza-bereizketa hura ez du Hizkuntzalaritzak erabaki. Ez da, gainera, Hego Esla-

vian bertan ebatzi AEBetan dagoen Dayton herrian sinaturiko hitzarmen politikoa dela medio etorri da.

Politikak, bistan da, hizkuntzak eta dialektoak bereizten ditu. Bai eta hiztunen eskubideak zeintzuk diren ere.

Politikak giza eskubideak zer diren gauzatu egiten ditu.

Mljet izeneko uhartea aipatu dut arestian, izan ere, irla horrek badu bere erdian laku bat. Ur gaziak inguratutako ur geza dago bertan, lehorraz bereizita. Baina urtegiaren erdian, ordea, beste uhartetxo bat dago, egon. Uharte bat uhartearen barruan.

Mljet uhartea bezala ikusten dut euskal preso politikoei ezarri zaien politika penitentziario anker-rra.

Giza eskubideen salbuespenen salbuespena.

Krudelkeriarik krudelena.

Politikak aginduta.

Errepublikaz

2013-04-14

Duela urte betetik hona Donostiako Udalak espainiar errepublikaren bandera jarri ohi du bere balkoian. Aurreko alkate sozialistak ez zuen jartzen eta Espainian bertan ere usadio hori ez omen da asko zabaldu.

Donostiako alkateak bandera errepublikar hori elkartasunez jartzen duela adierazi du, balkoi berean Saharako Errepublikakoa, Kataluniakoa edota Tibeteko bandera ere zintzilikatu egin dituztela argituz.

Euskal Herriko bandera errepublikarra Ikurrina dela begi bistakoa da.

Halere, Espainiako bigarren errepublika (1931koa), lehenengoa (1873koa) baino askoz zentralistagoa izan arren, ikurrina bera legezko bihurtu zen gari hartan.

Eta ez hori bakarrik, espainiar bigarren errepublika indarrean jarri zen egun bertsean katalandar errepublika ere aldarrikatua izan zen baita hego Euskal Herriko udaletxe batzuek, Getxoko alkate zen Jose Antonio Agirre buru, Euskal Errepublikarako bideari hasiera eman zioten. Horretan, Xahok, Aranak, Gallastegik edota Irujok berak teoria

politikoan aldarrikatutako gobernu-sistemaren aldeko jarrera berretsi besterik ez zuten egin, baina, praktikan, horrek Euskal Estatutuaren lehenengo idazkuntza ekarri zuen (maiatzaren 8an publikoki aurkeztua izan zena eta hegoaldeko lau herrialde-tako 420 euskal alkatek onartu zutena nahiz eta Espainiako Legebiltzar Errepublikarrak bideratu ez...).

Madriilen Euskal Herriak zuzenean nazioarteko harremanak izatea eta euskal estatu bihurtzeko aukera edukitzea ez zituzten onartu nahi izan, noski, eta beste testu bat idaztera behartu zituzten.

Ondorengo idazkian, ez da esan beharrik, Nafarroa balizko euskal estatututik at utzi zuten (oraindik argitzeke dagoen bozketa faltsutu bat medio) eta espainiar eskuinak errepublikan agintzen zuelarik (1934) Zumarragan bildutako euskal alkateen aurkako errepresio bortitza erabili zuen aldarrikapen-bidea ixteko.

Ezkerreko Fronte Popularrak boterea hartu zuenean Espainiako Errepublikan gauzak ez ziren hobeto joan euskal errepublikanoentzat eta gerrateak bakarrik ekarri zuen Euskal Errepublika gauzatze bidean jartzeko aukera.

Haren defentsan, hiru koloretako bandera errepublikarra, baina hemen berdea, gorria eta zuria izan zen. Eta egun ere, halaxe izaten da.

Iruzur gaiztoa desobedientziaren izenean

2013-04-24

Soldaduska egiten zen garaian (gerra pribatizatu baino lehen, beraz) mota ezberdinetako aukerak agertu ziren derrigorrezko armadari aurre egiteko.

Batzuek intsumisioaren alde egin zuten, besteek objekzioarekin bat egin zuten eta beste batzuek, berriz, aspaldiko jite historikoari jarraipena emanez, hanka egiten zuten besterik gabe.

Armada zen obedientziaren erresuma. Pentsa, Francoren edota Tejeroren jarraitzaileek “obedientziaren beharra” erabili zuten Estatu Kolpea izan zirenak zuritzeko...

Armadako istorioa da kontatuko dudana.

Behin batean, ofizialen tabernan talde builoso bat bilduta zegoen koronelaren inguruan, hark esaten zituenak aintzakotzat hartuz barrez lehertzeko. Aldamenean, aldiz, beste ofizial bat kopetilun zegoen. Barreak baretu ondoren eta ofizial tristeari erreparatuta, koronelak honela galdetu zion:

—Ze, ez al dizu graziarik egiten kontatzen ari garenak?

Eta besteak, horrela egin zion arrapostu:

—Ez da hori, ni beste batailoikoa naiz eta!

Hau da, barreak ere obedientziaren arabera egiten omen ziren armadan, nonbait.

Umorean, bada, hierarkiak eta jarrerak daude. Badago, egon, esaterako, pobreak lepo edota ezinduaren bizkar barre egiten duena. Aberatsen irri gaiztoa da hori. Atzerakoa bezain maltzurra.

Aitzitik, boteredunei barre egiten diena ere badago eta haren umorea iraultzailea da, berez.

Desobedientziaren gaiarekin antzekoa gertatu ohi da.

Gizarte-egoerak aldatzeko erabiltzen den desobedientzia emankorra izaten da eta, ostera, gizarte-egoerak iraunarazteko erabilia izaten dena, aberatsen umorea bezain beste atzerakoi eta amarrutsua da, doilorra eta zitala. Zabor hutsa.

Baina, zorionez, badakigu jakin, zaborra ere birzikla daitekeela.

Thomas Teorema

2013-04-28

Thomasen teorema deiturikoak, ahozkotasunaren fenomenoaz azaltzeko balio du.

Bernard Shawen *Pigmalion* izeneko obran (1956an *My Fair Lady* filmean gauzatu zena), Arthur Hailey *Traficantes de dinero* eleberrian, Robert Mertonen soziologian, edota *iatrogenia* izeneko kontzeptuan agertzen zaigu aipatu *Thomasen teorema*.

*Thomasen teoremak eta Pigmalion*¹ efektuak, edozein informazio helarazteko erari hizkera arruntetan zurrumurru deitzen diogunak, benetako eragin sozio-kulturalak izateaz gain, taldeen zein norbanakoen errealitatea (baita errealitatea bera ere) aldatzeko ahalmen performatiboa ere baduela diote.

Thomasen teoremak argitzen ditu mundua ulertzeko iritzi publikoen aldaketak eta zurrumurruen eraginak. Bera dela medio uler daiteke, esaterako, duela astebete Obama, AEBetako presidentea, zaurituta zegoela zabaldu zenean, New Yorkeko burtsan sekulako beherakada suertatu zela. Informazio gisa hedatutako bolo-boloak ez baitira us-teak soilik, errealitatea eraldatzeko moldeak baizik.

Bolo-bolo faltsua izan da, nonbait, Harvarden irakasle izan diren Carmen Reinhartek eta Kenneth Rogoffek zabaldutako teoria, alegia, %90eko zorpetzea duten herrialdeek ezin dutela hazkunde ekonomikorik ziurtatu.

Ideia horri eutsi dio Nazioarteko Moneta Funtsak (FMI) munduan zehar bere mailegu-politika ezartzeko (aipatu bi irakasleak Funts horretako goi-kargudunak ere izan dira) eta, nolabait esanda, krisi ekonomikoari aurre egiteko terapia guztiak horren arabera bideratu ohi dira.

Baina oker zeuden, gezurra zen.

Thomas izeneko 28 urteko ikasle batek, Herdon jaunak, hala frogatu du Massachusettseko unibertsitatean.

Erabat zorpeturik egon arren, Kanadak, Australiak edo Zeelanda Berriak hazkunde ekonomikoari eutsi zioten. Halere, Thomas Herndonon funtsezko ekarpena izan da Carmen Reinhartek eta Kenneth Rogoffek zabaldutako teoriaren oinarri matematikoa faltsua izan zela nabarmentzea.

Zer zioen San Tomasek?

Kristo hilik zegoela esaten ziotenean berak ihardesten zuen:

—Behatza bere zaurian sartu arte ez dut sinetsiko!

Eszeptikoa zen Tomas hori.

Eta eszeptikoak izan dira gure bi Thomas horiek ere (hala teoremarena nola aipatu ekonomia ikaslea ere)

Mundu arrano honetan halakoak behar ditugu.

1. RODRIGUEZ, F.; ESNAOLA, I. (1996) “Idatzizko euskara batua eta ahozko euskararen arteko kontraesanak Euskal Herriaren nortasun kolektiboaren eraikuntzan (Gazte-hizkeraren kasua)” in *Tantak*. 16., 67-78 orr.

Kolonbiarekiko elkartasuna

2013-05-09

Fernando Rendón poetaren gidaritzapean eta Worldpoetrymovementek antolaturik, maiatzean zehar munduko hainbat tokitan (ustez, 40 herrialde desberdinetan), Kolonbiako Gobernuaren eta FARC gerrillarien artean Kubako Habanan egiten ari diren bake-elkarrizketak babesteko ekitaldi literarioak egingo dira.

Euskal Herrian ere horren alde agertu nahi dugu eta maiatzaren 15eko arratsaldeko 8tan, Tedone jatetxean, (Donostiako Gros auzoko kale laburrean) elkartzeko asmoa daukagu testu-irakurketari ekiteko. Testuok, aldez aurretik prestatuak egon arren, edonork ekar ditzake bereak eta gurekin bat egin, areago, jendeari bere testu-ekarpen eta guzti etortzea eskatuko genioke.

Dagoeneko Amaia Lasa poetak eta Joseba Barenetxea, Joan Mari Apaolaza eta Itziar Zubizarreta idazleek, gurekin egongo direla ziurtatu badute ere, goian esan bezala, askoz jende gehiago espero dugu gure espero itxaropentsuan eta, geure artean ohitura bihurtu denez, irakurketari ekin ondoren, afari-legeari ere ekin egingo diogu, jakina.

Maiatzaren 15a arte, bada,
Ez adiorik.

Oharra: Ekitaldian zehar argazkiak eta bideoak grabatuko dira worldpoetrymovementi eta Kolonbiako “Con-fabulación” egunkari literarioari bidaltzeko.

Hastapenean ekitaldia euskaraz egiteko prestatu- turik egon arren, Kolonbiatik-edo gazteleraz mintzatzen diren beste herrialdeetako testuak ere ongi etorriak izango dira.

Buru egitea

2013-05-30

Aurre egitea da, jarkitzea, ihardukitzea. Buru egitea burujabetzaren ardatza izaten da.

Monarkia garaian Erregea zen abertzale bakarra, aberria berea zen.

Berrerdiespenen predikuak 1794an, Rousseauri nahiz Montesquieuri jarraiki, denon nazioa Errepublikari esker garatzen dela zioskun, herriaren boterea izaki, legeak ere denontzat askatzaile bihurtzen zirelako.

Legerik ez dagoen tokian, Saint-Just zenak zioenez, tirania egoten da eta, aldiz, nazio-legeak agintzen duenean, herria izaten da errege. Aberria ez baita toki bat, Saint-Justen ustez, maite diren gertutasunen multzo loteslea baizik, eta horregatik, defendatu beharra dago bere askatasuna. Lehen Erregeari obeditu behar zitzaion, gero aldiz, Errepublikaren legeak, herria subirau bezain aske bihurtzen du.

Hau guztia arautzeko Nazio Estatu antolatzen hasi zenean, ordea, boterearen mito moderno hasi zen zabaltzen.

Halere, bai AEBetako 1776ko Filadelfiako Aktan, baita 1789ko Frantziako “Giza eskubideen Agirian” ere, herritar bakoitzaren askatasuna

izan zen orain arte aipatutako guztiaren oinarria. Hau da, gizakion eskubiderik gabe ezin esan, ez naziorik, ezta herri askaturik egon daitekeenik ere. Horregatik, hala Rousseau bera nola “Giza eskubideen Agiria” ere, zapalkuntzaren aurrean jarkitzearen edota ihardukitzearen eskubideaz aritu ziren. Injustiziaren aurrean buruen berean. Iraultza burgesetik aitzin, berriz, herria da subiraua eta, demokraziaren bidez agintzen du. Herri-subirautza baita nazioaren abiapuntua.

Erresistentzia, bada, eskubidea eta delako betekizuna da hein berean. Hura gabe ezin esan, beraz, ez demokraziarik ez eta askatasunik dagoenik.

Errepublika modernoarekin batera sorturiko “Giza eskubideen Agiria” (1789an) argia da hori azaltzen. Erresistentziarako eskubidea onartu gabe, ezin esan herritarrak badaudenik ere.

Greba-egunen harira, seigarrena izan berria baita hego Euskal Herrian, ez dago gaizki, haatik, herri-burujabetzarako bidean, herritarron aurre egiteko eskubidea, legezko izateaz gain, premiazkoa ere badela esatea eta, finean, injustiziaren aurrean, eta egungo egoera justiziaz kanpoko da guztiz, denon betebeharra dela gogoratzea.

Zure esku dago 2014

2013-06-09

“Gure esku dago” gizarte-mugimenduaren aurkezpenak erronka handia ezarri berri digu: hemendik urtebetera 130 km-ko giza katea Durangotik Iruñera burutzea. Erronka, ordea, askoz zabalagoa da, autodeterminazioaren hazia euskal gizartean lantzea eta, bide batez, haren aldeko apustua irabaztea.

Bertsolari guztiek badakitenez, Jose Manuel Lujanbio zenak horrela erabiltzen zuen behinik behin, erronka, lehiaren sinonimo ere bada, izan, eta 2014. urtea lehiaren urtea izango dela ezin da dudan jarri.

Bistan da, aspaldi batean boto hontzitarako deia entzun gabe egon ondoren, europar hauteskundeetarako urtea izango dela datorrena eta, zinez, orain antzematen zaion baino garrantzi handiagokoa izango dela uste dut.

Hasteko, espainiar estatuaren bi alderdiko politika-sistema erabat ondatuta dagoelako. Izan ere, ustezko Trantsizioaren boto-banaketara itzul daitekeela ematen du (azken urteetako bi multzo nagusietatik boto-emaileen lau multzoen arteko banaketara).

Horretaz gain, Europarekiko mesfidantza (gorrotoa ez esateagatik) gero eta handiagoa da.

Kataluniako erreferendumaren itzalak, zalan-tzarik ez, europar markoan, estatu mailakoak baino gehiago diren hauteskundeak izatea ekarriko du, izan ere, Ezker Errepublikarrekoak inoiz baino sostengu gehiago eskuratzen ari baitira.

Eta funtsean, espainiar estatalisten indarrean oinarritutako agintea, nahiz ohiko egituraren politika, amiltzen ari baitira porrot egin dutelako.

Beraz, gure esku dago, zure esku dago, 2014an, Estatu espainiarraren estutasun horretan, Euskal Herriari estatu izateko bidea irekitzen laguntzea.

Hura erronka, hona lehia..., lehia ona, alegia.

Erabakitze-eskubideren alde nago

2013-06-01

Batzuentzat erabakitze-eskubidearen alde egotea autodeterminazioen bidetik atzera egitea da. Niretzat, berriz, independentziarako bidea hasia besterik ez da. Kasu honetan bezala, esan liteke edozein kontzeptu-definizio aurretiazko arazoren bati emandako erantzuna baino ez dela (François Chatelet, *Chronique des Idées Perdues*, 1981). Honela bada, erantzun motari buruz, erabakigarria gertatzen da, nork, noiz, non, zergatik eta zertarako planteatzen duen, identitatearen definizio-prozesua eragin duen interpelazioa.

XXI. mendean, norbaitek, neronek adibidez, Estatu espainiarrean erabakitze-eskubidearen alde zergatik dagoen/nagoen galdetzeak, ez du emango, adibidez, XIX. mendeko Espainietan emango zukeen diskurtso-modu berdina (Michel Foucault, *L'Ordre du discours*, 1971).

Lehen espainiar Errepublika (1873) Pi i Margallen babes federalistapean mamitu zen. Debate ideologikoaren giroak markatu zituen gai horri buruzko eztabaida politikorako ardatzak eta horiek nahiko ezberdinak dira Espainia monarkikoan

era ekidinezinean gai hau jorratzeko beharko genituzkeen aldean. Han izan ere eskuin espainolistenak agintzen baitu, non espainiar nazionalitate hautsiezinarean sakralizazio konstituzionalak zeinahi jarrera libre hasieratik bertatik baldintzatzen duen.

Horrela bada, hau bezalako galdera teoriko bati ikuspuntu filosofiko, historiko, soziologiko, juridiko, literario edota historikoen bidez erantzun dakiokenez, nahitaez bihurtzen da, orain eta hemen, arazo praktikoa eta politiko. Areago, gaurko egoeran eta auzi honen aurrean, ondoriozko erantzun mota edo/eta definizioa, orobat definitzaile bilakatzen da, bai jaulkitzen duenarentzat eta baita diskurtso guztiarentzat ere (Pierre Bourdieu, *L'identité et la représentation, éléments d'une réflexion critique dans l'idée de région*, 1980).

Honen guztiaren aurrean, eta *zergatik izan erabakitze eskubidearen aldekoa?* galderari erantzutea kontuan izanik, testuinguru honetan nahitaezkoa da erantzun praktikoa eta politikoa ematea, beraz, gaia ezin dut inola ere jorratu aurretiazko testuingurua saihestuz, izan ere, horretara bultzatzen bainaute Euskal Herriko hizkuntzan idazle izateak eta inolako eragozpenik gabeko adierazpenaskatasunaren aldeko izateak. Bihoaz, bada, lehenik eta behin nire erantzuna ulertzen lagunduko duten hainbat erreferentzia, azken batean eta lehenago esan bezala, guztiz politizatua izango da-eta nire erantzuna.

P. S. Mancinik nazioa “lurralde, jatorri, ohi-tura eta hizkuntzaren bidez elkarrekin bizitzeak eta kontzientzia sozialak eratutako gizakien gizarte natural bezala definitu zuen (“Sobre la nacionali-

dad”, 1985) eta, definizio horrek, nazionalitatea zehazteko Gizarte Zientziek erabilitako ezaugarriei elementu subjektibo bat erantsi zien, hau da, konzientzia nazionala. Horrela, bere baitan sentimendu erreferentzial eta identitario hori bereganatzen duen herria, kultura, etnia edo talde sozial bilakatzeko da, hain zuzen ere, *eskubideen* subjektu, eta beraz, lurraldez Estatu diferentziatu bihurtzeko eskubidea atxikitzen zaio.

Ildo juridiko-politiko horretan, bada, nekez ahal liteke *erabakitze eskubidearen alde* izan, sezesionismorako aukera izatea onartu gabe, zeren eta, ezein herrik ezin baitu bere buruaz libreki baliatu bortxaturik daukan Estatutik aske izatea galarazten bazaio.

Gaur agian inoiz baino areago ari da hainbat kasutan, “*ius cogens*” (eskubide hertsagarria) plebiszitu-bidetik bakezko soluzioa izatea eragozten, non herriek politikoki, autodeterminazio-errebindikazioen bidez, beren buruaz baliatzeko eskubidea planteatzen duten (Michaud, “*Droit à l’autodétermination et pouvoir politique*”, 1980).

Ildo beretik, gaurko Estatu-Nazioen Konstituzioen parterik handienek, erlazio politikoen eredu berriak ekar ditzaketen estatuen arteko egituretan (Europar Batasunean bertan adibidez) merkatu libre deitua sagaratzen dute konstituzionalki. Horrela bideraezin bihurtzen dute herriek eta nazioek beren aberastasunak eta baliabide naturalak libreki baliatzeko eskubidearen ariketa (1974ko abenduaren 12ko AG3281 Ebazpena).

Egoera horretan, bada, orain eta hemen, internazionalismoa edo nazioartekotasuna pentsaezina

da, baldin eta nazioek beren etorkizuna erabakitzekeo duten eskubidea onartzetik abiatzen ez bada (Michel Cahen, *“L’inter-nationalisme contre la mondialisation”*, 2001).

Horrela, esan bezala, politikaren greziar jatorriaren kontzeptutik abiatuta, globalizazioari gaurko koordinatuetan aurre egiteko, erabakitzekeo eskubidearen alde borrokatzea, irtenbide bakarra dela ondorioztatu behar genuke.

Zer da, orduan, *erabakitzekeo eskubideren alde* egotea?

Zalantzarik gabe, erreferentzia komunitario eta identitarioen ideologiak duen garrantziaren kontzientzia izatea, truke desorekatuaren mundializazioari alternatiba politikoak formulatzeko.

Beren etorkizuna libreki erabakitzea lortzen ahalegintzen diren herrien erabakimen-kolektiboaren prozesuak balaztatzeko, “ius cogens” bereizkuntzarik gabe administratzearen aurrean ez etsitzea.

Horra inter-nazionalista edo nazioartekotasuna izateko era koherente bakarra.

Anti-inperialista izatea.

Demokrata izatea.

Gizaki arruntaren itxaropena piztu zenekoaren izenaz

2013-06-23

“Jende anonimoaren memoria laudatzea askoz zailagoa izaten da ospetsuen gorespena egitea baino”, hala zioen Walter Benjaminek eta, ildo beretik, diot nik, duela bi urte Euskal Herrian etsipenetik irteteko bildu zen izengabeko jende-andana gogoratzea ere ez da uxterra izanen.

Duela bi urte, artean izengabea zen Euskal Herriko itxaropen politikoaren izaera.

Duela bi urte arte, Euskal Herriko politikan, erreketeeek, hamaika izendapen eduki arren, ezin izan baitzioten jazarpenari alde egin, behar adinako arrakastarik erdietsi ez zutelako. Baina “Euskal Herria Bildu” izenak eskuartzea eta itzala eman zizkien itxaropen-eskaera zapuztu haiei.

Eta ahurka, aldraka, ausarkian, burrustan, eurrez, galanki, gogotik, jori eta naro, oparo eta ugari, uholdeka, nahi ahala eta adarka piztu eta poztu zen esperantza Euskal Herriko jende anonimoaren artean... eta hori gogoratu beharra dago, baita goratu ere, jakina, zeren nostalgia, berez, itxaropenaren bertsio bat besterik ez dena, amandaondo lorea bezainbat, lilitzen baita negua amil-
du ahala.

Izen batzuetan gizakiok ez baitugu gogoia soilik jartzen, arnasa baizik, eta izen horiek, jendeak errepikatzen dituenen, biderkatu egiten baitira eta esperantza bihurtzen.

Izen horietariko bat da “Euskal Herria Bildu”.

Euskaldunok esna egiten dugun ametsa.

Euskal jendartearen euskarria.

Gure aldarrikapenen elikagarria.

Despotismoaren eta nahi eta ezinaren aurkako zina.

Negu ilunetiko bidexkatik aitzina sumatu genuen egunsentiko haize fin hozkirria, udaberriaren seinale.

Uzta aurreko izendapen itxaropentsua.

Euskal Herria Bildu.

Herriminetik sortutako indarra.

Euskal Herria Bildu.

Nahimena.

Erakarpina.

Etsimenduari aurre egiteko Euskal Herria Bildu.

Duela bi urtetik honako jarraibide-eredu politikoa.

Adoregabetuei kitzikaduraren ardura itzuli ziena.

Euskal Herriaren Beldurra Euskal Herritarron Bildura izatea ekarri zuena.

Danteren infernuko atean zegoen aginduari zutik bezain zainart ihardesteko izena.

Euskal Herria Bildu.

Hautsik harrotzen ez duen borondate lasaia.

Deserria amaiarazi nahi duen hazia.

Beraz, esperantzaren alderantzizkoa den oroimenetik, gaur esan dezakegu:

Euskal Herria Bildu.

Euskal Herriko gizaki arruntaren itxaropena piztu zuena, putzutik ateratzean dorre bihurtzeko jaio zen ekimena, badena, badagoena, bagarena...

Irakasle ezjakina

2013-07-05

Horrelako izenburua zeraman Jacques Rancière irakasleak XVIII. mendeko Jacotot maisuari buruz idatzitako monografiak. Eta aipatzen dut egun bizi dugun mundua ulertzeko (eta kritikatzeko) baliagarria izan daitekeelako. Izan ere, Althusserren ikasle izanda eta marxismoan hezita, Rangerrek autokritika sakon bat egin behar izan zuen munduan suertatzen ari ziren aldaketez jabetu ahal izateko eta, horretarako, J. Jacotot irakasle iraultzailearen jarduna ikertzeak izugarri lagundu zion.

Ohartu gabe, Mundua ulerrarazteko erabiltzen ditugun ideiak ez baitira gureak, ikasitakoak baizik, eta gure begirada baldintzatzen duen "ideologia" hori Rangerrek Althusseren bidez ikasi zue-
nez, bera ere kutsatua zegoela deliberatu zuen, baita munduari erreparatzeko beste begirada bat behar zuela ere. Bide horretan aurkitu zuen, nonbait, Jacototen laguntza: adituen salaketa nahiz berdintasunaren erabateko aldarrikapena.

Ziur aski egungoa ez zatekeen ulergarria izango Biblia edo Marxen Kapitela izan gabe, zeren eta testu horiek irakurri ez dituztenak ere "ideologiza-

tuta” daude haien eraginez. “Napoleon kodea” de-ritzona izango litzateke abagunea albora ezinezko beste ekarpen bat ulertzeko, zeinak, inork gutxi irakurri arren, gizarte modernoan gauzatzen diren harremanak zeharo moldatu zituen. Bertan bildu zen Zuzenbide Zibilean, Erdi Aroko eskubide ezberdinen ohitura gainditu zuen gizaki guztion berdintasunaren aldarria. Horri heldu zion Rangerrek bere aukera berria zabaltzen hasteko: gizarte-bizitzaren errotikako demokraziaren alde borrokatzen hasteko.

J. Jacotot irakasleak ez zuen onartu nahi izan bere ikasleek baino gehiago zekienik eta berdintasunean oinarritu zuen bere eskola. Alderdiek eta abangoardiek, berriz, jakintzaren hierarkia dela medio, gizarte-banaketa ez-demokratikoari eutsi egiten diote, Rancièrren ustez, eta, beraz, ez dira gai izango mundua eraldatzeko.

Zein da bidea, ordea?

Rancièrrek ez du maite Gizarte Zientzien eragina politikagintzan, aitzitik, herri xehearen jakintza eta protagonismoa goraipatzen ditu eta, hori azaltzeko, “Demokraziari gorroto” eta “Desadostasuna” izeneko liburuak plazaratu ditu.

Bere praktiketan, aldiz, gizarte polizialaren kontra aritzen da eta, Frantziako Iraultzaren has-tapenetan bezala, erabateko demokraziaren bila dabil.

Egun, ustez demokratik diren sistema politikoak, ordezkapen-sistema oligarkikoak besterik ez direla uste du eta, haien aurka borrokatzeko funtsezko bidea, jakina, poliziaren agintearen aurka, giza eskubideen defentsan aritzea dela, antza,

“ideologiko” bezain faltsutzat jo izan den gizakien arteko berdintasunaren aldarrikapena izan baitaiteke egun, iraultza-garaietan bezain beste bestalde, gizartea aldatzeko modu emankorra...

Hona hemen, abangoardiarik gabe suertatzen ari diren “arabiar iraultzak” ulertzeko ikuspegia eta, bide batez, bertoko ispiluan gure irudikapenari so egiteko begirada ere...

Billy the Kid

2013-10-02

Franco hil ondoren atxilotu ninduen “Billy el niño” deitzen genion polizia beldurgarriak. Etxean batzuk bagenituenez – “¿quién es Fito?”, oihukatuz sartu zen gelan eta, egia esanda, besteek ezer esan ez arren, ez zidan batere graziaz egin hark bilatzen zuen hura ni nintzela jakiteak.

Trantsizioaren garaia zen, 1976an Amnistia eskatzeko ahaleginak eta bi ari ziren antolatzen espainiar estatuaren lau izkinetan eta guk, presoak askatzearen alde, kartzela-ihesa burutu berri genuen Segoviatik hanka egiteko, baina harrapatu egin gintuzten..., harrapatu egin ninduen hark.

Itaunketen istorioaren gorabeherak ez ditut orain kontatuko ez baitu merezi.

Dakienak badaki eta ez dakienak ere bai, jakin nahi ez izan arren.

Sutan jartzen zen gizona, horrela deitzeak piztietatik gizakiengana doan eboluzioa onartzeko besterik ez bada ere, Amnistiaren gaiarekin. – “Zer uste ote genuen”, zioen, “Frankismoa bukatzen ari zela edo”... eta nik, zer esango?, ahalik eta gutxien, noski, zeren, badakizue, “esaten duzun dena zure kontra erabil daitekeen zerbait bihurtzen da-eta”.

Halere ez nuen uste nik, urteak pasatu ondoren, guk borrokatutako Amnistiaz baliatuko zela basanimalia hura, niri bezala beste askori orduan emandako tratuatik beraren aurka jarritako salaketak gainditzeko. Bueno, Auzitegi Nazionalak dio oraindik “ikertzen ari direla” eta, beraz, ezin dutela atxilotu.

Atxilotu dituzte, ordea, “Herrirako” lagunak, Auzitegi Nazional espainiarrera deklaratzera joateko aukerarik eman gabe, “Gestoras pro Amnistia-
ren” jarraitzaileak izateagatik, hitz egin baino gehiago zaunka egiten duen Barne ministroaren esantzan (eboluzioa ez da beti behar bezala gauzatzen).

Baina Trantsizioa bai, gauzatu zen, frankistak guk borroka bidez lortutako Amnistiaz baliatu ahal izateko, besteak beste.

Frankismoak berak ere eboluzionatu egin du. Orain, bistan da, demokratik omen dira orduko faxistak. Eta demokrazia eta amnistia eskatzeagatik jazartuak izan ginenok, igual segitzen dugu, lehen bezain ezeztatuta gaude, ez baitugu, nonbait, behar bezala eboluzionatu espainiar bilakatzeko.

Frankismo eboluzionatua baita indar errepre-
sibo guztiak batera giza eskubideen defentsan aritzen direnen aurka erabiltzea.

Frankismo hutsa delako herri-ordezkeriak nahita jipoitzea (besarkada bat hemendik Amalur Mendizabal senatari txit goren horri).

Frankismoarekiko kolaborazionismoa da espainiar gobernuak daraman bortizkeriari men egitea eta, okerragoa dena, duela bi urte garaitua izan gabe armak utzi dituen ETA erakundearen agiri batekin parekatzea.

Bortxa alde batetik. Hitza bestetik.

Zuzenbide Estatua Giza Eskubideetatik bereizita.

Horrela zen frankismoaren muina eta horrela da, egun, frankismo eboluzionatua.

“Billy el niño” ezagutu genuenok “Billy the Kid” filma ikusita genuen, baita John Forden “Stagecoach” (Diligentzia) deritzana ere, non bidaian doan jende talde batek, suertatu zitzaizkien arriskuaren eta bortizkeriaren aurrean nahiago izan zuten, beren interesak babesteagatik, arerioarekin bat egitea, berekin zihoan eta duintasun aski zeukan fama txarreko neskatila alboratuz eta zapalduz.

Guy de Maupassanten ipuin batean oinarrituta dago filma eta badu beste bertsio bat frantsesez, “Mademoiselle Fifi” izenekoa (1944), zeinetan agerian geratzen den Frantzia okupatuan jende printzipalak izandako kolaborazionismoa. Haien laguntzarik gabe, jakina, naziak ezin izango zituzten frantsesak menderatu.

Frankismoaren nazismoak kolaborazionismoagatik irauten du. “Billy el niño” kalean harro eta “Gestoras pro Amnistiaren” egungo jarraitzaileak atxilo, eta nola...?

dakienak badaki eta ez dakienak ere bai.

Justizia interditaren erresuman bizi gara.

Quousque tandem?

Egunsenti Urrekara

2013-10-07

“Cara al Sol” abesten zuten falangistek “que en España empieza a amanecer”, Estatu kolpeak irekitako egunsenti urrekaran ustea jarria zutelako.

Berriki, halere, “Egunsenti Urrekara” izeneko alderdi neonazi greziarraren buruzagiak espetxera bidali zituen hango epaile batek.

Egia da sei diputatutatik hiru aske utzi dituela epaileak eta ebazpena ez dela Grezian oso ongi hartua izan, baina neonazien kontra irekitako bidean horrek ez du bestelako ondoriorik eduki, bistan da. Ildo horretatik, Justizia ministroak ere dimisioa emango zuela uste zen baina ez da, nonbait, horrelakorik gertatutako. Greziako faxistentzat, beraz, garaitza izan da gertatutakoa.

«Ez dugu amore emango!. Hilobitik ere zutituko gara!», oihukatu zuten harro.

Poliziak hartutako sinbolo eta armen artean, Espainiako bandera frankista bat atzeman zioten. Diada egunean Kataluniako Madrilgo egoitza eraso zutenean erabilitakoaren berdina.

Madriken, ordea, ez dute alderdi faxista espainiarrak legez kanpo uzteko borondaterik... espainiarrak direlako eta, finean, Espainian oraindik

faxistek indar politiko handia dutelako. Madril izango da ziur aski, Europako hiriburu guztien artean, Hitlerren estatua txikiak legez erosteko aukera ematen duen bakarra.

Espanian legez kanpo uzten dituzte herri-kontsultak, berdin Igeldon edo Bartzelonan, Araban edota Gironan. Giza eskubideen aldeko elkarre euskaldunak ere debekatzen dituzte eta espainiar iritzi publikoa ez da asaldatzen, baina, espainiar ez izatea helburu duen alderdi oro, berriz, legearekin zigortzen dute.

Duela urte batzuk Georges Kaminis, Atenaseko Unibertsitateko zuzenbide-irakaslea ezagutzea suertatu zitzaidan eta baita berak egindako Tesi Doktorala ere “La transition constitutionnelle en Grèce et en Espagne”. Liburu gisa argitaratu zuen Frantzia duela jada hogeitun urte (Librairie générale de droit et de jurisprudence. 1993) “Paul Deschanel” izeneko saria eskuratuz. Interesgarria iruditu zitzaidan eta horri buruzko iruzkina egin nuen *Ezpala* aldizkarian (18/98 sumarioagatik itxi behar izan zuen teoria politikoaren aldizkaria).

Tesiaren funtsa Espainiaren eta Greziaren arteko erkaketa egitea zen. Bien Trantsizioa alderatzea, alegia. Frankismotik nahiz Koronelen Erregimenetik antolaketa konstituzionalera igarotzeko eginiko bideak konparatzea.

Bietan, bistan da, “demokrazia zaindua bezain saindua” eraiki behar izan zuten tokian tokiko arazo nazionalak gainditzeko eta, ildo beretik, indarrez zetorren ezker politikoa gune erabakitzailetik baztertzeko. Bide horretan, jakina, AEBen tutoretza funtsekoa suertatu zen.

Ondorioa denok ezagutzen dugu: Espainian nahiz Grezian. Kapitalismoak kolonizatutako ekonomiak dira, krisi gorrian daudenak eta, ondorioz, langabezi tasa izugarri handiak (egitura-ezaugarriek lan-merkatua mehatxatzeko garaiaren araberrako gorabeherak dauzkatenak).

Gauza jakina da bi estatuetan neoliberalak agintzen dutela. Baina neonaziek bezala, egungo agintariak ez dute “neo”tik ezer. Betikoak dira, neonazi deritzenek “berrikuntza” gutxi duten moduan, aurretik aski ezagun ditugun naziak diren moduan, dira haiek ere liberalak, ultrak alegia.

Ultraliberalak, ultra hutsak.

Politikari Naziak.

Espainian eta Grezian.

Bakuko Bakea

2013-11-04

Horrelakoa da bizitza. Aurreko batean izugarria suertatu zitzaidan. Atzerriko herrialde bateko hiriburuan paseoan nembilen asteburuan eta, hara non, aipatu nazio horren itzeleko bandera baten inguruan jendea pilatzen hasi zela konturatu nintzen. Bandera eta masta, esan bezala, ikaragarriak ziren. Oihala soilik, nonbait, hamar tonakoa, eta masta, berriz, nekez neur daitekeen horietakoa.

Jendea biltzen ari zenez zer gertatzen ote zen galdetzen ausartu nintzen eta, hangoek, bertan, “biktimak” elkartu zirela azaldu zidaten. Zer-nolako biktimak ziren zehazteko saiatu nintzen galdera gehiago luzatzen, eta haiiek, era asalduan, separatismo armatuak eragindako biktimak zirela arrapostu egin zidaten. Beren iritziz, nazioko lurraldearen parte batean piztutako gatazka zela medio, hildako asko egoteaz gain, independentzia borrokatzen zen eskualde horretatik irtetera behartuak izan ziren eta hori agerrarazi nahi zuten beren lurra eta bizitza babesteko gauza izan ez zen gobernuak jakin zezan.

Jende hitsa, multzo handia metatu zen hiriburuararen erdian eta, adierazitakoaren arabera, ez omen zen lehen aldia eta ez omen zen azkena ere

izango, mota horretako bateratzearekin mendekua-
ren gosea asetzeko baliatzen baitziren. Alde batetik,
beren gobernuaren alde zeuden eta, halaber, gober-
nuaren kontra, hark traizioa egin zielakoan... eta,
jakina, ez zuten bakerik nahi apendua hartu baizik.

Entzun nuen Madrilen horrelako zerbait ere
gertatu zela.

Niri, berriz, Azerbaijango Bakun gertatu zi-
tzaidan hori.

Azerbaijango parte bat (Nagorno Karabaj ize-
nekoa) armeniarrek aldarrikatu dute aspaldidanik
eta, haien borroka armatua dela bide, azeriar askok
aldatu behar izan dute beren bizitokia Nagornoko
lur-sailak armeniarren esku utzita.

Azerbaijanen “demokrazia” omen dago. Duela
gutxi izan dira hauteskundeak eta betiko alderdiak
irabazi du aise. Beti bezala modu susmagarrian.
Izan ere, bertan dagoen ustelkeria hain da nabar-
mena, herriaren atxikimendua bermatzeko Nagor-
no bezalako erreferentziak albora ezin bihurtu dire-
la nazioaren trinkotasunari heltzeko.

Horregatik antolatzen dituzte biktimen elka-
rretaratzeak egun batean bai eta bestean ere bai,
etengabe.

Hura dela medio omentzen dute beren ban-
dera erraldoia..., munduan dagoen handiena, ber-
tan diotenaren arabera.

Biktimak behar dituzte biktima izaten jarrai-
tzeko eta, bide batez, hango herria egoera politiza-
tu ustelaz ahantzazteko.

Azerbaijango hori, ordea, ez da Asiaren erdial-
dean soilik suertatzen.

Entzun dut Madrilen horrelako zerbait ere
gertatu izan dela.

On Tankredo

2013–11–11

Espainiako Sozialistek (izenez behintzat hala baitira) beren barne-bilkura bukatzean “nos somos iguales!” oihukatu dute. Eskuineko PPrekin desberdindu beharrak, esanahi handia du berez, esanahi handia baina hura mezu nagusi bihurtzeak zer-nolako identitate-krisian dauden adierazten du gardenki.

Espainiako Sozialistei gertatzen zaiena, jakina, sozialistak baino gehiago espainiarrak direla da eta, horren ondorioz, hemendik aurrera, nonbait, politikan ezker aldera joan nahi badute ere, politika egiteko espainiar estiloa hain daukate berezkotzat, ezen, batere mugitu gabe geratuko direla nabarmentzen.

Izan ere, politika egiteko espainiar estiloa On Tankredorena da. Ez mugitzea, alegia. Jose Bergamín zenak azaldu zigun hori hiru entsegutan: El arte de birlibirloque; La estatua de Don Tancredo eta El mundo por montera (Santiago de Chile; Madrid: Cruz del Sur, 1961).

Arriskuaren aurrean zutik eta irmo geratzea, zipitzik mugitu gabe irautea da, hala toreroak nola On Tankredok berak hautatu ohi duten jitea. Es-

painiar tankerako kemena hor laburbiltzen baita, mugimendurik ez egiten.

Tancredo Lopez igeltsero zezenzale amorratua jotzen dute aipatu jarrera horren aitzindari-zat. Zezena askatzen dutenean On Tankredo ez da higitzen. Piztia korrika eta amorruz etorri arren, Tankredori bost axola, edo axola ez zaionaren planta erakutsi behar du behinik behin. Horixe da espaniar nazio festazalearentzat balorearen erakus-garririk gorena: plantoaren planta egitea.

Hala eta guztiz ere, zabaldu ohi denaren aurka, ez omen zuen aipatutako Tancredo Lopez horrek On Tankredorena asmatu. Berak Espainian zehar hedatu aurretik antzeko ikuskizunak egiten bide ziren Ameriketara eta behin, Lopez jauna Kubako Habanan zegoela, mexikar bat ikusi zuen halakoak burutzen. Ikusitakoarekin erabat txundituta, metropolira ekarri nahi izan zuen ikuskizuna eta, kosta ahala kosta, zezen-plazan bere adorea jende guztiaren aurrean erakutsi.

Baita lortu ere, alajaina. Denbora gutxian zezenketa gehienetan joan zen agertzen On Tankredo izeneko bat edo beste, azkenean, toki guztietara zabaldu zen arte.

Historian kontatzen ez dena hauxe da: Lopez jaunak Habanako zezen-plazan ikusi zuen mexikarra zezenak hil zuela eta baita Tancredo bera ere Espainian, On Tankredorena egiten ari zela, zezen batek akabatu zuela alegia.

Kontuz Lopez Jauna...

Pellokeriak

2013-11-18

HERBEHERETARren artean zabaldutako eztabaida omen da Eguberrietako opariak banatzera doan San Nikolasen laguntzailearen irudiarena. Hango Olentzero da Nikolas hura eta, tradizioak dioenez, Turkiako Anatoliatik Espainian barna egungo Holandako Erresumara doa haur guztien etxeetara.

Bere lana burutu ahal izateko, ordea, laguntzaileak dauzka, morroiak alegia, Zwarte Piet izenekoak (Pello beltzak) eta, denak bat eginik, Gabonetako kalejiretan ibiltzen dira Herbehereetako herrietan kalez kale.

Morroiak bertakoak izaten dira baina beltzen itxuraz mozorrotzen dira azala tinduz ilunduz eta ileorde kizkurrez hornituz (hemengo Baltasar erregearen antzera...).

Jarrera hori arrazista delakoan, Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Aholkulari Gorenak erabaki beharko du aurten ohiko martxak nola egin behar diren.

Horren aurrean oldartu da Geert Wilders, herbeheretarren buruzagi eskuindarra, zeinak bertako tradizioen aurka kanpoko esku-hartzerik ez

duela onartuko zabaldu duen. Polemika hor dago, beraz. Batzuentzat Zwarte Piet deitutakoa kolonialismoaren irudi gaiztoa besterik ez den bitartean, besteentzat Eguberrietako betiko tradizioa da soilik.

Pello horren istorioarekin, gainera, “politikoki zuzena” den mintzaira salatu nahi dute. Hori dela eta, herri-kultura mehatxatua baitago, haien ustez.

Zwarte Pieten kontra aritzea herbeheretarren izaeraren kontra ere jotzea dela argudiatzen du eskuinak.

Ene aburuz herbeheretarren izaeran ez da sartzen, berez, kolonialista izatea, historikoki halaxe izan badira ere..., baina, egia esanda, “politikoki zuzena” den mintzaira erabiltzeak bakarrik ezin ditu errealitatearen alde zikinak aldatu eta garbitu.

Egun hauetako berria ere izan da, Israelgo Estatuko etorkinei buruzko azken legeak, inolako epaiketarik gabe, urtebeteko espetxealdia ezartzea baimentzen duela.

Kolonialismo guztiak ez dira historikoak eta ez daude tradiziozko irudiekin lotuak, baina “politikoki zuzena” den mintzairak ez digu gauzak diren bezala adierazten uzten eta “pellokerietan” galtzen gara.

Halere, kontuz pellokeriekin, izaera eta tradizioa besteen arketipoen aurka eraiki behar izaten denean, ezin baita esan hitz-jario eskuindarra oso urruti dabilenik.

Kennedyren hilketa susmopean

2013-11-22

Nork hil zuen Kennedy? Hedabideen agenda baldintzatzen duten efemerideek horri buruz hitz egitera (eta idaztera ...) behartzen bagaituzte ere, nork hil zuen Issac Rabin? edo nork hil zuen Gandhi? edo Anwar el Sadat? edota nork hil zuen Martin Luther King? esan genezake egun Kennedyren hilketaren harira aipatutako kasu guztietan, egiletza susmopean egon dagoela.

Issac Rabin, adibidez, Igal Amir izeneko soldadu-ohi batek hil zuen. Israelgo sionismoak, teoriar erlijioaren eta estatuaren arteko bereizketa onartu arren, Torah ikasteko armadara joan beharrik ez izatea ahalbidetzen du. Ondorioz, Amir horrek, "yeshiva hesder" batean, hau da mintegi militarrean egin zuen bere soldadutza elite taldeetara pasatu arte. Bere anaiak, Haggai Amir goi-mailako tiratzaileak, Rabin hiltzeko erabili zituen bala bereziak prestatu zizkion.

Ez zuen, beraz, Issac Rabin palestinar batek hil, Israelgo armadan hezitako judu ortodoxo batek baizik.

Egiptoar armadako soldaduek, bestalde, Anwar el Sadat, bakezale arabiarra hil zuten modu

berean, bakea sinatzeko zegoen Camp David-eko hitzarmena paper erre bihurtuz.

Ez al da aski susmagarria?

Beno..., Kennedyrena edo Gandhirena izan daitezkeen bezala zeren eta AEBetan, Kennedy gabe ere, azalaren koloreari muzin eginez denentzako herritar eskubideak erdietsi ziren eta Gandhik ikusi ez bazuen ere, Indiak independentzia eskuratu zuen, baina Israelen, oster, Rabinen hilketatuz geroztik bakearen aldeko alderdiek hauteskundeak galdu dituzte etengabe eta odolaren jarioak hor irauten du.

Arazoa da susmo guztiak, bidezkoak izan arren, nolabait esanda, “susmagarriak” ere badirela. Hau da, sinesmen erlijiosotik askatu gabe dauden pentsamenduek, gertaera guztien atzean “konspirazioaren” bat badagoela ikusteko joera dutela. Eta hori “sasi-frogatzea” ez da horren zaila. Hona hemen, Kennedy aitzakia, mota horretarako saiakeratxo bat:

Adibide ezagun bihurtu zaizkigu, esate baterako, Abraham Lincolnen eta John F. Kennedyren arteko aldiberekotasunak edo bat etortze liluragarriak:

Lincoln 1846an hautatua izan zen Kongresurako.

Kennedy 1946an izan zen aukeratua Kongresurako.

Lincoln 1860tik aurrera izan zen Presidente.

Kennedy 1960tik izan zen Presidente.

Biek giza eskubideen alde lan egin zuten.

Biek beren haurrak galdu zituzten, Etxe Zurian zeudela.

Biek ostiralez hil zituzten.

Biek buruan tiroa emanda.

Lincolnen idazkariak Kennedy zuen abizena.

Kennedyren idazkariak Lincoln zuen deitura.

Hegoaldekoak izan ziren bien hiltzaileak.

Hegoaldekoak izan ziren bien ordezkooak.

Biak deitura berekoak: Johnson.

Lincolnen ordezkooa, Andrew Johnson, 1808an jaio zen.

Kennedyren ordezkooa, Lindon Johnson, 1908an jaioa zen.

Lincolnen hiltzailea, J. W. Booth, 1839an jaio zen.

Kennedyren hiltzailea, L. H. Oswald, 1939 jaioa zen.

Hiltzaile bakoitzaren izena 15 letrak osatzen dute.

Ford izeneko antzerki batean hil zuten Lincoln.

Lincoln izeneko Ford markako auto batean hil zuten Kennedy.

Booth eta Oswald epaiketara joan aurretik hil zituzten.

Hil baino astebete lehenago:

Lincoln, Monroen, Marilanden egon zen.

Kennedy, Marilyn Monroerekin egon zen...

Nahi izan ezkeru, istorio honetan bezala, koa-dratzen dira bertsoak, poemak, gidoiak, hedabi-deetako berriak eta kalkulu-orriak, balantzeak nahiz gurutzegramak...

Isasi lagunari sarri esan ohi diot: "Bizitza palindromoa da".

Martutene

2013-12-04

Batzuentzat, oroimenean, Donostiako auzo bat besterik ez da izango Martutene.

Haietariko batek, dudarik gabe, eleberria ere idatz dezake horri buruz bertan Kartzela dagoenik aipatu gabe. Horrela idatzi ohi da historia. Horrela gure literatura.

Gaurko egun malapartatu honetan, nire aspaldiko adiskide Jon Artolari Martuteneko kartzelarako bidaia egiten lagundu beharko diot. Egiatik Martutenera, kilometro gutxi eta maldan behera, baina Dantek deskribatu zuen moduko jaitsiera, halere. Bizitzatik infernura.

Eta laster, Axun, bere (gure) laguna bide bere-tik joango da berriro ere.

Gure auzotik alde egin behar izan zuen bikoteak laurogeigarren hamarkadan poliziarengandik ihesi. Orduetik hona, erbestea, kartzela Mexikon, kartzela Espainian eta orain, berriz, Martuteneko kartzelara.

Orduko bi gazte langile haiek ofizioa utzi eta oraingo sasi-langabeziara itzuli dira bizkar gainean hogeita hamabost urte gehiago dituztela. Martuteneko kartzelara.

«Martutene» (Erein) eleberriaz asko idatzi da aurten. Ez da idatzi, ordea, Espainiako Sari Nazionala eskuratzeko zorian egon zela azken unera arte eta, azken bozketa, gutxigatik galdu omen zuela. Ramon Saizarbitoriak, “borondate onez” idatzitako eleberria dela esan zuen euskarazko literatura-ataleko saria jasotzean. “Miopea naiz baina irudipena dut ideologia oso ezberdineko irakurleek errespetuz onartu dutela ‘Martutene’. Eta gogoan nuen esateko, esperantza piztu baitit, gure historia gertukoaren kontakizuna adostuko dugun eguna ez dagoela urrun. Esan dezadan bide batez, sinistuta nagoela euskal narratibak paper garrantzitsua jokatu behar duela eginkizun horretan”.

Arestian esan bezala, ez nago ni horrekin konforme. Aitzitik, ez dut uste inolako kontsentsurik lor daitekeenik aurretik aipatutako “errelatoaren” bertsio desberdinak zabaltzeko aukera-berdintasunik ezean.

Saizarbitoriaren eleberria, ene aburuz, nobela dugu zentzu hertsian, hau da errelato burgesa da, non Donostiako jende printzipalaren deskribzioa egiten den inolako ikuspegi kritikorik gabe. Areago, hor datza, ene ustean, bere balio literario gorena. Ez duela funtsezko kritika ideologikorik egiten kontakizunen bidez (kanpoko ikusle batek eraginda ...), bizipenak azaltzeko gai dela baizik. Baina, ildo horretan, berak kontrakoa aldarrikatu arren, hor ez dago, esan bezala, ez kritikarik ez eta “errelatoaren kontsentsurako” inolako ekarpenik. Burgesia donostiarraren mintzoa da, soilik. Euskal Herriko gertuko historian eragileen alde bateko (eta bi baino gehiago badaude, egon ...) ikuspegia

eta hitz-jarioa. Aski, eta ez da gutxi, BAINA ez da dena.

Nik haxe idazten dut hura irakurri ondoren, jakina.

Ez dut uste, ordea, Jonek eta Axunek literatura hori leitzeko gogo handirik izango dutenik hemendik aurrera denbora sobera eduki arren...

Aberria negozio

2013-12-13

“Dena onartu genuela uste izan arren hau zarrastelkeria lotsagarria dela salatu behar dut”.

Nor ari da?, zertaz?...

Ustelkeriaz asko dakien bat da e-mail honen idazlea, Rafael Spottorno, Espainiako Errege Etxearen egungo burua da, Fundacion Caja Madrileko zuzendari zena, hau izkiriatu zuenean (2009an).

Orduan kutxa horren buru zen Miguel Blesak egindakoaz ari zen.

Zer egin zuen, ordea, bankeroak?, “Fundación dos de mayo, Nación y Libertad” izenekoei justifikatzerik ez zegoen dirutza eman (10 milioi euro) El Mundo, ABC eta Esperanza Agirrereren Madrilgo Gobernuari “Espainiaren independentziaren bigarren urteurrena” ospatzeko.

Eta hori guztia, militar bati, Espainiako Errege Etxearen egungo buruari, “onartu ezinezko zarrastelkeria” iruditu zitzaion!

Edozein modutara, bigarren mendeurrenaren harira, Donostian, Gasteizen ez bezala, bi izan dira ospakizunetarako kontrajarri izan diren ereduak.

Alde batetik “Independentzia gerren” inguruko diskurtsoa dugu. Horrek, gertaera historikoak

Espainiako Independentzia gerraren azpian eta ikuspegi militar batetik aztertu eta gogoratu nahi izan du ordukoa. Ikuskera hori lehenetsi dute noski Madrilen, Gasteizko “ospakizunetan” eta Donostiakoetan ere azaldu da.

Beste aldetik “Napoleonen gerrak” ikertu dira (Europa osoan erabiltzen den terminologiarekin batera esanda baina espainiarra izan ohi dena baztertuz) planteamendu belikoen gainetik biztanleriari kasu eginez. Planteamendu hori “Donostia Sutan” izeneko elkarteak sakondu du eta Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan ere landu da.

Izan ere, Donostiako Udalak “1813/2013 Donostia eraikitzen” Batzordearen bidez jakin izan du bide bakoitzari bere aukera ematen.

Napoleonen garaiko gerrak eta 1813ko Donostiako suntsiketa ulertzeko, bigarren mendeurrena izan delarik, Donostiako historia lokala egin izan da gehienez ere, hau da, eskainitako ia dena Donostiako erreketa izan da, birrinketaz eta abar izan arren, ez da biztanleriaren parte-hartzea alboratu, bultzatu baizik. Horrela, elkarte gastronomikoak, danborradak, herri-antzerki taldeak eta beste motatako kolektiboen ekarpenak (idazleak, artistak, historialariak, etab ...) aintzakotzat hartu dira urte osorako prestatutako egitarauan nori bere espazioa emanez.

Orduko osagarri horiek, ordea, ez dira betegarri militarrik edo estrategikoak soilik izan, baizik eta berenganatze horretan, modu konplexuan hartu dira, puzzle baten antzera, oso ikuspegi kontrajarriak, ondorio politiko ezberdinak eman di-

tuztenak, jakina, nahiz eta denak ez egon kanpoko eragin berdintsupean.

Orain, gurean, errelatoaz hitz egiten denean, Euskal Herrian egin behar dugun kontakizuna ulertzeko, noski, errelato hori ezin da ikuspegi laburreko kondaira moduan aldarrikatu, ezta gaiaz motzean planteatu ere, ez eta horrekin batera, azken urteetako kontakizunaz soilik aritu.

Ez noski, guk gure historia idazten jakin behar dugunez, gure kronikak idazten jakin behar dugun hein berean, eta horretarako, jakina, berrirakurri egin behar da orain arte gure historiaz idatzitakoa, hipotesi berriak zabaldu eta polemikak ireki eta, eztabaidatu ondoren, ebatzi edota iritsi gure historia behar bezala ulerraraztera. Duela berrogei urtekoa edo bi mendekoa izan.

Kasu horretan, ikusiko dugun moduan, Donostia erretzeaz historia egitea planteatu izan denean, espainiar historiografiak “Independentzia Gerraz” hitz egin ohi du, ustez Espainiako Independentzia deitutako Gerra, Donostian gertatutakoa ulertzeko ezinbesteko testuinguru dela aldarrikatuz.

Baina bertan izan zena, ordea, inperioen arteko borroka bat izan zen. Eta inperioen arteko borroka horren ondorioz, beste independentzia batzuk sortu baziren ere, adibidez, 1813an Bolivar sartu zen Caracasen, garai bertsuan. Hidalgo borrokan ari zen Mexikon, Paraguaik lortu zuen bere independentzia eta Mar de la Platan hasi ziren borrokaldiak gero, Argentinaren independentzia ekarriko zutenak hain zuzen ere. Euskal Herriak behintzat ez zuen orduan independentzia eskura-

tu, ez eta Espainiak berea galdu. Orduan, zergatik independentzia gerra izenaz bataiatu?...

Batzuentzat Aberria negozio delako. Madrilgo Gobernuarentzat, edo “El Mundo” egunkariarentzat edota ABCrentzat Espainiaren ustezko independentziaren aldarrikapenarekin batera dirutza eskuratzeko bidea baldin badago. Inon justifikatu beharrik ez dagoen ustelkeria galanta.

Eta hau ez dut nik bakarrik idazten, espainiar aberria defendatzen batere susmagarri ez den Rafael Spottorno, Espainiako Errege Etxearen egungo buruak baizik.

Bistan da, bakar batzuen irabazkinei espainiar abertzaletasuna deitzen dietenean, hobe da nazio horretatik ahalik eta urrutien bizitzea.

Loro-mokoak

2013-12-23

Txillardegi zenak, Antigua auzoaren eta Donostiako Kontxako hondartzaren artean dagoen “Loretope” leku-izena nola “pico del loro” bihurtu zen (zuten) erakutsi zigun aspaldi.

Hizkuntza menderatuak, kolonizazioa dela medio, horrelakoak pairatu behar izaten ditu: desitxuraketa, esanahiaz aldatu beharra eta, guztien gainetik, iraunkortasunik eza.

Izan ere, hizkuntzaren ukipen-egoera diglo-sikoetan, mintzairak gorde ohi duen herri-go-goaren galera izaten da mendekotasunak dakarren ondorio nabarmena.

Hizkuntza gutxituak, beraz, ondoan eta gainean duen hizkuntzaren imitazioa hobesten du berezkoaren kaltetan. Horrela, gutxiagotze-bidean dagoen mintzairaren hiztunak loro-moko bihurtzen ditu kultur kolonizazioak. Loritoen antzera ibili behar izateak, berriz, gogoeta propiorako gaitasuna baztertzea dakar eta jarrera hori hain da agerikoa, ezen gehienetan edonor lotsarazten duela, tximinoen modura portatzeko jarrera imitatzailea dela eta entzulea horretaz konturatu egiten dela.

Kanpo-lotsa eragin du, adibidez, Donostiako kultur kontseiluan Txillardegi Liburutegiari buruz

ebatzitakoak. Inork horretaz jabetzeko behar adinako informaziorik orain arte jasotzerik izan ez bada, albistea, nagusiki, honako lekuotan azaldu da:

http://paperekoa.berria.info/plaza/2013-12-21/032/001/oposizioak_baztertu_egin_du_donostiako_liburutegiari_txillardegizena_jartzea.htm

http://www.naiz.info/eu/hemeroteca/gara/editions/gara_2013-12-21-06-00/hemeroteca_articles/donostiako-liburutegi-nagusiak-txillardegiren-izena-hartzea-baztertu-dute

<http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2013/12/21/vecinos/la-oposicion-rechaza-que-la-biblioteca-central-adopte-el-nombre-de-txillardegizena>

<http://www.diariovasco.com/20131220/local/san-sebastian/biblioteca-central-llamara-txillardegizena-201312201215.html>

<https://irutxulo.hitza.info/2013/12/20/eajkpse-ek-eta-ppk-atzera-bota-dute-donostiako-liburutegi-nagusiari-txillardegizena-jartzeko-proposamena/>

Hau da, udal-oposizio osoak baturik, nork bestearen imitazioz, loroak bezala, kolonizatzaileen hitz-jarioa errepikatuz, hala euskara bera nola euskal kultura mendekotasun-egoeratik atera nahi izan zuen intelektual donostiarrari, zegozkion toki eta oroimena ukatu egin dizkiote.

Horren antzera, aurren, 1813-2013 Bigarren Mendeurrena gogoratu denez, “Su haietatik hitz hauek” izeneko liburuxka kaleratu du Euskal Idazleen Elkarteak Donostiako Udalarekin elkar-

lanean. “Euskara, Bretxako zirrikitutik arnasbide berrietara” azpitulua du aipatu liburuak eta, nago, hastapenetik bertatik ez ote garen ahazten ari euskarazko hitzen jatorriak zeintzuk diren. Testuak “joxemaritarrak” eta “koxkeroak” bereizten ditu 6. orriko “Donostiarron hiztegian” baina emandako azalpenen artean ez du iradokitzen “koska” euskaraz “Brecha” ere badela gazteleraz eta S. Bizente elizaren ondoren zegoen harresiari koska ireki ziotela erasotzaileen kanoiek, Donostia suntsitzeko hain zuzen ere.

Bitxia da gero!. Euskal gogoak gorde duena galtzen omen da euskara bizi berria aldarrikatuz. Koska zaharra Bretxa berri bihurtu zaigu egun.

Ondarea gorde egiten da nahiz eta era “materialgabea” izan. Hizkuntzak eusten dio.

Baina gogoan irauten du errotua dagoenak. Errotulu berria ez dute onartu nahi izan Donostiako loro-mokoek: PPK, PSEk eta EAJk?. Ez omen dute Txillardegi gogoratu ere egin nahi.

Halere, euskaldunok Txillardegi dugu gogoan eta kolonizatzaileen imitatzaileek ezin izango dute hori inola ere ezabatu.

Txillardegi pianoa jotzen

2014-01-24

Arpa jo, horrela esaten zaio norbaiti trufa egiten zaionean, baina (zer izango dugu euskaldunok musikarekin?), adarra jo ere erabili ohi da.

Halaxe sentitu naiz ni, burlatua eta dantzan jarrita alegia, “Txillardegi Udal Liburutegia” aldarrikatzeko urtarrilaren 18an burutu genuen ekitaldia prentsan islatua (era ezin traketsagoan esan dezadan, bide batez...) ikusi dudanean.

Izan ere, El Paísek, El Diario Vascok, Noticias de Gipuzkoak edota El Mundok, guztiz falsua den berria zabaldu izan dutenean: Donostiako Udala gobernatzen duen Bilduk, gainerako talde politikoen iritziari jaramonik egin gabe, Liburutegiari Txillardegiren izena eman diola. Aipatu komunikabideek bazekiten, jakin ere, izena aldatzearen ekintza baketsu bezain sinbolikoa “Txillardegi Liburutegia Ekimenak” egin zuela (bai argazkiak baita notiziaren testua igorri baitzitzaien haiei guztiei), baina Donostiako PSOEk emandako informazio okerra lehenetsi dute gezurra hedatzeko eta, argibideak erakutsi direnean, batzuek zuzendu arren (ez denek, ordea ...), ez dute onartu nahi izan hanka sartu dutenik.

Informazio okerraren iturburua PSEko Garmendia zinegotzia izendatu zuten komunikabide haiek. Berarekin elkartu nintzen ni bileran Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Dekano den Xabier Etxague berandu zetorrelako, gure aldarrikapenaren eta, ildo beretik, “Txillardegi Liburutegia Ekimena”-ren berri emateko. Beraz, nahiko datu bazituen Kultur ekimena eta Bilduko udal-taldea bereizteko, baina, alferrik, gauzak nahastuz eta haiek behar ez bezala zabalduz, garbia dena lokaztu egiten da eta horixe bera nahi omen du, kasu honetan behintzat, Donostiako PSEk.

“Txillardegi Liburutegia Ekimenak” egindako proposamenak, nonbait, aspalditik izenik ez zuen udal-liburutegirako hautagai asko sorrarazi ditu. Gurea eztabaidatu aurretik, esaterako, baten batek berriki zendutako Jean Haritxelarren izena ematea proposatu zuen (ez nekien Euskaltzainburu izan zena donostiarra zenik...), beste batek, Ramon Labayenen izendapena proposatu zuen (PPk, oker ez banago...) baina Labayen, euskaltzale bezain kultur eragile izan arren, ez dut uste liburu asko idatzi zituenik eta, ziur aski, bere izena PPk Txillardegiren aurka erabiltzea ez zukeen berak ere erraz onartuko. Orain, aldiz, UPyDk Gregorio Ordoñezentzat nahi omen du udal-liburutegia (komentariarik gabe).

–“Nik piano-katedra bat nahi dut” esan dezake baten batek.

–“Baina, aizu, zuk ez dakizu pianoa jotzen”, arrapostu egin diezaioke beste batek.

–“Berdin da, ni biktima bat naiz” ihardetsiko dio adarra jo nahi gabe gainera, ustezko piano-jotzaileak.

Herri santu honetan denak balio duela ematen du. Dena zen ETA, eta orain dena da Bildu. Liburutegi bati agrafu baten izendapena eman ahal zaio lan eskerga egin duen baina ETAREN fundatzaile izan zen idazleari ez ematearren. Zilegi da, nonbait, ETAREN kontua azaltzea beti, edota BILDURENA, gauzak ez aldatzearren betiere.

Gure Dekanoaren partez (hark asko estimatzen zuen Txillardegi), Marisol Garmendiarekin hitz egitera joan nintzenean, ETAREN aipamena erabiltzen ausartuko ote zen galdetu nion, eta berak, ezetz esan zidan. Eskerrak, zeren eta PSOE/Euskadiko Ezkerran zenbat eta kide-ohi ote dauden inork ez baitaki. Denok dakigu noski, Txillardegiren izendapenaren aurka bozkatu zuen EAJko Donostiako udal-taldean egon badagoela, ordea, halakorik.

Baina PSEk ez zuen argudio makur hori erabili Txillardegiren izendapenaren kontra bozkatzeko. Berek ez zutela udal-eraikina izen propioz izendatu nahi argudiatu zuen. Hara!, eta PSEk urtetan gobernatutako Donostian ez al dugu Ernest LLuch edota Imanol Lartzabal izeneko kultur-ekipamendurik? Arpa jo nahian bota al zuten hori?

Baina haiek “biktimak” izan ziren, esan dezakete...

Eta Txillardegi? Ez al zen tirokatua izan Alcalá hotelean, Madrilén, bere ondoan zeuden Josu Muguruza hil zutenean eta Iñaki Esnaola abokatu donostiarra larri zauritu zutenean?.

Noiz egin dio Donostiako Udalak bati zein besteari behar bezalako errekonozimendurik?

Edo biktimismoaren kontuak batzuentzat bakarrik ote dira erabilgarri?

Txillardegi, besteak beste, sekulako intelektuala izan da eta Donostiak bere izena aldarrikatu behar du dagokion tamainan. Eta horrela izan ezean, Donostia bera izango da galtzaile. Bere tokia ez emateko ez baitago argudiorik, aitzakiak baizik. Joko zikin, gezur eta guzti.

Eta horretaz gain, pianoa jotzen ere bazekien. Eta ondo, gainera.

Machiavelok eta Montesquieuk hitz egingo balute

2014-02-20

Bien arteko balizko solasaldia gauzatuko baltz, alegia, horixe izan zen Maurice Jolyk (1829-1878) idazle frantsesak Napoleon III.aren gobernua salatzeko utzi zigun liburua (*Dialogue aux enfers entre Machiavel et Montesquieu ou La politique au XIXe siècle*, Bruxelles, A. Mertens et fils).

Liburua Frantzia sartzen saiatu zen baina salatua izan zen eta Sainte-Pélagie kartzelan sartu zuten, hala Inperioen defendatzaileen onerako nola errepublika jakobinoaren aldekoen lasaitasunerako.

Izan ere, denboraren poderioz eta sasi-plagioa zela medio, “Siongo Protokoloak” bezala panfleto antisemitaren ezagun bihurtu zena, botere autoritarioaren satira bortitz bezain zabaldua izan zen. Horregatik, “gorrotoa eta gutxiespena” hedatu nahi izateagatik, kondenatua izan zen Joly eta, askatu zutenean, hilik aurkitu zuten Voltaire izeneko nasan, Parisen, 1878ko uztailearen 14an.

Liburuan, beraz, Machiavelok, Montesquieuren harridurarako, demokrazia autoritarismo nola bilaka daitekeen erakusten digu, ordezkartza-sistema aldatu gabe eta herriarekin bat eginik, gainera.

Machiaveloren orduko irakaspen haiek zer-nolako indarra duten egun begi-bistakoa da. Haren aburuz, Gobernuaren iritziek herri-ideiak ahultzea lortu behar dute iraultza posible dela ahantzaraziz. Horretarako, betidaniko hitzak nahiz aldarrikapen herrikoiak izan direnak erabiliz, Gobernuak herri-tarra denaren itxura hartuko du (gaur egun, horri populismo deitu izan ohi zaio ...) eta, zoritxarrez, jendeak ez du gehiago ezer eskatuko. Erakunde fiktizioak ere sortu ditzake Gobernuak autoritario bihurtzeko bidean, auzitegiak esaterako, inolako independentziarik ez daukaten epaitegiak, adibidez, eta, funtsean, herriak erabili ohi duen hitz-jarioaren jabetza bereganatu behar du Gobernuak.

Sasoï garaikide hauetan ez baita inor ezertara behartzen, limurtzen baizik. Ez da ezer debekatu behar gizartea eraldatzeko grina desagerraraztea baizik. Ez da ideien jazarpena egiten, ideien edukia aldatzearekin aski baita.

ETAren balizko genozidioaren ikerketa eskatu dute Espainian eta European.

Auzitegi Nazionalak tramiterako onartu du hori, nahiz-eta frankismoaren biktimak ikertu nahi izateagatik Baltasar Garzon "Prebarikazioa dela bide" (hau da, hori egiteko gai ez zela jakin arren egiten saiatzeagatik) zigortu zuen eta epaile izateko zeukan eskubidea bertan behera utzi zuen.

Beraz, Auzitegi Nazionala frankismoak eragindako genozidioa epaitzeko ez omen zen gai, baina ustezko ETAren sarraskiak ikertzeko bai, ordea.

Machiavelo, pozik. Montesquieu, berriz, zur eta lur.

ETA, mon amour

2014-03-03

Alain Resnais hil da. Bada garaia, beraz, berak ekarritakoaz mintzatzeko.

Gernika izeneko filma ikusi nuen, Resnaisek egindakoa, Iruñeko Udako Unibertsitatean euskal zinemaren barruan antolatu genituen topaketetan ikusi ere, baina, egia esan, ez dakit frantses batek egindako lana euskalduntzat hartzerik badagoen, gaia Gernikaren bonbardaketa izan arren...

Dena den, edozein tokitan eta garaitan ere, denboraren jarioak berarekin zer daraman konturatzeko oso egokia izan da zinemagile horren emaria. Are gehiago, baita Euskal Herria ulertzen laguntzeko ere.

Resnaisen aburuz, ez hizkuntza eta ez literatura, ez baldin badira aski bizierak sentiarazteko, zergatik da *Hiroshima, mon amour* izeneko nobela, ustez, filma bera bezain hunkigarria?

Alain Resnaisentzat prestatu zuen gidoia Marguerite Durasek hark eskatuta, eta pelikula egin ondoren idatzi eta kaleratu zuen izen bereko eleberri ospetsua. Ohiko bidea alderantziz egin zuen. Euskal Herria dela-eta, usuz alderantzizko bidea hartu izaten da, Interpoleko polizia-burua jendar-

meak itauntzen edo arma suntsitzaileak epailearen aurrera eramaten ikusten da, adibidez.

Hiroshimako triskantza gaitzat hartu aurretik, Gernikako bonbardaketa hartu zuen Resnaisek Picassoren irudiak eta dokumentalak nahastuz, literaturak aspaldidanik galdua duen tragediaren funtsari eutsi nahian.

Hiroshimakoa, beraz, Gernikakoa bezain euskalduna dugu, eta alderantziz, ene ustean behintzat.

Eta Resnaisen *Hiroshiman* edota *Gernikan* zer irakurtzen dut nik?

Esaterako, film osoan protagonisten izenak ez direla azaltzen, jaioterria erabiltzen dutela bata besteari deitzeko, elkar maitatzeko gauza direla, elkar ulertzea ezinezkoa suertatzen bazaie ere.

Beraz, gauza bat maitagarria edo gustagarria izan daitekeela haren esanahiaren jabe ez izan arren...

Noski, maitatzearen indarra hortik baitator, beste hori ezagutu nahiak bultzatzen baitu haren-ganako grina; azken finean, maitasunak dakarren erakarpena jakin-minetik baitator.

Eta *Hiroshima mon amour* horretan?

Maitaleak, gorputzak elkarloturik, ez dira gai ezer aitortzeko, eta biak, aldiz, salatuak bezain salduak sentitzen dira ezer ulertu gabe.

Hiroshima pelikulaz ari gara, baina bonbak ez ditut oraindik aipatu ere egin.

Beraz, *Hiroshima mon amour* du izena Resnaisen film ezagunenak, eta hark helarazten digun maitasun istorioak ez du ez iraganik, ez etorkizunik ere. Areago, ezin da denboran kokatu, eta ez du balio bakoitzaren aurreko istorioak

ezabatzeko. Alderantziz, protagonisten istorioa orainaldian besterik ulertzerik ez dagoen moduan, bakoitzaren aurreko bizipenak ere, gaindituztat jo beharrean, kontuan izan behar dira oraindik ere, eta horrela azaltzen zaizkio bakoitzari. Egia da hori guztia Hiroshiman gertatzen dela, baina bizitzan, edo gizabanakoen historian, ahaztu ezinezko gertakizunak badaudela adierazteko da hori. Bizipenek guregan, leherketek lurrian bezala, orbain ahantzezinak laga ohi baitituzte. Resnais memoriaren zinemagilea izan dela berriki irakurri arren, gertakizunen gogoetaz gilea izan dela uste dut.

Berari esker, bada, mundua liburu baten antzera irakur daitekeela erakutsi digu zeren eta irudiak ezin baitira hitzen modura ulertu. Hitzek, beren erara, mintzairak duen logikaren arabera osatzen dute beren mezua. Argudio edo historia jakin bati kontraesanak azalarazi diezazkiokegu, baina irudien aurrean hori ez da posible izaten. Irudia, berez, baieztapena baita. Filmak ikustean, galdera egiten diot neure buruari, zein ote den ikuslearen eta irudiaren arteko harremanak arautzen dituen apailua besteak beste. Testuren bat irakurtzean denok gauza bera ulertzen badugu ere, beti hala denaz zalantzak eduki arren, pelikula beraren aurrean, bistakoa da bakoitzak zerbait desberdina erreparatuko dugula.

Eta pelikuletan hitz egiten bada ere, istorio eta datu zehatzak ere eman arren, nahiz eta mintzaira arrotzik ez eduki... zinema ezin da soilik diskurtso irudikatua izan.

Aitzitik, filmak, literaturari dagokion ohiko narratiba haustearekin batera, gertakizunen garrantzia azpimarratzen digu.

Euskal Herriko historia garaikidean ETA izan da funtsezko gertakizun eta haustura, Alain Renais zenak hura ulerrarazteko ekarpen ederra egin zigun. Adiguria, benetan.

Udaberrien aldaketak

2014-03-20

Duela bi mendeko udaberrian, Napoleonen garaian, Europan bakea hitzartu ondoren, Baionako borrokak eta gudak apirilaren 27ra arte iraun zuten. Bestalde, Wellingtonek ekainaren 14ra bitartean eutsi zion Armadaren aginteari, baina ez dago dudarik 1814. urteak europar bizierari kultur aldaketa ekarri ziola.

Beraz, orain gertatzen ari denaren antzera, orduan gerra bidez eta oraingo honetan era “sasi-baketsuan” bada ere, Europako estatuen kopurua nahiz elkarren arteko harremana zeharo eraldatu zen eta 1814ko apirilaren 18an Gazan jeneralak (Napoleonen partez) eta Murrayk (Wellingtonen ordeztuz) sinaturiko hitzarmena, Europa osoan gertaturiko aldaketa baten mugarri izan zela nabarmena da.

Hori dela eta idatzi nuen “Donostia / Travnik / Dubrovnik / Bilbo” izeneko artikulua (in Astrolabio. Revista internacional de filosofía, 2013. 15. zk. 185-195 or.). “Historiaren ziklo luzearen” ikuspegi horrekin, gaur hain boladan dauden E. Hobsbawm eta T. Rangerren irakurketa murriztaileen aurrean, halaber ondoriozta liteke

nazionalismoen eraikuntzak herri baten historia moldatu, nabarmendu, egituratu, orientatu eta baita faltsifikatu ere egin dezakeela, baina oso zaila dela bere osotasunean “asmatzea”.

Amnesiaren Gorazarrea

2014-04-01

Adolfo Suarez Alzheimerrek jota hil dela eta espainiar Trantsizio politikoa deritzonaz direnak eta ez direnak entzun behar izan ditugu egun haue-tan. Gainera, Gipuzkoako Aldundiaren burua eta Donostiako Alkatea ere auziperatu nahi izan dituz-te Madriletik agindutako dolu-egunak ez errespe-tatzeagatik.

Errespetu falta da, ordea, saldu nahi izan di-guten balizko Trantsizioari buruzko bertsio ba-karra irentsarazi nahi izatea. Eredugarri bezain adostua izan zena, alegia. Ez, ez dizkigute gogora-tu nahi nolakoak izan ziren bigarren Berrezarpen borbondarraren sustraiak, baina hor daude, gerra ondorengo giro hits bezain atzerakoian oinarrituta Espainiaren politika egiteko modua definituz.

Preso dudan lagun baten bisita profitatuz “El encuentro (la noche más frágil de la Transición)” izeneko antzezlan ikusi nuen Madrilen duela gu-txi. Bertan, alderdi komunista legezatzeko Santia-go Carrillo eta Adolfo Suarezzen arteko elkarrizketak taularatzen dira eta, testuak, kritikoa izan arren, ezin du saihesti Trantsizioaren mitoaren bidez ezarritako Konstituzioaren tabuak eragozten duen

adierazpen-askatasunaren falta. Izan ere, orain Suarezren kasuan bezala, orduan, Carrillo hil zelarik, Erregeak berak “adiskidetze nazionala” nahiz monarkiaren beharra espainiar Trantsizioa deitutakoan teorizatu zuen Santiago Carrillo politikariaren hiletan, eta goraiatu egin zuen aipatu garaian Espainiaren alde eginiko lanagatik¹, aurreko egunetan Espainiatik aldentzeko dauden sezesionismoaren nahiak gogor kritikatu zituen Juan Carlos berberak (Carrillok PCEko idazkaritza nagusia 1960.eko hamarkadaren hasieran eskuratu zuen)².

Ez da ahaztu behar, bide batez, Trantsizioaren arabera eraiki zela hala Carrilloren nola PCEren itzal luzea espainiar politika garaikidean³ eta, horren oinarrian, estatuko aparatuek, Madrilgo Atochako abokatuen aurka burututako atentatuaren bidez egindako mehatxua egon zela (1977)⁴.

Beraz, ahaztu beharrean, ondorioak azalarazteko eta balantzea egiteko garaian, une honetan, esan beharko genuke Trantsizioa ez zela Franco hil ondoren epe motzean burututako erregimen instituzionalaren inolako aldaketa azkar eta kontsentsuatua izan, urte luzeetan zehar emandako botere politikoaren bilakaera baizik, zeinetan agerian gelditu zen indarraren erabileraren partez gizarte-kontrolerako menderatze-mekanismo deszentralizatuak (sarean) bezain modernoak hedatzen eta gauzatzen hasi zirela. Bada garaia, ordea, Trantsizioa zer izan zen zertzeko bertsio bakarrari aurre eginez eta, bide beretik, kontsentsutako Trantsizioaren mitotik askatzeko⁵.

Hau da, Espainiaren kasuan eta Franco hil ondoren, ustezko Trantsizioaren bukaeran, funtsezkoa izan zen kanpotik eragindako “tutoretza”.

Gogoan dut nola, tarte horretan, 1976tik 1978ra bitartean, Helmut Smith, orduko Angela Merkel zena, joan zen Madrilera eta, frankisten le-mazain izan zen Adolfo Suarez, berriz, Europara joan zen eta toki guztietara, eta halako ziztu biziko bidaia haietako batean, Vatikanora ere joan zen, aipatu nazioarteko babesaren eske.

Eta bitartean, Espainiako lehendakariorde izan zena, Alfonso Osorio, Washingtonera joan zen eta Jimmy Carterrekin elkartu zen, orduko Obama zena-rekin, haien botere politikoa birmoldatzeko berri ematera.

Ondoren, Suarez bera ere joan zen Estatu Batuetara eta, azkenean, baita Nazio Batuetara ere. Eta Ameriketako Estatu Batuekin hitzartu ondoren, zer izan zen nazioarte mailan Adolfo Suarezek hitzartu zuena?

Bada, ematen duenez, besteak beste, AEBen base militarren jarraipena eta arlo guztietako kolaborazioaren jarraipena hitzartu zuen. Nazioarteari lasaitasuna eman zioten neurriak, hain zuzen ere.

Hori hitzartuta, Europar Kontseiluak eta Nazio Batuen Elkarteak oniritzia eman zioten frankismoaren Trantsizio-prozesuari eta, nonbait, jorratu beharreko bidea onartu zuten.

Espainiar Trantsizioa, bada, ez zen eredugarria ezta adostua ere izan. Ez izateagatik ez zen ez eta espainiarra ere izan. Nazioarteak aginduta eta, inolako kontsentsurik gabe, oposizioari inposatua baizik.

Orain, Carrillo eta Suarez hil ondoren, amnesia-gorazarrea egin nahi izan badute ere.

1. *El País* 2012-09-19
2. ZABALETA, P. (2012) “De cuando Carrillo rompió la Ruptura” in *Gara*, 2012/09/22.
3. VIÑAS, A.; HERNÁNDEZ SÁNCHEZ, F.; LEDESMA, J.L.; PRESTON, P. (2012). “Puntualizaciones sobre Paracuellos” in *El País*, 2012/09/21.
4. www.youtube.com/watch?v=ivnSCzozgjo
5. REQUEJO. F. (2012) Politika Zientzietan katedraduna «Bidea egitera goaz, eta uneren batean legetatik kanpo aritu beharko dugu» 2012-09-15. *Berria*.

Politikaren liburua

2014-04-28

Apirilaren 23an liburuaren eguna izan delata, horren harira, hala egileen eskubideez nola irakurzaletasuna sustatzeko estrategiaz, ohiko iritziak nahiz proposamenak plazaratzeko zeremoniak errepikatu dira berriro.

Donostiako liburu-azokaren ondoan jarritako leku berezi batean gustuko nuen testu bat irakurtzea egokitu zitzaidan niri eta, nirekin batera, beste zenbait euskal idazle ere (Fernando Morillo edota Xabier Etxaniz besteak beste...) zeregin berean aritu ziren.

Esan bezala, gure ekitaldia burutu ondoren eta hiru egunera ikurrina omendu behar zuten toki bertuan (Donostiako Gipuzkoa Enparantzan) antolatzaileen eta idazleen artean ez genuen gertatuko zen horretaz hitz egin, izan ere, politikak, berez, gurekiko ezberdinak direnekiko ulermen ezaren deliberoa baitakar eta literaturak, aldiz, ezberdinen ulerkuntza du helburu.

Horrek ez du esan nahi, ordea, idazkera politikoa ez denik. Aitzitik, literaturak zerbait irakastekotan zuhaitzak eta basoa batera ikustea posible dela erakusten baitu, munduaren konplexutasuna-

ri eta gizakion ezberdintasunei antzemateko tresna da-eta.

Hala eta guztiz ere, ez dut uste literatura irakurlearen ikuspuntuetatik idaztea denik. Horretarako kazetaritza, eta politika-testuak badaude, egon. Literaturak mundua pertsonaien begietatik eman ahal izatea eskatzen du, edo, izatekotan, egilearen ikuspuntutik soilik. Bere begietatik idatziz Gizateria osoa iker zitekeenaz konturatu zen lehenengo idazlea Montaigne izan zen eta, ildo horretatik, saiakeragintza sortu zuen: hizkuntzaren bidez begi-bistakoa zena azaldu nahian.

Horrela baita idazkeraren funtsa, koloreak eta soinuak, ikuspegiak eta adimen-irudiak hitzen bidez agerraraztea, hain zuzen ere. Jean-Paul Sartrek “Les mots” (hitzak) izeneko bere autobiografia idatzi zuenean, hitzek idazlearen adimena eta iruditeria azaltzen dituztela dio. Horregatik, moralaren paisaiaren baitan erakusten ditu testu literarioak. Horregatik da politikoa bere idazkera.

Literaturak, bakoitzaren bizitzak norberaren erabakiak nola moldatzen dituen agertzen du.

Politikak, berriz, erabaki kolektiboak bizitza pertsonalak nola baldintzatu behar dituen lantzen du.

“Els set pecats capitals de la justicia” (Ara Llibres) saiakera argitaratu berri du Santiago Vidal epaile katalanak katalaneraz. Bertan, besteak beste, Egunkariaren edo Parot izeneko doktrinaren kasuak aztertzen ditu modu kritikoa, bere ikuspegiatik baina, halaber, politikoki.

Liburu horrekin saiakerak literatura politikoa egin dezakeela frogatzen du berriro ere.

Horrelakoak Liburuaren egunaren aitzakian
soilik ez suertatzea nahiko nuke...

SASTFOREST

2014-05-12

Maiatzaren 12an (astelehena) eta halaber astelehena den 19an Alfonso Sastre eta Eva Forest omenduko ditugu Madrilen eta Hondarribian hurrenez hurren.

Alfonsok 88 urte bete ditu eta Eva, berriz, duela zazpi urte zendu zen. Biak ala biak adibide izan dira kapitalismo zafratzailearen aurkako borrokan gabiltzanontzat eta horregatik, hala Madrilen nola Hondarribian beren izenak eta izanak aldarrikatu nahi ditugu.

Horretarako propio, honako lerro hauek eskaini nahi dizkizut, irakurle:

“Eva eta Alfonso, koska eta kez karen kidetza.

Hondarribiko elizaren ondoren zegoen harrisiari arrakala ireki zioten behinola erasotzaileen kanoien ahoek “koska” eginez eta, denbora luze batez, “koskez” beteriko paretak utzi zituzten.

Hantxe zegoen Alfonso eta Eva hartu zituen lehendabiziko euskal etxea, hots, Bretxan

Koska zaharra Bretxa berri bihurtu zen bikotea, familia eta guzti, Hondarribira bizitzera etorri zirenean.

Eva eta Alfonso, Euskal Herrian ere, Bretxan bizi izan diren lagun kezkatuak eduki ditugu.

Koska eta Kezka.

Evak, aginteei koska eginez, mundu justuago bat erditzeko eginiko salaketak, koska bat harago eramán gaitu. Erakutsi baitu ezkutatuta egon dena eta, bide batez, irakatsi digu harengandik ikas daitekeena, hau da, bortxaren aurrean otzan izateak ez duela balio, koska egin behar zaiola menderatze nahiari.

Alfonsoren kezka poetikoak, bestalde, bere AMAMARENTZAKO SONETOAn bezala, mundu justuago bat heltzeko modua iradoki digu:

Amama maitea, Cervantesen antzera, kartzela ilun barruan bagera (...), baina alaitsu bezain egoskor gaude, ametsetan bezala, egiari zor (...) kanpora begira, ai ene espetxea, muinetaraino heltzen zait barrea, norbaitek askatasunean duelakoan aterpea, nahiz eta zigorraren larreak, goibel eta itxia eduki atea, gu libre gara, haiek giltzapean...

Alfonso eta Eva,
Kostaldeko kezka eta koska
Iraultzakideak, kosta ahala kosta.
Koska eta kezka adiskideak.
Adi, kideak!
Apur ditzagun kateak
Mundu berri bati irekitzeko ateak
Baietz bihur dezagun ezetza
Lan dezagun koska eta kez karen kidetza.”

Gladysenea

2014-05-26

Bazen behin Egian Gladys del Estal izeneko neska bat. Gaur egun, Gladys Mundu osoko mugimendu antinuklearraren sinbolo eta irudi da baina gure garaian gutako bat zen soilik: gertuko pertsona, gurekin batera helduen irakaskuntzan aritzen zen laguna eta auzoko talde ekologistako kidea.

Bere gurasoak Errepublikaren aldeko borrokariak izan zirenez, Venezuelara erbesteratu ziren Espainia frankistaren errepresiotik ihes eginda eta han jaio zen Gladys 1956an. Familia egiaz horren haurra, lau urte zituela, hona itzuli zen betiko, Hasierra batean, *Aldakonean* bizi ondoren, *Atotxako dorreko* etxebizitza batera aldatu ziren gero eta horrela, Gladys inguruko ikastetxeetan ikasten ibili zen lana lortu arte.

Dakigunez, duela hogeita hamabost urte, *1979ko ekainaren 3an*, Energia Nuklearraren Aurkako Nazioarteko Egunean, José Martínez Salas *guardia zibilak* hamaika lekukoen aurrean hil zuen Tuteran.

Orduko gizarteak herri-mobilizazio handiekin erantzun zuen eta gogoratu beharra dago Donostian egindako manifestazioan, garai hartan

EAJren ordezkari legez Donostiako alkate zen *Jesus Maria Alkain* manifestazioaren buruan ibili zela eta PSOEek ere mobilizazioak babestu zituela.

Erbestean jaiotako Egiako alaba izan arren eta Euskal Herrian hezi eta hazia izan bazen ere, Gladys «venezuelar» gisa agertu zuen Espainiako prentsak hura “kanpoko infiltratua” zela adierazi nahian.

Baina gaur mito bihurtu den Gladys guk gerturik ezagutu genuen, adiskide umoretsu, ekin-tzaile garbia eta lagunen artean beti ziria sartzeko prest zegoena. Eta horrelaxe oroitu nahi dugu. Horregatik guretzat Kristina-enea parkerik ez dago hemen, Gladys-enea baizik, nahiz eta izen aldaketa proposamen horrek Donostiako Udaletik beti ezezko erantzuna jaso duen.

Izan ere, berak irakatsi zigun parke hau maitatzen. Hori dela medio gaude orain eta hemen, berriz ere, Gladysen hilketaren hogeita hamabosgarren urteurrenean ekitaldi hau burutzen bere oroitarriari begira. Gure memoriatik Gladys, pertsona eta sinboloa, ezabatzen baldin bada, errua ez baita beste inorena izango, gurea baizik.

Guretzat eta ingurugiroaren defentsan arituko diren hurrengo belaunaldientzat ere, esparru honek Gladys-enea izena izango du betiko.

Muxu pila, beraz, Gladys, egiaz bezain mundutar ezagutu zintugun horri.

Zure oroimenak betiko iraungo baitu gure bihotzean.

2014-06-01

Egiako Gladys Enea parkean.

Noa, eta ez noa...

2014-06-26

Gasteizko jazzaldira dator Noa abeslari israel-darra. Hori dela eta Euskal Herriko kultur-gile batzuek honako eskutitza idatzi diogu:

“Uztailaren lehen egunetan Gasteizko jazzaldian kontzertu bat ematekoa zara Noa, eta horren aurrean zuri gutun ireki hau zuzentzen dizugu Euskal Herriko hainbat kultur-gilek. Irakurri genuen 2009ko Gazako sarraskiaren harira gazarrei idatzi zenien gutuna. Irakurri eta entzun dizugu beste batzuetan bakearen alde zaudela, bi estaturen irtenbidearen alde, bi aldeetan egin direla gauza izugarriak eta berdin arbuiatzen dituzula... Gu ez gara ausartuko zein irtenbide politiko, zein muga, zein gizarte mota behar den esaten. Hori ez dagokigu guri. Baina bai uste dugu, edozein dela ere konponbide hori, giza eskubideen errespetutik eraiki behar dela. Horregatik eskatzen dizugu bat egin dezazun 3 aldarrikapen hauekin:

- Israelen palestinarrak beren jatorriatik baztertuta bizi dira, Apartheidaren Hegoafrikan beltzak bizi ziren bezala. Apartheid hori eten egin behar da.

- Gaza eta Zisjordania militarki okupatuak dira, koloniez josita, apartheid-harresiak zati-tuta: okupazioa bertan behera utzi behar da.
- Israel sortu zen egunetik, palestinarren “Al Naqba” gertatu zenetik, milioika palestinarrek utzi behar izan dute beren lurra, beren etxea... itzultzeko eskubidea dute.

Antzeko kanpaina bat egin zen munduan He-goafrikako apartheidaren kontra. Orduan milioika herritarrekin batera, hainbat artistak ere babestu zuen. Gaur egun ere hala gertatzen ari da, eta gero eta artista, kultur gile eta akademiko gehiago ari da planteamendu horrekin bat egiten. Guk egiten dugun moduan.

Kontzertu eta hitzaldietan hainbat aldiz mintzatu zara bakearen alde; bake hori palestinarren 3 aldarrikapen horien gainean eraiki behar dela uste al duzu?

Adeitasunez,”

Noak, berriz, erantzun digu eta prest omen dago gurekin biltzeko bere jarrera agerrarazteko. Ni ez naiz hara joango. Izan ere, mozorrontza handia (hitz berria morrontza mozorrotua adierazteko) iruditzen baitzait bakearen alde azaldu nahi izatea palestinarrek pairatu behar izaten dutenaz ohartu nahi izan gabe eta, zuriago dena, Israel estatu sionista hura bere hartan onartuz.

Morroiak bertakoak izaten omen dira, tokian tokikoak, baina beltzen edota zurien itxuraz mozorrotzen dira azala tinduaz ilunduz eta ileorde kizkurrez hornituz (Noaren apainduraz ez dut ezer esango...).

Duela ez asko, esaterako, Geert Wilders, herbeheretarren buruzagi eskuindarrak bertako tradizioen aurka kanpoko esku-hartzerik ez zuela onartuko zabaldu zuen (jaiak beltzen lepo ospatzea leporatzen zioten...) eta “politikoki zuzena” den mintzaira salatu nahi izan zuen. Bere ustez, txantxa arrazistak jazarriz herri-kultura mehatxatua omen dago.

Ene aburuz herbeheretarren izaeran ez da sartzten, berez, kolonialista izatea, historikoki halaxe izan badira ere..., baina, egia esanda, “politikoki zuzena” den mintzaira erabiltzeak bakarrik ezin ditu errealitatearen alde zikinak aldatu eta garbitu.

Egun honetako berria izan da halaber Israelgo Estatuan etorkinei buruzko azken legeak inolako epaiketarik gabe urtebeteko espetxealdia baimentzen duela.

Kolonialismo guztiak ez dira historian gelditu, oso garaikideak direnak baizik eta ez dira berezkoak, baina tradiziozko irudiekin lotuak izatean “politikoki zuzena” den mintzairak ez digu uzten gauzak diren bezala adierazten eta “itxurakerietan” galtzen gara.

Utikan “politikoki zuzena” dena, izan ere, ezin esan hitz-jario eskuindarretik oso urruti dabilenik. Itxura edo mozorrontzaren arabera hitz egitea pellokeria hutsa dela idatzi nuen behin. Berresatera nator. Ni horretara ez noa.

Ez al da aski susmagarria?

2014-07-10

Erljioak dauden tokietan bakerik ez dagoela esaten da. Israel lekuko!

Baina, halere, ez pentsa, erljioak gainditu nahi izan zituen sionismo politikoak, adibidez, erantzukizun handia du Israelgo gerra garaikideetan.

Ematen du politikak eta erljioak ez dutela baxterez antzik. Batak praktikoa bezain arrazoizkoa behar duela izan eta besteak, berriz, alderantzizkoa...

Dena den, Israelgo gerretan, funtsezko eragina politikoa da, ordea.

Izan ere, "Gure Aitaren" idazki zaharrena gordetzen zen toki berean, Suitzan, hasi zen eratzen, 1897an eta Teodoro Herzlen eskutik, Jerusalemgo erljio guztiez gain, munduko juduen bake-tokia eraiki nahi izan zuen sionismoaren ideologia politikoa. XX. mendearen hastapenetan, 1909an, lehenengo nekazaritza-bilgune utopikoa (kibutza) ezarri zuten Tiberiades aintziraren ezpondetan. Beraz, ezin arrazionalago eta baketsuago hasi zen sionismoa, nahiz eta, handik gutxira, egun odoletan dagoen zauria irekitzen hasi ziren.

Horrela uler daiteke horrek, bere garapena behar izan duela. Lehenengo Mundu Gerrarekin ba-

tera, turkiarrek Jerusalem galdu eta britainiarrek, aldiz, Palestina osoa eskuratu zuten. Azken hauek, 1917an, “Balfour” deituriko agiriaren bidez, lur haietan egoteko juduen eskubideak onartu zituzten eta horren ondorioz, Bigarren Mundu Gerra amaitu arte, etengabeko lipizta, sesioa, zabaldu zen. Naziak eragindako Genozidioaren aurretik, bada, hain nabarmena zen biztanle juduen gorakada (aliah, hebraieraz), ezen, 1936an Jerusalemgo palestinarren agintariak haien aurka matxinatzea proposatu zuela. Gauzak horrela, Nazio Batuen Erakundeak, Palestina bitan banatzea onartu zuen 1947an. Palestinarrek ez zuten hura onartu eta, hortik aurrera, hasi zen juduen independentziarako gerra. Juduek Tel-Aviv aukeratu zuten hiriburutzat eta Ben Gurion lehen ministro. Inguruko arabiar gobernuek, etsita, su-etena adostu zuten 1949an Israelgo estatua onartuz eta, Palestina, berriz, Jordania eta Egiptoren artean banatuz. Ez zuen asko iraun hitzartutakoak. Alde batetik, palestinarren ezinegonak arabiar gobernua gerrara eramane zituen berriro ere 1967an, eta bestetik, mota guztietako juduen etorrerak (askenaziak, sefardiak, etiopiarrek, etab...) luraren premia areagotzen zionez, Israelek orduan gerra zela medio eskuratutako lurraldeak bereganatzera jo zuen Nazio Batuek (242. ebazpena) aurreko mugetara itzultzea derrigortu arren. Horri kasu egin nahi ez izanak ekarri zuen 1973ko gerra (Yom Kippur deitua) zeinetan 1967az geroztik ezarritako mugak finkatu zituen nahiz eta Nazio Batuek berriro ere, 338. ebazpenaren bidez, hasierako lurraldeetan banatzea berretsi zuen. Eta, gutxi gorabehera, gauzak

horrela daude orain... Dena borroka eta zipirri-zaparra. Baina, edozein modutara ere, makina bat izan dira ordutik hona bake saioetan ahaleginak egindakoak.

Horixe, duela gutxi gertatu bezala, saiatu bai, askotan ahalegindu dira bakea gauzatzen Israelgo lurretan. Esaterako, aurreneko menia-aldiez aparte, 1978an AEBetako presidente J. Carterrek, Camp David izeneko hitzarmena bultzatu zuen Egiptoko buruzagi zen Anwar el Sadaten eta Israelgo Menahem Beginen artean, baina, indarrean jarri ez zenez, "Intifada" deituriko matxinadari ekin zioten palestinarrek. Osloko elkarrizketetan adostutakoak ekarri zuen 1994an Kairon sinaturiko akordioa, zeinetan Palestinarren autogobernua bi aldeek onartuta gelditu zen. Hurrengo urtean, ordea, juduen aldetik Bakea sinatu zuen Issac Rabin hil egin zuten. Handik aurrera gerraren aldekoa den "Likud" (Argia) alderdiak hauteskundeak irabazi izan ditu Israelen eta balizko Bake hura Jerusalemgo karriketetan baino gehiago paperetan besterik ez dago.

Eta galdera da: Nork hil zuen Issac Rabin?

Ez zuen, palestinar batek hil, Israelgo armadan hezitako judu ortodoxo batek baizik. Egiptoar armadako soldaduek Anwar el Sadat, bakezale arabiarra hil zuten modu berean, bestalde...

Eta orain, bakea berriro ere bideratzen hasi denean, hiru judu gazte bahitu eta hil egin dituzte... Ez al da aski susmagarria?

Justizia trantsizionala, ez transakzionala

2014-08-04

Espanian deitu zuten Trantsizioa transakzioa besterik ez zela izan aipatu dut inoiz¹. Hau da, salmenta baino ez zen izan orduko oposizio politikoak frankistekiko hitzartutakoa. Horrela, erregimenaren kalteak zurituta, oinarrizko injustiziak irauterik izan du 1978tik orain arte. Aldiz, Argentinako edo Txileko diktaduren egoera bertan behera gelditu zen 1983an. Irlandarren irtenbidea 1999tik aurrera hasi zen planteatzen. Timorren ere, 1995ean edo hortik aurrera. Beno, hainbat tokitan munduan zehar planteatu izan dute aipatu *justizia trantsizionala*, nik zuzenean edo zeharka ezagututako Irlandan, Argentinan, Txilen, Perun, Timorren, Hego Afrikan dagoeneko aurrera eraman dute Espainiako Trantsizioa deitutako hartan planteatzerik izan ez zen justizia trantsizionala.

Baina *justizia trantsizional* horrek zer suposatzen du?

Ohiko justiziak bere bidea egiten baldin badi biktimen aurrean eta egindako kalteen aurrean aritzeko, trantsiziozko justizietan pentsatu beharra dago justiziak zer nolako zeregina bete behar duen.

Beraz, biktimei kasu egiteagatik trantsizio politikoaren prozesu bera, aldaketarako prozesu bera, bertan behera gera ez dadin, justiziak zer egin behar duen asmatzen jakin beharra dago². Orduan, justizia mota berezi bat izaten da hori, justizia trantsizionala deritzana eta, normalean, gauzatu egiten da Egiaren Batzordeen bidez. Hau da, Hegoafrikan kasu, hala Estatuak nola haren kontra aritutako oposizioak ere, egindako kalteen berri eman behar izan dute aipatu batzordearen aurrean, horrela egiten ez duena legez kanpo utziz. Egiaren Batzordeak jasotakoa, berriz, ez da, berez, ohiko legeen arabera epaitua izaten balizko aldaketa politikoaren onerako, baina edozein modutara, ezin izaten da aldaketa burutu, aurreko kontuak argitu gabe.

Hori, ordea, ez zen gertatu Estatu espainiarrean Trantsizio garaian. Amnistiaren legearekin, adibidez, zer gertatu zen?

Bada, ezin izan zitzaiela aurreko frankismoaren garaiko gertaerei berrikuspina egin eta, are gutxiago, ondorio ofizialik bilatu. Eta horretan oinarritu izan da Espainiako Epaitegi Gorena Garzón epaileari esateko, hain zuzen, Amnistia Legeak ez zuela ahalbidetzen, ez zuela baimentzen ezertxo ere egin ahal izatea frankismoaren krimenen aurka³.

Orduan, nire galdera, hau aztertzerakoan, zera da: ondo egin al genuen amnistia eskatzen, kon-tuan izanik amnistia hori bera, berek, frankistek, erabili egin behar zutela eta horrek baldintzatu egingo zuela zetorren egokitzapen politikoa?

Beren immobilismoa justifikatzeko ETA erabili izan dutenen eta, oraindik memento honetan

erabiltzen ari direnen aurreko ankerkeria guztiak ordaindu gabe gera zitezen eskatu al genuen orduko amnistia?

Baiki, nik uste dut garai hartan amnistia, hein batean, Alderdi Komunistaren berradiskidetze teorien eraginez sortu zela, baina Euskal Herriak, halere, ongi erabili zuela, hau da, Euskal Herriak lortu zuen presoak kaleratzea eta hori izan zen orduan funtsezkoena, baina ez da izan, ordea, lortutako emaitza bakarra...

Eta gainera, hori guztia gertatu ondoren etorri dira Historiak ere eman dizkigun beste adibide batzuk, eta hori da, hain zuzen ere, orain planteatzeko daukagun aukera berria. Aurretik adierazi dudana, hau da, orain ziklo-aldaketa baten aurrean baldin bagaude, eta 2011n ETAk erabakitako su-eten iraunkorrari esker hala gaudelakoan nago, seguru aski justizia trantsizionala eta Egiaren Batzordeak izango dira hurrengo urratsa eman ahal izateko ardatzak.

Halere, Donostiako udaleko oroimen-batzordea berriki antolatu delarik, oposizio osoak mugaduta jarri dio memoriari: 1975. Beraz, Estatutuaren aurretik (1979) edota espainiar konstituzioaren aurretik (1978) itxi nahi dute oroitzapenen ikerketa.

Galdera da, zer transakzionatu dute EAJk, PSOEek eta PPK?

Trantsizio-sasoi hartaz, zer ezkutatu nahi dute orain?

Uda honetan Euskal Herrian Justizia Trantsizionalaz antolatutako bilkurek, ordea, hala oroimena aztertzeke nola egoera politikoa eraldatzeko,

bideak jorratzen jarraitzea eskaintzen segituko dutelakoan nago.

1. RODRIGUEZ, F. (2013): *Justizia interditaren poetika*. Utriusque Vasconiae. Donostia.
2. RODRIGUEZ, F. (2012): *Biktimari agurka*. Utriusque Vasconiae. Donostia.
3. Nahiz eta 2008tik NBEk frankismoarenak gizateriaren aurkako krimen gisa izendatuak izan, “munduan beste asko bezala” IVAN, A. (2012) *Berria* 2012/09/20.

Bide berriak plano zaharrekin ibiltzera behartuak

2014-09-09

Ados. Borroka armatua amaitu zen. Baina “gatazkak” irauten duela begi-bistakoa da. Hala ere, betidanik gatazka ukatu dutenek bere horretan daude armak tartean ez daudelarik eta ezin esan beren ukazioa (Euskal Herriaren ukoa, azkenean) batere birmoldatu dutenik. Aitzitik, presoekiko jarrerera (eta haien defendatzaileen aurkako jazarpena) ez da ezertan aldatu, txarrerako ez bada behintzat, eta euskal burujabetzaren kontrako hedabideen ohiko joera edota estamentu politikoak independentismoaren aurka aspaldi daraman jite isolatzaileak hor segitzen du.

“Gatazkaren alde edo gatazkaren alde honetan, hor dago aldea” esan genezake. Hau da, Gatazka ikusi nahi izan ez dutenak (Fernando Savater datorkit burura) gatazkaren beste aldean daudelako izaten da, espainolismoan alegia. Aldiz, euskal partisoek (jatorrizko esanahian) aipatu gatazka eta haren ondorioak aitortzeko ez dute (dugu) arazorik.

Hala eta guztiz ere, gatazka hori noizbait bukatuko denaren ustean hezi gara gu eta, usteak

ustel, bakea iritsiko zela izan da oinarrizko goga-
mena orain arte.

Beste modu batean adierazita, gatazka gaindi-
tuko zelakoan sortu izan dugu gure pentsaera, hel-
burua erdiesteko funtsezko lagungarri edo bitarte-
ko gisa ulertu izan ohi baita gatazka hori, baina,
nola pentsatu gatazkaren iraunkortasuna? Zeren
eta borrokak, arestian aipatu dudanez, iraun egiten
baitu.

Bioboterearen arabera eraikitako gure gizarte
segurukratak bezain higienistak dena nahi du kon-
trolpean bere mugen barruan eta, jakina, horretar-
ako mugen kontrola da oinarrizko hastapena.

Gizarte mendebaldarrak, oro har, ezin ditu
gatazkak onartu bere mugen barruan eta, ildo ho-
rretatik, ohiko botereen kontrolik gabeko edozein
gizarte-norabideren aldaketa beharko du ekidin.
Horretarako sortu zen bere garaian “barbaroen” era-
bilera. Mugaz kanpokoaren izuaz baliaturik eutsi
izan dio botereak bereari, mugak zaintzen beraz.

Lévi- Straussek zioen bezala: “Barbariea bar-
baroek sortu zuten”. Hau da, barbarorik gabe ezin
da beldurra kudeatu eta botereak berea egin du.
Barbaroak gatazkatsuak baitira eta gatazka ezin
baita ametitu ez eta baimendu ere.

Baina gatazkak iraun egiten du. Horregatik
aldatuko ditugu mugak eta horrekin batera, bo-
terek, ameto eman nahi ez badu ere, indar etiko
kontrolatzaileak ere bertan behera gelditu dira.
Egin dezagun, bada, gatazkaren gorazarrea.

Urkullu autonomista domes- tikatua da

2014-10-01

Kontsultarako eskubidea?

Hara Urkulluren azkena!, Autodeterminazio-eskubidea alboratu nahian dabil eta herriari galdetzeko baimena eskatzen du marketinaz bere saldukeria politikoa mozorrotu nahian. Aspaldi Gramscik (“Cahiers de prison”, 1978) jada ohartarazi zuen etorkizunerako ikusten zuen “bizitzaren eta ezagutzaren amerikartzeaz” eta, beraz, gizartea aglutinatzeko elementu bezala balio komunitario/komunistak ustez galdu egingo zirela.

Inperialismoa kapitalismoaren fase gorena dela iragarri zuen Leninek eta gaur joera hauen baitan agertzen da, estatu global baterantz doan garapen geraezin bezala, non merkatua, justizia eta politikaren era exekutiboak (koakzioa eta/edo interbentzio armatua) geroz eta ilunagoak eta kontrolaezinagoak diren.

Arendtek “autoritarismoen mende” gisa definitu zuen XX.a (*Los orígenes del totalitarismo*, 1982), eta Ternonek “kriminal” bezala (“*El Estado criminal. Los genocidios del siglo XX*”, 1982)

eta orduantxe agertu zen bertsio iraultzaile bat bai herriaren subirautza eta bai mugimendu sozialak aldarrikatzen zituen, Töniesen ildotik tradizio komunitarioen berrirakurketa egiten zuena eta, azken finean, gizartea aglutinatzeko sistema zaharrak, eraberrituz, berriro onartu eta sozialki berregituratzea proposatzen zuen, hala nola XIX. mendeko europar nazionalismo emantzipatzaile zaharra (Châtelet, F. *“Las concepciones políticas del siglo XX”*, 1986). Gaur eta hemen, koordenatu horietan oinarritzen da nire erantzuna, praktikoa eta politikoa. *Zer da nazionalista izatea?* galderari buruz. Herriari, nazioari alegia, hitza ematea.

Birzikla dezagun estatuaren ideia historikoa. Tratatu klasikoek akademikoki bereizi nahi izan dituzte nazionalismoa eta abertzaletasuna, lehena irrazionaltasuna, xenofobia, arrazismoa eta be-reizkeria atxikiz, eta bigarrenari, aldiz, progresubalioak, arrazoizkotasuna eta hiritar aglutinazioa (Habermas, J. *“Raison et légitimité: problèmes de légitimation dans le capitalisme avancé”*, 1978).

Nahiz eta salbuespen nabarmenak badiren, planteamendu horren aurrean (M. Guibernau, *“El nacionalismo: ¿Ideología de la modernidad?”*, 1994), politika estatalistek garatzen duten nazionalismo inperialista hain da nabarmena, hala nola ura arrainaren begien aurrean, eta, aldiz, askapenmugimendu politikoen eragozpen gogorrak izan dituzte nazionalismoa iraultzaile bezala identifikatu ahal izateko (Arieh Yaari, *“Le défi national: les théories marxistes sur la question nationale...”*, 1978).

Abertzaletasun estatala inperialismo hutsa den bezalaxe, XXI. mendeko nazionalismoa homogeneizazio globalizatzailearen aurkako identitate komunitarioaren errebindikazioa da. Dibertsitatearen alde jokatzeko du (hizkuntza, biologia, kultura eta abarren aldeko dibertsitatea). Kontzeptu deserosoa eta aldaketa sozialaren formulazioa da. Hautabide politikoa (Ulises Moulines. C. *“Manifestu nazionalista”*, 2008).

Horren guztiaren arabera esan liteke, Estatuaren eraikuntza klasikoaren aitzinean, herria dela askatasun-erreferentzia bakarra, bere balio-sistemekin, menderatuak dauden bere hizkuntza eta kulturekin (M. Urkola, “Soziologia kritikotik hezkuntza orokorrera”, 2003). Ildo horretan independentismoa ez litzateke herriak Estatu arrotz bezain menderatzailearekiko duen truke desorekatuaren kontzientzia hartzea eta horren ondoriozko alternatiba sezesionista formulatzea baino.

Beraz, autodeterminazioari, erabakitzeke eskubideari alegia, muzin egiten dion politika ezin da nazionalista izan. Urkullu, beraz, autonomista domestikatua besterik ez da.

Lourdesera bisita

2014-10-23

Urteak dira amaginarreba eta biok Lourdesera joan ginela. Laurogeita hamar urte pasata eduki arren, hark ez zuen bertatik bertara ezagutzen Pirinioen magalean horren famatua den santutegia. Bisita, zinez, emankorra izan zen. Amaginarrebak, bere ajeak eduki arren, arnasteko zailtasunak zituen eta makulu baten laguntzaz ibiltzera behartuta egonda ere, han bertan aurkitu zituen beste batzuen aldean bera oso ondo zegoela deliberatu zuen eta, horren ondorioz, otoitz egiterakoan, zegoen bezala iraun nahi zuela eskatu zion Ama Birjinari.

Antzerako suertatu zait niri azken egun haue-tan Euskadiko Gizarte Zerbitzuen defentsan jende-andana kalean ikusi dudanean. Gasteizko alkatea, eta PP oro har, bere garaian berek babestutako le-gearen aurka asaldatu direnean, pobrezia-aren aurka aritzen diren taldeak aipatu lege eskasa defendatze-ra irten dira kalera.

Begi-bistakoa da, ordea, gizartea trinkotzeko eta beharrei erantzuteko egungo sistemak ez due-la balio. Gaur erabili ohi diren laguntzen orde-z (eta horiek kudeatzeko egiturak, ikuskaritza bar-

ne, gizendu beharrean) askoz eraginkorragoa eta merkeagoa izango litzateke, esaterako, oinarritzko gizarte-errentaren unibertsalizazioa baina kale-aldarrikapena, aldiz, lehendik dagoenaren defentsara lerratu izan da.

Agidanez, gure amaginarrebaren antzera, dagoenarekin konformatzen baita gure gizarte zahartua.

Gizartea eraldatzeko horren beharrezkoak diren irudimena eta iruditeria ere galduak al dira dagoeneko?

Ustela Saila

2014–10–30

Panpina ustela izena zeraman euskal literatura jorratzen zuen aldizkaria aurreko mendearen bukaeran (1975ean). Bernardo Atxaga eta Koldo Izagirre gazteek kudeatzen zuten eta bi ale besterik ez zituen erdietsi, biak 1976an, *Zorion ustela eta Mermelada ustela* izenburukoak.

Artean, Carabanchelgo ziegetan nengoen ni, giltzapean, baina euskal kulturari jarraitu nahian eta, zinez, zorion ustela suertatu zen handik kalera irten eta frankismoak artean osasuntsu segitzen zuela ohartzea. Halere, Izagirrereren ekimenez, *Ustela sailak* aurrera egin zuen eta, ene uste apalean, hor dauzkagu paperean, zuriaren gainean beltzez, euskal literatura berriaren haziak.

Orduko garaia, nola ez, krisi ekonomikoaren bolada izan zen. Petrolioak asaldatu zituen salneurriak eta diruaren balioa jaitsi zen, baina aipatu *Ustela sail* hark gizarte-irakurketa egin ahal izateko bideak eskaini zizkigun. Literaturaren balioak, beraz, jaitsi beharrean, gora jo zuen.

XXI. mende honen hastapenetan, berriro, ekonomiaren krisiak eragin digu. Delako krisi ziklikoa, bada. Izan ere, XIX. mendean lurrak pri-

batizatu ziren eta XX. mendean, aldiz, industria handiak; oraingo honetan, XXI. mendeko pribatizazioa finantzei dagokie. Gauzak horrela, gurean behintzat, XIX. mendeko lurren pribatizazioak (desamortizazioak) arlo komunalak bakar batzuen esku utzi bazituen ere, XX. mendeak estatuen mendeko ekoizpen-sistemak (lantegiak, komunikazio-azpiegiturak eta kontsumorako ehundurak...) esku pribatuei helarazi zizkien. Agur Labe Garaiak, RENFE, SNCF, Tabakalera nahiz Telefonika... eta, beraz, ongi-etorri inbertsio pribatuari.

Orain, noski, Kutxen garaia da. Haiei ere pribatizatzeko agindua iritsi zaie. Publikoa den guztia desagerrarazi behar baita. Herriak ez dira existitzen gizabanakoen arabera gobernatzeko den modernia osteko gizarte honetan. XXI. mendean, alegia.

Eta ustelkeria indibidualak?. Horretaz probestu nahian harrapatu dituzten politikariak nahiz enpresariak?... iritzi publikoari botatako amuak besterik ez dira. Jendea erratzeko trikimailua.

Ustelkeria indibidualak badaudela jakin arren, atzemandakoek gizarte honen sail ustela ezkutatzeko soilik balio dute. Gizartearen pribatizazio-jitea historikoa da, gerarazi behar dena eta, besterik ezean, baita marmelada ere ustelduko da. Eta, gainera, erosarazi egingo digute.

Bufoiak

2014-11-24

Aurreko igandean, Euskal Herritik kanpo nengoela, espainiar telebistako lehenengo kate publikoari kasu egin nion tabernan. Ohiko programa zen, nonbait, ematen ari zirena, den-dena borboitarrei buruzkoa. Hantxe azalduz joan ziren, hurrenez hurren, militarrek, apaizak, gorteetako jende printzipala eta, haien artean, Urkullu jauna bera ere bai.

Euskaldunok korta zer den jakin arren, jakingo ez bagenu ere, jabetuko ginateke han ikusitakoaz, alegia, han nabarmendutako gorteetako jende hura guztia, Errege-familiaren ukuilukoena bilduma zela, alegia.

Berriki Urkulluren Gobernuak saritutako Jon Juaristik berak kaleratu berri du ‘A cuerpo de rey’ izeneko saiakeran (Ariel) “historia osoko (espainiarrena, uler dezagun...) eskuineko gobernurik ergelena dagoela/dugula”. Halaxe pentsatu nuen nik EAEko lehendakaria halako konpainian ikusi nuen.

Baina, kizkurraren kizkurraz, hori azaltzeko Jon Juaristiren aipua erabiliko nuenik ez zitzaidan inoiz otuko. Izan ere, delako Juaristi hori oso ona

baita bere idazlanei izenburuak jartzen, nahiz eta ondoren datorrena, gehienetan, era eskasean idatzi. Gauza luzeak izkiriatu arren, aski gaizki josiak izan ohi dira eta, erudizioaren itxura eman nahi badu ere, wikipediaren arrastoak ezin izan ditu beti ezabatu bere ariketetan.

Dena den, irainak ardatz dituen espainiar prentsan bere tokia eduki badaukala, ezin uka. Nagusiki gogoeta motzean (ez laburrean, gero...) idazten den Espainiako hedabideetako luma gidari bihurtu da, honezkero, aurtengo Euskadi literatur sariaren irabazlea. Patetikoak izaten ari dira, ordea, ABCko bere zutabetxoan berari emandakoa justifikatzeko eginiko azken saiakerak, baina, saiakeragilea denez, bide horri pozik jarraitu dio azken bolada honetan, bere buruari buruzko etengabeko hitz-jarioan. Okaztagarria!

Halere, plazaratu berri den bere liburuaren izenburuak dioenez, badaki zeini buruz idatzi eta zer esan, bere motzean...

Eta Urkullu jauna bezala, gorteetako jende printzipalaren artean, ongi ikasia du bufoiaren zeregina Madrilén.

Belen ala jaiotza?

2014-12-18

Perretxikoak bezala ari dira Jaiotzak edo Belenak agertzen gure inguruan. Urtero sasoi honen seinale bihurtu dira honezkero. Nik, halere, hemen agintzen duen Estatuia “akonfesionala” zela uste nuen, baina, aldameneko euskaldunen ardura duen estatuak ere, izenez “laikoa” izan arren, antzera funtzionatzen duela ematen du. Toki publiko askotan, baita Erakunde ofizialetan ere, kristautasunaren irudiz bete dira garai hauetan aipatu Estatu horiek, beren Konstituzioetako hitzak noraino betetzen dituzten agerian utziz.

Izan ere, nahiz eta testu bietan Estatuia edozein erlijiotatik at dagoela adierazi, Eguberrietan kristautasunarekin bat eginik azaldu ohi dira bate-re lotsarik gabe. Dena den, egun horietan oinarrizko legeen aurka doan harreman nabarmen hori, ohikoa bezain funtsezkoa dela uste dut eta, areago, mendebaldar sistema politiko osoa kutsatzen duelakoan nago.

Esaterako, Palestinako Belenen izan nintze-nean, egungo Estatu inperialisten birmoldaketaz ohartu nintzen. Hau da, hemeretzigarren mendearen erdialdean, 1853an, haiz zuzen ere, Palestinako lurraldeak, pertsonak nahiz ondareak, turkiarren

mende zeuden eta orduan bertan han zeuden erlijioak arazorik gabe bizi ziren elkarrekin, laikoa ez zen estatu batean. Jakina da, ordea, leku jakin batean, erlijio bat baino gehiagoren zaindari desberdinak egoten direla zelatan. Deikundekoa deritzon elizan, adibidez, katolikoak, ortodoxoak eta armeniarrek elkarri beha zeuden (eta daude!), nor mesfidatiago. Aipatutako eliza hori, oso zaharra da, Justinianok eraiki omen zuen VI. mendean Konstantinok egindako baten gainean eta hark Kristoren jaiotza-lekua gogoratu nahi du Belenen nahiz munduan. Nahiz eta bere garaian Justinianoren oso gustuko ez gelditu eta eraiki zuen arkitektoari burua moztu, handik aurrera mota askotako bati-menduak atxikitzen joan zaizkio. Hemeretzigarren mendearen erdialdean, berriz, toki haiek zaintzen zituzten frantziskotarrek Kristoren jaiotza zilarrezko izar batez markatu nahi izan zuten. Kristau ortodoxoek, beren aldetik, hura ez zela benetako tokia zioten eta, haien aburuz berez zenarekiko metro batzuetako tartea zegoela argudiatuz ez zuten hori egiten utzi nahi izan. Halere, turkiarrak frantziskotarren alde lerratu ziren eta izarra jartzeko baimena eman zuten. Orduan, ortodoxoen defentsan, Errusiako Nikolas Tsarra gatazkan sartu zen. Frantziak eta Erresuma Batuak parte hartu zuten eta Krimeako gerra ere irabazi. Horren ondorioz, Palestina britainiarrek eskuratu zuten. Garai hartan, 10.000 judu, 25.000 kristau eta 250.000 islamdar bizi ziren lurralde hartan, orain, jakina, biztanleria zeharo aldatu da juduen alde...

Belengo erlijio-borrokak, beraz, egungo egoera geopolitikoa itxuratzeko balio izan zuen inperialismo garaikideari bidea irekiz.

Baina hau guztia Estatuak erlijioekin dauzkaten barne-loturengatik izaten da, beren buruak “laikotzat” nahiz “akonfesionaltzat” aldarrikatu arren.

Egun, mendebaldar demokraziak oinarritu zituen Ilustrazioaren iraultzak, lege-kode berria ekarria du eta bertan herritarrei eskubidea aitortzen zitzaien “errugabe” zirela aitortzeko. Horrek erlijio moralarekin apurto zuen zeren erlijioen ardatza erruduntasunaren kudeaketa izan ohi da eta. Horren ordez, norberaren aitormenaren ordez alegia, berez eta hastapenetik errugabe jotzen denaren errua frogatu behar izan zen berme guztizko epaiketa publiko batean.

Erljiolari, bada, Estatuaren legea gailendu zitzaion, hitzetan bederen.

Arazoa da, Belengo adibidean bezala, Estatuak ez duela denekin berdin jokatzeko eta Islamen sinboloen aurrean, demagun, “laiko” edota “akonfesional” gisa agertu arren, jaiotzak besterik ez ditugula ikusten Espainian eta Frantzian!.

Antzekoa suertatzen da “erruaren” auzian. Zergatik eskatu behar du barkamena bere burua, legez, errugabetzat jotzen duenak?

Erantzuna, nire aburuz, sinplea da: Estatuak sagaratu delako eta erlijioaren jiteak eskuratu dituelako. Hau da, Estatuak erlijioan sakratua izan dena gainditu beharrean, ordezkatu egin du eta bere buruaren iraupenerako erabiltzen du. Horren ondorioa ere argia da: mota horretako Estatuak ezin dira demokratikoak izan.

Baina joan gaitezen horri buruz kristauen artean eman ohi den adibide nabarmenena aztertze-

ra: lehenengo kristauen konbertsioa. Hartan, metanoia edota epifania suertatzen omen zen, hau da, bide-aldaketa bat, nolabaiteko bihurtze edota iritzi aldaketa..., baina berez, aurrekoarekiko haustura egitean, ez zuen inolako erruduntasunik eskatzen. Aitzitik, autoikasketa izanik, norberaren bizimodu berria zekarren hautua librea zen eta, berria izateagatik hain zuzen ere, ez zuen lehenago bizi izandakoaz damurik eskatzen.

Nire ikasle-garaian metanoiaren metafora erabili ohi zuten antipsikiatreek (Cooper, Laing, Basaglia eta abarrek) ustezko eroen aldarrearen mudaketak (bipolaritatea, neurosiak, etab.) azaltzeko eta nortasunaren aldaketak autoikasketa prozesuak direla ondorioztatzeko eta, horretarako, erlijioetatik eratorritako erruduntasun errepresiboetatik at, joera aldaketa haiei antzematen jakin beharra zegoela zioten.

Nolako Belena muntatua dagoen sasoi honetan, zeinetan iritzi politikoaren birmoldaketaz gain, damutzea eta barkamena eskatzea exijitzen duten..., nortzuk eta berdintasunaren legearen ordezkari erlijiozko oinarri ezkutua besterik ez duten Estatuek...

Mota horretako Belenetan ez naiz ni sartuko...

Demokrazia ez da demografia

2015-01-12

Michel Houellebecq idazle frantziarrak bere azken eleberrian dioenaren aurka (*Soumission*, 2015), demokrazia ezin da bozka ematearekin soilik lotu.

Nekez uler daiteke demokrazia herri jakin batean indarrean dagoen ekonomia-sistematik kanpo, adibidez. Jende guztiarentzat bizi-aukera berdintsuak ez dauden bitartean, egoera horretan egon daitekeen izeneko demokraziak abizena behar du: burgesa edo formala.

Halere, izendapen hori, ematekotan, demokrazia substantiboa izango balitz erabiliko genuke, baina, Joseba Sarrionaindiak dioenez, demokrazia ez da izen hutsa, aditza baizik. Egin egiten den zer-bait, alegia. Horregatik ezin da bozketa kuantitatibotara murriztu aditz horren praktika.

Bozak aintzakotzat hartzeko direla jakin badakigu, baina demokrazia praktikatzerakoan, gizarteragileen iritzia kontuan hartu behar diren hein berean, gai zehatzei buruz, herriaren usteak zuzenean hartu behar dira ezinbestean, eta, aipatu bi ikuspuntuak behar bezala eskuratu ahal izateko, zuzeneko demokraziaren erabilera arautu beharra dago.

Azken hori da, hain zuzen ere, Donostiako Udalak egin nahi izan duena herritarrekin batera aurrera eramandako bi urteko lanketa-prozesua egin ondoren. Orain ordezkari politikoek izan dute hitza eta, emaitzak, edozein delarik ere, zuzeneko demokraziaren araudia erdiesteko bidean bizi denaren ariketa demokratikoa ezin izango du guztiz ordezkatu. Jadanik zuzeneko demokrazia landuz praktikatu dugulako eta, azkenik, demokrazia demografiaren ondorioa baino zerbait gehiago delako.

IDEIAK

BILDUMA

1. Fito Rodriguez. *Jerusalem. Xalimen hiria*. 2008.
2. Eneko Bidegain: *Gerla Handia, muga sakona*. 2009.
3. Fito Rodriguez: *Buru ta zioak*. 2010.
4. Jokin Apalategi: *Euskal Herriaren emantzipazioaz*. 2013.
5. Fito Rodriguez: *Justizia Interditaren Poetika*. 2013.
6. Karmele Artetxe: *Einstein Euzkadin Gerraurreko zientzia eta goi mailako kultura euskaraz*. 2014.
7. Fito Rodriguez: *Gontz garaia (Ipuinak kontatu ezin dituztenei)*. 2014.
8. Fito Rodriguez: *Egunero egun ero*. 2015.